

ERRENTERIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA



2021eko MAIATZA



AURKIBIDEA

1 SARRERA	4
2 HAPO-REN AURRERAKINA ETA BESTE PLAN BATZUEKIKO ERLAZIOA	5
2.1 HELBURU OROKORRAK	5
2.2 PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	7
2.3 PLANAREN ETA BERE ALTERNATIBEN IRISMENA ETA EDUKIA	8
2.4 AURREIKUS DAITEKEEN PLANAREN GARAPENA	31
2.5 BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN AZTERKETA	33
2.6 INGURUMENA BABESTEKO HELBURUAK	74
3 INGURUMENAREN INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA, -ANALISIA ETA BALORAZIOA	78
3.1 PLANAREN ETA KOKAPENAREN JARDUERA-EREMUA	78
3.2 INGURUNE FISIKOA	79
3.3 INGURUNE BIOTIKOA	93
3.4 NATURA-INTERESEKO GUNEAK	103
3.5 PAISAIA	113
3.6 KULTURA ONDAREA	120
3.7 INGURUMEN PROZESUAK ETA ARRISKUAK	124
3.8 METABOLISMO HIRITARRA	139
3.9 MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA	140
3.10 INGURUMEN ETA PAISAIA ALDETIK HOMOGENEOAK DIRENUNITATEAK	143
4 PLANEKO PROPOSAMENEN INGURUMEN EBALUAZIOA	148
4.1 KONTUAN HARTUTAKO HIRIGINTZA GARAPENeko ALTERNATIBEN INGURUMEN EBALUAZIOA	148
4.2 ESPAZIO LIBRE ETA MUGIKORTASUN PROPOSAMENEN EBALUAZIOA	176
4.3 LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDU-PROPOSAMENAREN EBALUAZIOA	176
5 NATURA 2000 SAREAREN ETA BESTE NATURAGUNE BABESTU BATZUEN GAINEKO ERAGINA	178
6 ERAGINPEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA PUBLIKO INTERESDUNAREN PROPOSAMENA	179

I. ERANSKINA. PLANOAK

- Informazio-planoak
 - I.1 Planoa Kokapena
 - I.2 Planoa Maldak
 - I.3 Planoa Gaitasun agrologikoa
 - I.4 Planoa Hidrologia
 - I.5 Planoa Landaredia eta lurzoruaeren erabilerak
 - I.6 Planoa Intereseko landaredia
 - I.7 Planoa Intereseko fauna
 - I.8 Planoa Espazio babestuak
 - I.9 Planoa Korridore ekologikoak
 - I.10 Planoa Ingurumen-arriskuak I
 - I.11 Planoa Ingurumen-arriskuak II
 - I.12 Planoa Ingurumen-unitate homogeenak
 - I.13 Planoa LPP
 - I.14 Planoa Ibaiei LAP
 - I.15 Planoa Nekazaritza eta Basogintzaren LAP
- HD Eren antolamenduko planoak
 - O.1 planoak Alzate
 - O.2 planoak Esnabide eta Basanoaga
 - O.3 planoak Gamongoa eta Txirrita-Maleo
 - O.4 planoak Masti-Loidi
 - O.5 planoak Agustinak
 - O.6 planoak Tolare Berri
 - O.7 planoak Zamalbide Berri
 - O.8 planoak Gaztaño
 - O.9 planoak Galtzaraborda
 - O.10 planoak Perutxene-Larretxipi
 - O.11 planoak Egiburu, Egiluze eta Intzinate
 - O.12 planoak Morrortxo
 - O.13 planoak Tolarieta
 - O.14 planoak Lurzoru urbanizaezinen antolamendua
 - C.1 planoak Baldintzatzaile gainjarriak I
 - C.2 planoak Baldintzatzaile gainjarriak II
- HAP Oren antolamenduko planoak
 - O. planoak Bizitegitarako I
 - O. planoak Bizitegitarako II
 - O. planoak Industrialak
 - O. planoak Ekipamenduak I
 - O. planoak Ekipamenduak II
 - O. planoak Espazio publikoak
 - O. planoak Mugikortasuna
 - O. planoak Ondarea

1 SARRERA

Plan eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa bereziki egokia da baliabide naturalak zaintzeko eta ingurumena babesteko. Tresna horren bidez ingurumen-aldagaia sartzen da ingurumenean eragin handia duten plan eta programei buruzko erabakietan.

Europar Batasunak plan eta programa horiek ingurumenaren aldetik ebaluatzearen garrantzia onartu zuen eta, horretarako, zenbait plan eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeko ekainaren 27ko 2001/42/EE Zuzentaraua eman zuen.

Zuzentaraua zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen bidez gehitu zen barne-zuzenbidean. Lege hori ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak indargabetu eta ordeztu du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak aurrea hartu zien Estatuko xedapen horiei, eta planen eta programen ingurumen-ebaluaziorako prozedura bat ezarri zuen, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak garatutakoa. 2012ko urriaren 16an onartu zen 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena, aurreko Dekretua indargabetuz eta ordeztuz.

211/2012 Dekretuak planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa aplikatzeko esparru bat ezartzen du, Estatuko oinarritzko araudia kontuan hartzen duena eta EAEk arlo horretan dituen eskumenak garatzen dituena. Dekretu honen 4. artikuluan Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren (aurrerantzean IEE) aplikazio-eremua zehazten da, 3/1998 Legearen I. eranskinaren A atalean jasotako plan eta programei dagokienez. Prozedura horri lotutako planen artean Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak daude.

Dekretu horretako *Hasiera* izeneko 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, organo sustatzaileak [Errenteriako Udala] hasierako agiri estrategikoa bidaliko dio ingurumen-organoari [Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administraziooko Zuzendaritza], artikulua horretan zehaztutako edukiarekin.

Dokumentu hau Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Hasierako Dokumentu Estrategikoa da, eta EKOLUR Asesoría Ambiental, SLL-ko teknikari hauek idatzi eta prestatu dute:

- Tomas Aranburu Calafel (Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa)
- Alexandra Egunez Zalakain (Biologoa)
- Ibai Alcelay Iglesias (Biologoa)
- Ángela Oscoz Prim (Masterra ingurumen-inpaktuen ebaluazioan eta zuzenketan)

2 HAPO-REN AURRERAKINA ETA BESTE PLAN BATZUEKIKO ERLAZIOA

2.1 HELBURU OROKORRAK

Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokor (aurrerantzean HAPO) berriaren xedea udal-mugartea oso-osorik antolatzea da, bai haren hiri-habitata eta bai landa-habitata, eta lurralde horretan guztian lurzorua erabilerak arautzea, dagokion hirigintzako udal-proiektua zehaztuz.

Indarrean dagoen hirigintza-araudia Diputatuen Kontseiluaren 2004ko otsailaren 3ko Erabakiaren bidez onetsitako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak eta gerora egindako aldaketa puntualek osatzen dute.

Errenteriako Udala udalerriko HAPOren berrikuspina izapidetzen hasi da, egungo lege esparrura (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, etab.) eta udalerraren hirigintza-antolamenduan eragina duten lurralde- eta sektore-antolamenduko tresnetara egokitzeko premia dela eta. Gainera, herritarren gaur egungo beharrei eta hainbat gaitan sortzen diren erronkei erantzuna ematea du helburu eta, horretarako, garapen jasangarria kontuan hartuta jotzen du.

Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) Aurrerakinak HAPO egiteko irizpideak eta helburuak ezartzen ditu, eta horietatik sortzen dira dokumentuan bertan jasotako izaera irekiko hirigintza garapenerako proposamenak (antolamendu-alternatibak).

Alde horretatik, HAPOren aurrerakinean kontuan hartu diren helburu eta irizpide orokorrak transkribatzen dira jarraian:

1. Garapen jasangarriagoari eta osasungarriagoari bide emango dion lurralde-eredua ahalbidetzea, hirigunearen erabileraren optimizazioan oinarrituta, egokia den tokietan erabilera-intentsitate handiak eta, aldi berean, zentzuzkoak aurreikusiz, ekonomia-jarduerak dibertsifikatuz eta horiek, ahal izanez gero, bizitegi-erabilerekin modu bateragarrian txertatuz. Horretarako, gainera, mugimendu ez-motordunak eta garraio kolektiboa bultzatuko dira eta espazio publikoa berrurbanizatuko da, eta hortik sinergia ugari sortuko dira airearen eta zarataren kutsadura murrizteari dagokionez, bai eta biztanleriaren osasuna hobetzeari dagokionez ere.
2. Testuinguru horretan biodibertsitatea finkatzen eta lehengoritzen ere ahalegintzea, edozein kasutan, udalerriko biztanle eta ondorengo belaunaldietan arreta berezia jarritz.
3. Udalerriko bizi-kalitateari eustea eta hura hobetzea, hirigunearen erabilera optimizatuz eta dibertsifikatuz, ondare eraikia eta urbanizatua berrituz eta balioztatuz, ekipamendu-zuzkidura finkatuz, abian jarritz eta handituz, landa-eremuaren erabilera-baldintzen erregulazioarekin inguruneari balioa emanez eta hirigunea Oiartzun ibaira eta Pasaia badiara irekiz.
4. Biztanle egoiliar gazteak finkatzea eta biztanle gehiago erakartzea. Horretarako, behar adinako lurzoru-eskaintza egingo da kokapen-, prezio- eta tipologia-baldintza egokietan, lehendik dagoenarekiko eta lurraldearen gaitasunarekiko erlazio egokian eta populazio-kohorte desberdinen premiekin bat etorritik, gazteenak eta zaharrenak kontuan hartuta.
5. Errenta-mailei eustea eta horiek handitzea, lehendik dauden ekonomia-jardueren premiak eta beste ekimen batzuk hartzeko ahalmena duen lurzoruaren prestatuz, industria-jardueren ezarpena eta hirugarren sektorearen garapena ahalbidetuz, batez ere enpresentzako zerbitzuekin, ikerketarekin, garapenarekin eta berrikuntzarekin, turismoarekin, aisiarekin eta ostalaritzarekin zerikusia duenarena, eta baita hurbiltasuneko tokiko merkataritza ere hirigunearen dinamizatzaile gisa, eta

lehen sektorearen eta lehen sektore horretatik zuzenean eratorritako jardueren hobekuntza aintzat hartuz.

6. Udalerrriaren ongizate soziala hobetzea, biztanleen integrazioa, konfiantza eta segurtasuna, kultura eta hezkuntzarako sarbidea, sormena, behar diren zaintzak, zuzkidurak, ekipamenduak, etxebizitza eta herritarren oinarritzko gainerako eskakizunak bermatuz eta, aldi berean, kontsumoa kontrolatuz eta ongizate soziala "murriztea" eragingo ez duen oreka bilatuz.
7. Berdintasuna eta, bereziki, genero-berdintasuna bermatzen duten neurriak hartzea, "puntu beltzak" ekidinez eta behar diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak ahalbidetzen dituzten neurriak aurreikusiz.
8. Hizkuntza-arloan eraginik ez izateko behar diren neurriak hartzea.
9. Auzo jakin batzuk Eremu Degradatu gisa kalifikatzea aurreikustea, auzoen hiri-berroneratzeko baldintzak errazteko xedeetarako, eta beste hainbat eremuren hiri-eraldaketari ekitea.
10. Lehendik zeuden industria-garapen gehienak finkatzea, zaharkituta daudenak edo behar bezala urbanizatuta ez daudenak izan ezik, eta ekimen horiek beste jarduera ekonomiko mota batzuetarako lurzorua prestatzearekin osatzea, nagusiki bizitegitarakoak diren eta haietan kokatuta dauden garapenekin bateragarriak direnak, nahastura, aniztasun eta konplexutasun handiagoko hiri-eremu bat lortzeko, independenteak direnak baina hiri-bilbeari jarraipena emanaz.
11. Espazio libreen sistema birdefinitzea.
12. Ekipamendu-zuzkidura hobetzea, lehendik dauden zuzkidurak osatzea eta horien eraginkortasun handiagoa errazten duten partzela berriak aurreikusiz.
13. Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduko baldintzak arautzea, landa-sektorea hobetzea eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimen berriak txertatzeko.
14. Udal-lurraldera iristeko baldintzak hobetzea, motordunentzat nahiz ez-motordunentzat. Baita hiriko mugikortasuna, irisgarritasun unibertsala, aparkalekua eta garraio publikoa hobetzea eta bizikleta-sarea osatzea ere.
15. Aipatutako helburuei erantzuna ematea ingurumen-ikuspegitik iraunkorrak diren soluzioen bitartez eta, horrela, ondorengo belaunaldien etorkizuna bermatzea. Hemen txertatuko dira baita ere energia aurrezteko proposamenak, zerbitzu-azpiegituren eraginkortasun ahalik eta handiena lortzera bideratutakoak (argiteria publikoa, etab.) nahiz teknologia berriak herritar guztien zerbitzura jartzekoak.
16. Proposatu beharreko soluzioak udalaz gaindiko ikuspegitik sustatzen direnekin txertatzea eta koordinatzea.
17. Klima-aldaketaren problematikari aurre egiteko behar diren neurriak sartzea.

Funtsezko oinarri horien gainean, Aurrerakinean honako irizpide hauek planteatzen dira udal-lurraldearen gaineko esku-hartzeari dagokionez:

- Hiri-izaerako erabileretarako lurzoruaren kontsumoa minimizatzea, hautemandako premietarako erantzun zehatzera mugatuz eta aurretik dagoen hiriguneak eskain ditzakeen baliabideen erabilera optimizatuz.
- Landa-izaerako lurzoruko esku-hartze, erabilera- eta eraikuntza-erregimena arautzea, aipaturiko inguruneak berezkoak dituen balioak babestuz, biodibertsitateari lagunduz, lehen sektorearen garapenarekin, kalitate bereziko lurralde baten gozamenarekin eta paisaiaren antolamenduarekin lotutako produktibitatea bultzatuz eta landa-sektorearen balizko birmoldaketa eragingo duten

ekarpenak egiteko gai diren ekimenak txertatuz (balio hidriko eta geologikoak balioetsi, lurzoru artifizializatuak lehengoratu, etab.).

- Hiriguneko lurzoruaren erabilerak arautzea, horien aniztasuna eta nahastura bultzatuz, baldin eta bateragarriak badira, euren kokapen orekatua bideratuz.
- Udalerrriaren irisgarritasuna eta udalerrria bere lurralde-testuinguruan txertatzea bermatuko dituzten bide-azpiegiturak eta zerbitzu-azpiegiturak (telekomunikazioak, gasa, ur-hornidura, energia elektrikoa, argiteria publikoa, saneamendua, etab.) ezartzea, garraio kolektiboan arreta berezia jarritz.
- Toki-izaerako espazio libreak eta beharrezko ekipamenduak garatzea.
- Ondare eraikia eta urbanizatuak birgaitzea, hiria eraldatu eta berroneratzeko beharrezko esku-hartzeak ahalbidetuz.
- Industriako edo hirugarren sektoreko ekonomia-jarduerak finkatzeko lurrak zehaztea.
- Erreterriako plangintza Lurralde Antolamenduko tresnekin (LAG, LPP, LAP, etab.) nahiz udalerrri mugakideetako plangintzekin koordinatzea.

2.2 PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.

Azaldutako helburu eta irizpide orokorren esparruan, Erreterriako HAPO berriak udalerrria garatzeko helburu edo irizpide estrategikoak identifikatzen ditu, eta Aurrerakinean proposatutako jarduera-ildoak eta hirigintza-garapenerako alternatibak finkatzeko oinarriak ezartzen ditu:

- Espazio publikoa berrantolatzea, oinezkoentzat lekua berreskuratuz eta auzo guztietan identitatea duten espazio libreak identifikatuz, horietan hurbileko ekipamendu eta zerbitzuak, sarean antolatutako hiri-continuum eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ezartzea erraztuz.
- Espazio libreen sistema orokorra berrantolatzea, tokiko espazio libreen sareari eta aisialdiko landa-eremuekin eta Aiako Harria Parke Naturalarekin lotzeko korridore ekologikoei jarraipena emanaz.
- Berdeguneak eta landaredia hirigunean integratzea eta eremu publikoko azalera iragazkorra handitzea.
- Hirigunean mugikortasunerako jarraibide berriak ezartzea, mugikortasun ez-motordunak bultzatuz, Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plan baten bidez eta dagozkion urbanizazio-obren proiektuen bidez garatzearen kalterik gabe. Testuinguru horretan ibilgailu-mota desberdinetarako aparkalekuen zuzkidura berrantolatzea.
- Gaztañoko trenbide-pasagunea kentzea, Antxo eta Fanderia artean trenbidea lurperatuz, Galtzarabordan eta hirigunean igarotzen den zatian. Trenbidearen egungo trazaduraren antolamendu alternatiboa, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide bihurtuz.
- Ondare eraikiaren zatirik handiena finkatzea, birgaitzeko eta berritzeko jarraibideak ezarriz, komeni denean ordeztearen kalterik gabe, hiri-jarraitutasuna, irisgarritasun unibertsalaren baldintzak eta energia-efizientzia erraztuz.
- Hiri-hutsuneak eta erabilera zaharkituek okupatutako lurzoru artifizializatuak berreskuratzea, eraldatzea, birsortzea eta berritzea, auzo mugakideak integratzeko helburuarekin.

- Indarrean dagoen plangintza orokorrak proposatutako baina egikaritu gabeko bizitegitarako hirigintza-garapen berriak berriz aztertzea, haien xedea, dentsitateak, erabilera bateragarrien nahastura eta babes publikoko etxebizitzaren hornidura berresteko edo ez berresteko helburuarekin.
- Planaren epemugarako (15 urte) aurreikusi beharreko bizitegi-eskaintza berria zehaztea, bai eta babes publiko sozialeko etxebizitzari eta etxebizitza tasatuei dagokiena eta gainerako etxebizitza eta bizitegi motei eta horiek edukitzeko araubideari dagokiena ere.
- Elementu katalogatuak (arkitektonikoak, arkeologikoak eta naturalistikoak) babesteko baldintzak identifikatzea eta arautzea.
- Erabilera-nahastura eta hiri-continuumarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak ezartzea erraztuko duten neurriak zehaztea.
- Jarduera ekonomikoak ezartzeko lurzorua premia zehaztea eta premia horri erantzuteko proposamen egokiak identifikatzea.
- Esku hartzeko erabakia hartzen den lurzoruaren erabilera intentsitatea zentzuz eta modu egokian optimizatzea.
- Hiri-erabileretarako lurzoru berrien artifizializazioa minimizatzea.
- Landa-inguruneen lurzoruaren erabilera arautzea, lurzoru babesten eta ingurumena hobetzen saiatuz, bai eta bertan egiten den oinarritako jarduera ere, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera, basogintza eta hurbileko elikagaien erabilera sustatuz.
- Ikusitako arriskuak minimizatzea.
- Lurraldean egiten diren eta udalerrira xede duten proposamenak sartzea eta integratzea: Pasaiaiko portua, trenbide-sare berria, etab.
- HAPOn sistematika eta dagozkion eremuak antolatzeko, kudeatzeko eta/edo gauzatzeko baldintzak birplanteatzea, sinergia ugari lortzeko eta haien bideragarritasun-baldintzak errazteko.

2.3 PLANAREN ETA BERE ALTERNATIBEN IRISMENA ETA EDUKIA

HAPOn Aurrerakinak HAPO berriak jaso beharko dituen arazo eta konponbide posibleetarako lehen hurbilketa egiten du, herritarren beharrei erantzuteko eta Errenterian jasangarritasunari dagokionez izan behar duen bilakaera lortzeko eta, hala, hiriaren eraldaketa- eta birkualifikazio-prozesuari jarraipena emateko.

Hala, hiri-ingurunea garatzeko hainbat proposamen egiten ditu bizitegi-, industria- eta ekipamendu-erabilerei, eremu publiko eta libreen eta komunikazio-azpiegituren erabilerei buruz, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko. Halaber, lurzoru urbanizaezineko antolamendu-proposamena aurkezten du.

Oro har, Aurrerakin honetako proposamenek aukera ematen dute udalerriri honako hauek emateko:

- Sistema orokor mailako espazio libre kalifikatuen sistema, 50 hektareatik gorakoa, legez eskatzen den gutxienekoa baino 2,3 aldiz azalera handiagoarekin; gainera, tokiko espazio libre gehigarriak ditu, hirigunean modu egokian banatuta eta sarean antolatuta.
- Ekipamendutarako partzela berriak prestatzeko alternatibak Agustinak eremuan, Altzaten, Gamongoan, Loidin eta Basanoagan, besteak beste, eta aparkaleku publiko berrietarako Esnabiden, Pontikan, Altzaten, Gamón zumarbidean, Kotxerak eta Tomas Lópezen.
- Zehaztu beharreko etxebizitza berrien eskaintzarako, a priori, 1.100 eta 1.700 etxebizitza arteko urkila planteatzen da.
- Lurzoru berri baten eskaintza, jarduera ekonomikoak ezartzeko. Eskaintza horren arabera, beheko solairuan 130.000 m² arterainoko okupazioa izango duen lurzorua erabiliko da, eta 200.000 m²(s) inguruko eraikigarritasuna izan lezake, tokiko hiri-merkataritzak edo hirugarren sektoreko beste erabilera batzuek bizitegi-eraikinetako beheko edo goiko solairuak okupatzearen kalterik gabe.
- Udallerriaren azaleraren % 84 baino gehiago hartzen duen eta Urumea eta Oiartzungo haranen artean dagoen landa-eremua da. Planteatzen den jarduera-ildoaren arabera, % 0,5 baino gutxiago murriztuko da. Indarreko plangintzako lurzoru urbanizaezinak (2004ko HAPO eta haren aldaketak) % 84,68 hartzen du, eta aurrerakinean proposatutako aldaketekin % 84,38.

2.3.1 Hirigunearen garapena

Oro har, hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren azalera Errenteriako lurraldearen % 15,62 izatea planteatzen da HAPOren Aurrerakinean, beraz, gehikuntza txiki bat baino ez da ikusten indarrean dagoen plangintzan ezarritakoarekin alderatuta (% 15,32).

Aurrerakinean ondare eraikia finkatzea aurreikusten da, hiri-birgaitze, -berroneratze, -berritze eta -eraldaketa alternatiben kalterik gabe, bai eta udallerriaren ingurumen- eta hirigintza-birkualifikazioa eta ahalik eta sinergia handienak lortzea ahalbidetuko duten garapen berriak ere, enplegua sortzea eta etxebizitzarako eskubideari erantzutea ahalbidetuz. Halaber, hiriko eremu publikoan jardutea proposatzen da, mugikortasun ez-motorduna lehenetsiko duen hiri-ingurune irisgarria bultzatuz, gainerako mugikortasun-moduei behar bezala erantzutearen kalterik gabe. Horretarako, espazio libreen, ekipamenduen eta zerbitzu-azpiegituren zuzkidura publikoak osatzea proposatzen duten alternatibak planteatzen dira eta, horretarako, elkarrekin konektatutako “Auzo Bihotzak” sortzen dira, bai eta landa-ingurunearekin lotutako eraztun berdea ere: “Berde Zirkuitua”.

Hurrengo ataletan, hainbat gairi buruzko garapen-proposamenak deskribatuko dira. Horiek, oro har, Aurrerakinaren planoetan jaso dira 1. alternatiba gisa. Horrez gain, eremu batzuetarako beste antolamendu-alternatiba batzuk proposatu dira. Kasu horietan, 1. alternatiban jasotako aukera da, *a priori*, garatzeko aukera gehien dituen.

1. taula. HAPOren Aurrerakinean proposatutako jarduera-eremuak (1. alternatiba), lurzoruaren sailkapena, aurreikusitako erabilera eta indarreko plangintzaren inguruan egindako aldaketak.

Aurreikusitako garapen-eremuak	Lurzoruaren sailkapena indarreko HAPOn	Lurzoruaren sailkapenaren aldaketa	Indarreko HAPOn aurreikusitako erabilera	HAPO berri proposatutako erabilera-aldaketa

Altzate	Hiri-lurra		Bizitegiak	
Esnabide	Lurzoru urbanizagarria		Bizitegiak	
Gamongoa	Lurzoru urbanizagarria		Bizitegiak	
Loidi	Hiri-lurra		Industria	Bizitegiak
Agustinak	Hiri-lurra		Ekipamendua	Ekipamendua eta bizitegiak
Tolare Berri	Lurzoru urbanizagarria		Bizitegiak	
Zamalbide Berri	Lurzoru urbanizagarria		Bizitegiak	
Basanoaga	Hiri-lurra		Bizitegiak	
Gaztaño	Hiri-lurra		Trenbide-sarea eta Parkeak eta lorategiak	Bizitegiak
Galtzaraborda	Hiri-lurra		Parkeak eta lorategiak	Ekipamendua
Txirrita-Maleo – eraikigarritasuna handitzea	Hiri-lurra		Industria	
Industria-garapena Gamongoan, Txirrita-Maleo handitzearen ondorioz	Lurzoru urbanizagarria		Bizitegiak	Industria
Egiburu	Hiri-lurra		Industria	
Egiluze	Hiri-lurra		Industria	
Intzinarte	Lurzoru urbanizagarria		Bizitegiak	Industria
Perutxene/Larretxipi	Lurzoru urbanizagarria		Bizitegiak	Industria
Morrontxo	Lurzoru urbanizaezina	Lurzoru urbanizagarria	Nekazaritza- eta abeltzaintza: balio estrategiko handiko.	Industria
Tolarieta	Lurzoru urbanizaezina	Lurzoru urbanizagarria	Nekazaritza eta abeltzaintza: trantsizioko landa-paisaia	Industria

Nolanahi ere, Aurrerakinean azaltzen diren garapen-alternatibak irekiak eta ez-baztertzailak dira, eta plana idatzi eta izapidetzeko prozesuan zehar edukiak gehitu, doitu eta/edo osatu egin daitezke.

2.3.1.1 Bizitegi-erabilera

Aurrerakinean proposatutako egoitza-antolamenduko alternatibek 1.190 etxebizitza berri eskaintzen dituzte guztira.

Indarreko plangintzan aurreikusitako eta egikaritu gabeko bizitegi-garapenak jasotzen ditu Aurrerakinak, eta hainbat eremutan aldaketak proposatzen dira indarreko plangintzan ezarritako zehaztapenetan. Inola ere ez da planteatzen bizitegi-garapenik eremu berrietan; proposamen guztiak indarreko plangintzan hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruan kokatzen dira.

2. taula. HAPOn Aurrerakinak bizitegi-garapenerako proposatutako eremuak. Aukeratutako alternatibak eremu bakoitzean planteatutako kopurua aurkeztuko da.

Eremua	Etxebizitza-kopurua aukeratutako alternatiban
Altzate	189
Esnabide	81
Gamongoa	597
Perutxene/Sagasti	0
Palaziozarra/Larretxipi	0
Tolare Berri	2
Zamalbide Berri	0
Basanoaga	20
Galtzaraborda	40
Kotxerak	60
Agustinak	20
Loidi	112
Hiri-lurzoruko beste batzuk	69
GUZTIRA	1.190

Egikaritu gabeko garapenak dituzten eremuak, indarreko plangintza finkatu edo izapidetzen ari diren garapen-planen antolamendua jasotzen dutenak:

- **Altzate:** Eremu hori garapen-plangintza baten izapidearen xede da, haren antolamendu xehatua zehazteko, hain zuzen ere, Altzate izeneko 16. eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren aldaketa puntuala, 2020ko azaroaren 17an hasierako onespena emandakoa. Plan Bereziaren Aldaketaren esparruan, hasiera eman zaio ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapideari, eta gaur egun *Ingurumen Administrazioako zuzendariaren 2019ko ekainaren 12ko Ebazpena du. Horren bidez, "Altzate" (Errenteria / Lezo) Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa Puntual Partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismeneko agiria egina da.*

HAPOn Aurrerakinak Plan Bereziaren Aldaketan gaur egun proposatzen den antolamendua jasotzen du. 189 etxebizitzarako edukiera izango duen bizitegi-garapen berri bat planteatzen da, bai eta merkataritzako lokalak, hirugarren sektoreko jarduerak eta ekipamendu publikoetarako lurzatiak ere.

Proposatutako irtenbideak nabarmen hobetzen du hiriaren eta Oiartzungo itsasadarraren eta Pasaia badiaren arteko elkargunea; Iztieta hiri-bilbepa jarraipena ematen dio, bi auzoak lotzeko oinezkoentzako pasabide berri bat aurreikusiz; aparkaleku-zuzkidura bat sortzen du, Iztieta dagoen defizitari erantzuteko; eta tamaina bereziko plaza bat antolatzea aurreikusten du Iztieta aurrealdean, itsasadarrera irekia eta hegoaldera begira.

Altzateko jarduketa ez da Errenteriako lurraldera bakarrik mugatzen, Lezoko udalerrian jarraitutasuna baitu.

- **Esnabide:** HAPOn Aurrerakinak finkatu egin du indarreko plangintzak jasotzen duen eremuaren antolamendu xehatua, Esnabide 32. sektoreko A-1, B-1 eta B-2 lurzatiei xehetasun-azterketa (behin betiko onartua 2020ko uztailaren 20ko bilkuran (GAO 182 zk., 2020ko irailaren 23a).

Proposamenak aukera ematen du Beraungo bide-sarea osatzeko eta 81 etxebizitza berri egiteko, horietatik 54 babes publikoko etxebizitzatzat jotzen direnak. Halaber, aparkalekutarako eraikin berri bat planteatzen da.

Gainera, bide berriak egikarrituko dira eta lehendik daudenak birmoldatu, Esnabidek Donostian izango duen garapen berrirako sarbidea errazteko.

Eremu hori egikaritzen ari da.

- **Gamongoa:** Indarreko plangintzan aurreikusita dago eremu horretako bizitegi-antolamendua eta, bestalde, Plan Orokorreko Aldaketa baten xede izaten ari da (hasierako onespena 2020ko urriaren 27an). HAPOn Aldaketa horri ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa ari zaio egiten, eta *Ingurumen Administrazioako zuzendariaren 2019ko azaroaren 27ko Ebazpena du. Horren bidez, 56. sektoreari (Gamongoa) dagokion Erreneriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 6. Aldaketa Puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismeneko agiria egin da.*

Aurrerakinak aipatutako aldaketan hartutako soluzioa jasotzen du, hau da, Pontikaren ondoko lurzoruan bizitegitarako erabilera nagusia handitu eta, aldia berean, goiko eremua libratzen du hiri-parke gisa erabiltzeko, bere berdegune izaera finkatuz.

Hain zuzen ere, 597 etxebizitza berri antolatuko dira eremuan, horietatik 440 babes publikoko etxebizitzak. Goiko aldean eta Beraundik hurbilen dagoen aldean, ekipamendu-partzelak antolatzeko aukera ere aurreikusten da. Beraundik Gamongoa parkerako irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzak hobetzea ere aurreikusten du proposamenak.

Modu gehigarrian, Gamongoaren hego-mendebaldean dauden lurrak, Txirrita-Maleo ingurutik hurbil daudenak, eremutik kanpo uztea proposatzen du Aurrerakinak, eta horietarako hainbat aukera planteatzen ditu:

- Parke-erabilera ematea (berdegunea).
- Jarduera ekonomikoetarako eremu gisa kalifikatzea, Txirrita-Maleotik sarbidea duela.
- Ekipamendu publikoaren erabilera ematea.
- Ekiola proiektua har lezakeen eguzki-parkearen erabilera ematea.

Indarreko plangintzako zehaztapenak aldatzen zaizkien eremuak:

- **Loidi:** Gamongoa eremuaren ekialdeko muga proposatzen den garapen berriarekin koordinatuta, Aurrerakinak Masti-Loidi eremuko industria-pabiloi batzuk eraistea planteatzen du. Horren ordez, bizitegi- eta zuzkidura-garapena egitea aurreikusten da eta, horrez gain, Gamongoa eta Loidi auzo berriko "Auzo Bihotza" izango den plaza antolatzeko asmoa dago. Leku horretan plazaren ardatz izango diren merkataritza-lokalak eta ekipamendua antolatzea proposatzen da, baita 112 etxebizitza inguru ere, sestra azpiko garajeekin.

- **Agustinak:** udal lurzattia eta Agustindarren komentua kultur ekipamendu publikorako erabiltzea aurreikusten da. Halaber, 20 etxebizitza berri egiteko bizitegitarako partzela bat antolatzea aurreikusten da Lousada kalearen aurrealdean, haren eta Arramendi parkearen aurrean dagoen eraikinaren lerrokadura osatuz.
- **Tolare berri:** 1. alternatiba gisa saihebidia ez egikaritzea eta bizitegi-garapena eraikin batera mugatzea proposatu du Aurrerakinak, motordun ibilgailuen zirkulazioaren inguruko segurtasuna hobetzeko urbanizazio-obra puntualak egitearen kalterik gabe. Proposamen horrek asko murrizten du indarreko plangintzak auzo honetarako proposatutako lurzoru urbanizagarria. Horrez gain, 2. alternatiba gisa 1. alternatibak baino bizitegi-garapen handiagoa jasotzen du Aurrerakinak, bost eraikuntzarekin eta saihebidia egikaritu gabe. 3. alternatibak, indarreko plangintzari dagokionak, aurreko alternatibetan baino handiagoak diren hiru eraikin aurreikusten ditu, eta saihebidia egikaritzea.
- **Zamalbide Berri:** Aurrerakinak (1. alternatiba) saihebidia ez egikaritzea eta bizitegi-garapen berririk ez ezartzea aurreikusten du, motordun ibilgailuen zirkulazioaren inguruko segurtasuna hobetzeko urbanizazio-obra puntualak egitearen eta aparkalekuak antolatzearen kalterik gabe. Alternatiba horrek indarreko plangintzan proposatutako auzoko lurzoru urbanizagarri guztia kentzen du. Baina kasu honetan ere, Aurrerakinak ez du proposamen hori ixten eta indarreko plangintzan eta aurreko antolamenduetan proposatutako antolamendua aztertzeko alternatiba gisa aurkezten du. Hala, 2. alternatibak saihebidia ez egitea planteatzen du, eta garapenak zazpi eraikin berritara mugatzea, hiri-bilbea osatuz. 3. alternatibak (indarreko plangintzarekin bat datorrena) eta 4. alternatibak saihebidia egikaritzea eta hirigintza-garapen handiagoa planteatzen dituzte.

Esparru horietarako, a priori, bizitegi-erabilera aukeratu da baina beste erabilera batzuk garatzeko alternatibak ere proposatzen dira:

- **Gaztaño:** trenbidearen trazadura lurperatzearekin eta trenbide-pasagunea kentzearekin batera, lehengo kotxerak eraistea proposatzen da. 1. alternatibak Erdigunearen eta Gaztañoaren artean plaza bat antolatzeko aukera ematen du, oinezko etorbide baten bidez mendebalderantz jarraitutasuna izango duena, Galtzarabordako geltokiraino; Gaztaño pasealekutik Agustindarren biribilguneraino bidea egiteko aukera ematen du. Gainera, etxebizitza-eraikin bat aurreikusten du, merkataritzako etxabeekin eta garaje-kopuru handiarekin, tokiko beharrei nahiz bideratuko den intermodalitateari dagozkion beharrei erantzuna emango diona. 2. alternatibak bideak hobetzea besterik ez du proposatzen, eta espazio libreak antolatzen ditu. 3. alternatibak, bestalde, bidea hobetzeaz eta oinezkoentzako hiribide bat sortzeaz gain, 1. alternatibak baino garrantzi handiagoko bizitegi-eraikinak proposatzen ditu. 4. alternatibak beste bide-soluzio bat proposatzen du eraikuntza berriak antolatu gabe. Beste alternatiba bat ere proposatzen da (5. alternatiba), 1. alternatibaren antzekoa baina, kasu honetan, etxebizitzarik gabe.
- **Basanoaga:** udal-igerilekuen ondoko Basanoaga eremuan, 1. alternatibak, indarrean dagoen plangintzak bezala, bizitegi-eraikina planteatzen du Galtzaraborda etorbidearen aurrean, eta 2. alternatibak, berriz, partzela ekipamendu publikotarako erabiltzea proposatzen du.

Eremu horietarako, *a priori*, beste erabilera batzuk aukeratu dira baina bizitegi-erabileraren alternatiba ere jasota geratu da:

- **Galtzaraborda** (kiroldegia mendebaldeko atzealdea): trenbidearen egungo trazadurak okupatzen duen lurzoria berreskuratzea aurreikusten da, Altza, Antxo eta Galtzarabordako geltokien artean aurreikusita dauden eta aurki egikarituko diren lurpeko obren ondorioz. 1. alternatibak Galtzarabordako kiroldegia handitzea aurreikusten du, eta 2. alternatibak, berriz, 40 etxebizitzatarako edukiera izango duen bizitegi-garapen berri bat antolatzea. 0 alternatibak indarreko plangintzan xedatutakoa jasotzen du, eta Alaberga eta Galtzaraborda artean parke bat antolatzea aurreikusten du.
- **Palaziozarra-Larretxipi:** Aurrerakinean, Palaziozarra-Larretxipi gisa identifikatu da indarrean dagoen Plan Orokorreko Perutxene/Sagasti eta Palaziozarra/Larretxipi eremuei dagokien lurzoria. Indarrean dagoen plangintza orokorrean dentsitate txikiko edo oso txikiko (3. alternatiba), bizitegi-lurzoria gisa kalifikatzen badira ere, aurrerakinean proposatzen da lurzori horiek askotariko jarduera ekonomikoen erabilerara berbideratzea (1. alternatiba), hiri-eremuaren (Agustinak) ondoko kokapen batean, lehendik ekipamendu publiko eta pribatuak dauden tokian, eta bere ingurunean beste jarduera ekonomiko batzuk dituen tokian. 2. alternatibak 1. alternatibaren antzeko okupazioa proposatzen du, baina erabilera mistoetarako erabiliko da: jarduera ekonomikoetarako, hirugarren sektoreko jardueretarako eta bizitegitarako. 4. alternatibak ere 1. eta 2. alternatiben antzeko okupazioa du, baina kasu honetan eremu osoa bizitegitarako erabiliko da.



1. irudia. Altzate, Esnabide, Basanoaga, Galtzaraborda eta Gaztaño eremuetarako aukeraturako alternatibak. Iturria: Errenteriako HAPOn Aurrerakina.



2. irudia. Gamongoa, Loidi eta Agustinak eremuetarako aukeratutako alternatibak. Iturria: Errenteriako HAPOren Aurrerakina.



3. irudia. Tolare Berri eta horren iparrean kokatutako Zomalbide Berri (garapena baztertu egin da) eremuetarako aukeratutako alternatibak. Iturria: Erretereriako HAPOren Aurrerakina.

2.3.1.2 Ekonomia-jarduerak

Aurrerakinak jarduketak proposatzen ditu lehendik dauden industria-eremu batzuetan eta garapenak indarreko plangintzan lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako bi sektore berritan (Tolarieta eta Morrontxo), bai eta Perutxene/Larretxipi sektoreari bizitegi-kalifikazioa jarduera ekonomikoetara aldatzea ere.

Lehendik dauden industria eremuak berrantolatzeko edo handitzeko jarduketak:

- **Txirrita-Maleo:** eraikigarritasuna handitzeko aukera ematea proposatzen da, Gamongoaren muga lehendik dauden hiru industria-eraikinen jarraipenean. Eraikinaren okupazio-baldintzak 4.000 m² inguru handitzea ekar lezake.
- **Egiburu:** industria-lurzorua berrantolatzea proposatzen da, Zentolengo hilerriaren inguruko eremuaren eta haren sarbideen antolamendua doituz, Zentolengo saihebidia egikaritzea baztertzea planteatzen dela kontuan hartuta. Proposamen horrek aukera ematen du egungo okupazio-baldintzak handitzeko.
- **Egiluze:** Egiburuberri industrialdearen eta AP-8 autobidearen artean lehendik dagoen industria-eremua antolatzeko baldintzak aldatu dira. Eremuak 6.000 m² inguruko edukiera izango luke pabiloi berriek okupatutako lurzorian.
- **Intzinarte:** Tolare berri ondoan industria-lurzorua berrantolatzea planteatzen da, eremuaren urbanizazioa osatzeko eta industria-eraikin berriak antolatzeko.

Indarreko plangintzak asentamendu hori bizitegi-erabilerarako handitzea aurreikusten du eta, ondorioz, erabat berrurbanizatuko da. Horretarako, GI-3671 errepidean biribilgune berri bat egikaritzea aurreikusten da, orain arte egin ez den jarduketa.

Ondorengo faseetan ikusiko da antolamendu-alternatiba horri eusten zaion edo, Tolare berriko eta Zamalbide berriko eremu bakartuetarako planteatu den bezala, zabaltze-proposamena baztertzen den, dagokion erregulazioa ezartzearen kalterik gabe.

Industria-sektore berriak:

- **Morrontxo:** gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako industria-lurzorurako sektore berri bat antolatu da. Txirrita-Maleoren ondoan dago, eremuaren hegoaldean kokatutako plataforma garaia batean, eta 43.500 m²-ko edukiera du pabiloi berrietarako.
- **Tolarieta:** industria-lurzorurako eta industriari laguntzeko zerbitzuetarako sektore berri bat antolatzea proposatzen da gaur egun urbanizaezina den lurzorian. Sorondo errekarren ibarbidearen hondoan Masti-Loidiko eremuari jarraipena ematean datza proiektua. Horretarako, plataforma berri bat sortuko da eta Urkiola eremuko egungo lurzoruak gehituko dira, pabiloi berriek okupatuko dituzten 41.500 m² inguruko azalerarekin. Pabiloi horiei beste 10.000 m² gehituko zaizkie beste jarduera batzuetarako, pabiloi industrialenak ez diren jardueretarako. Eremuan dagoen erreka desbideratu beharko da. 84.000 m²(s)-ko


hirigintza-eraikigarritasuna har lezake. Eremu hori Masti-Loidiko industrialdearen jarraitutasunean dago, eta haren sarbideak parteka ditzake.

1. alternatibak ibarbidearen eraikuntzak antolatzen ditu erdiko bide baten bi aldeetan; 2. alternatibak, berriz, lurzati eraikigarri handi bat planteatzen du eraikin haietara iristeko bidearen mendebaldeko ibarbidean. Azkenik, 3. alternatibak 1. alternatibaren antzeko antolamendua proposatzen du, Masti-Loidi industrialdearen ondoan proposatutako eraikinak murriztuz.

- **Perutxene/Larretxipi:** 1. alternatiba gisa, Aurrerakinak a priori hautatu duena, sektore bat antolatuko da industria-lurzorurako, industriari laguntzeko zerbitzuetarako eta merkataritzakoak ez diren hirugarren sektoreko erabileretarako, Perutxene/Sagasti eta Palaziozarra/Larretxipi eremuetan, eta Palaziozarrako muinoa libre utziko da espazio libreen sistema orokorrean sartzeko. Eremuak 12.000 m² inguru izango lituzke pabiloi berriek okupatzen duten lurzoruan, eta horri 7.500 m² inguruko okupazioa gehituko litzaioke beste jarduera-mota batzuetarako, pabiloi industrialak ez diren jardueretarako. 45.600 m²(s)-ko hirigintza-eraikigarritasuna har lezake, gaur egun proposatutako garapenek eskatzen dituztenak baino askoz hirigintza-karga txikiagoekin.

2. alternatibak 1. alternatibaren antzeko okupazioa proposatzen du, baina erabilera mistoetarako erabiliko da: jarduera ekonomikoetarako, hirugarren sektoreko jardueretarako eta bizitegitarako. 4. alternatibak ere 1. eta 2. alternatiben antzeko okupazioa du, baina kasu honetan indarreko plangintzan ezarritako bizitegi-erabilera mantentzea proposatzen da.

Indarreko plangintza orokorrari dagokion 3. alternatibak dentsitate txikiko edo oso txikiko bizitegi-lurzoru gisa kalifikatzen ditu eremuak.



4. irudia. Morrontxo, Tzirrita-Maleo, Tolarieta, Egiluze, Egiburu, Palaziozarra/Larretxipi eta Intzinarte eremuetan proposatutako industria-garapenak. Iturria: Errenteriako HAPOren Aurrerakina.

2.3.1.3 Ekipamenduak

Udalak ekipamendu-arloko zuzkidura ugari ditu, eta HAPOk zuzkidura horiek finkatzea proposatzen du, Madalena ermitaren ondoko liburutegian (trenbidearen oinezkoentzako etorbide berria irekitzearen testuinguruan) edo Agustinak eremuko biribilgunearen ondoan egin daitezkeen egokitzapenak, eraldaketak edo ordezteak egitearen kalterik gabe.

Era berean, Xenpelar, Niessen, Arte Eskola eta abarretako espazioak kultur sisteman sartzea proposatzen da.

Gainera, udalerriko ekipamendu-sistema hobetzeko jarduketa hauek garatzeko aukera planteatzen du Aurrerakinak:

- **Arramendi parkea:**
 - o Arramendin, Agustinak eremuaren ondoan, irakaskuntza-ekipamenduaren erabilera izango duen partzela bat prestatzea.
 - o aire zabaleko kirol-pistak aurreikustea Arramendin
- **Galtzaraborda:** trenbideak gaur egun okupatzen duen lurzorua berreskuratzeko proposamena egitea, linea lurperatzeko obren ondorioz. Galtzarabordako kiroldegia mendebalderantz zabalduko da. Eremu honetarako beste aukera batzuk aztertu dira, hala nola bizitegi-erabilerara (2. alternatiba) edo espazio libreetara (3. alternatiba) bideratzea.
- **Agustinak komentua:** zuzkidura-erabilera publikotara bideratzea.
- **Gamongoa:** ekipamendu-partzelak antolatzea Gamongoa parkean, Beraunen ondoan.

Bestalde, arestian aipatu den bezala, Basanoagako bizitegi-garapenaren alternatiba gisa, inguruko kirol-instalazioak handitzea jasotzen da Aurrerakinean (2. alternatiba).

2.3.1.4 Espazio libreak

Aurrerakinaren bidez, hirigunean oinezkoen mugikortasuna bultzatu nahi da, ingurumen-kalitatea hobetuz, zarata eta kutsadura murriztuz eta hiriguneko segurtasuna handituz, auzo bakoitzean espazio libreak sortuta eta eremu horiek elkarren artean lotuta.

Ildo horretan, auzo bakoitzean batez ere oinezkoentzat izango den espazio libre bat identifikatuko da, haren erreferentzia eta identitate gune eta leku gisa konfiguratuko dena, auzoaren bihotz gisa (aurrerantzean, "Auzo bihotza"), hirugarren sektoreko jarduerak, batez ere merkataritzakoak eta zuzkidurakoak kokatu ahal izateko.

3. taula. Auzo bakoitzean proposatutako "Auzo bihotzak".

Auzoa	Auzo bihotza
Agustinak	Elias Salaberria plaza
Alaberga	Alaberga plaza
Alzate	Alzate plaza
Beraun	Pablo Sorozabal plaza
Erdialdea	Foruen plaza

Fanderia	Dolores Ibarruri zumardia
Gabierrota	Evaristo Bozas plaza
Galtzaraborda	Urdaburu plaza
Gaztaño	Gaztaño plaza
Iztietia	Diputazio plaza
Kaputxinoak	Fuentepelayo plaza
Lartzabal	Larzabal plaza
Olibet-Etxe berriak	Gernika plaza
Pontika	Jose Miguel Barandiarán parkea
Gamongoa/Loidi	Gamongoa plaza

Modu gehigarrian, auzoak eta horiei dazgokien “Auzo bihotzak” lotuko dituzten lau ardatz planteatzen dira, Alaberga, Kaputxinoak eta Beraunera iristeko desnibelak gaindituko dituzten ibilbide eta elementu mekanikoen sare osagarri baten bidez. Edo Fanderia eta Agustinak auzoen arteko konexioa.

1. Hala, Oiartzun ibaiaren ezker aldean dagoen Gamon etorbidea, Herriko plazan eta Magdalena eta María Lezo kaleetan barrena, Jose Miguel Barandiaran parkearekin lotzen duen ardatzari jarraipena ematea proposatzen da eta, gainera, saihebidetako zubibidearen hegoaldean kokatutako Gamongoa/Loidi auzo berrira zabaltzea aurreikusten da. Horrela, Olibet-Etxe Berriak, Erdialdea, Pontika eta Gamongoa/Loidi auzoak lotzen dituen oinezkoentzako lehen ardatza lortuko da, iparraldetik hegoalderako norabidean.
2. Ildo berean, funtsezko esku-hartzea planteatzen da Erreterriako hirigunea eraldatzeko. Ekintza hori trenbide-sektorearen ikuspegitik kontuan hartuta dago, eta Gaztañoko trenbide-pasagunea eta hiriguneko trenbide-hesia kentzea du xede. Horretarako, trenbidearen trazadura lurperatzea aurreikusten da, eta Aurrerakin honetan planteatzen da lurperatze hori ikuspegi sektorialetik hasieran aurreikusitakoa baino gehiago luzatzea Fanderiarantz, oinezkoentzako mendebaldetik ekialderako ardatz bat egiteko eta egungo geltokiaren kotan plaza bat antolatzeke, Gaztaño auzoa Erreterriako hirigunean integrazteko aukera emanaz. Oinezkoentzako ardatz horrek jarraipena izango luke mendebalderantz Galtzarabordaraino eta ekialderantz Gaztaño, Agustinak, Fanderia eta Lartzabal aldera, auzo horiek lotuz.
3. Bi ardatz perpendikular horiei ardatz bikoitza gehitu zaie, ekialde-mendebalde ardatz gisa. Ardatz horiek oinezkoentzako bi ibilbide jarraitu dituzte, hobetzearen kalterik gabe.
4. Horrez gain, Altxatetik batez ere ipar-hego norabidekoa den ardatz bat antolatzea proposatzen da, Iztietatik auzo berrira iristeko proiektatu den pasabide berrian jarraituz, Irun kalean eta Bittor Idiazabal kalean barrena Galtzarabordako geltokiraino.

Espazio libreen sistema horiek Aurrerakinean lehendik dagoen eta aurreikusten den hiri-parkeen sarearekin osatzen dira, eraztun berde bat osatuz hirigunearen inguruan. Eraztun horrek ibilbide zirkular gehigarria eskaintzen du haren inguruan eta, era berean, lurzoru urbanizaezin orokorarekin, Lau Haizetako hiriarteko parkearekin eta, bereziki, Aiako Harria Parke Naturalarekin lotuta dago.

Hala, espazio libreen sarea hiriguneko eraztun berde gisa diseinatu da, iparraldetik Oiartzun ibaiaren bi ertzetik pasealekuek eratzen dutena eta, eraztuna osatuz, Fanderia, Markola, Arramendi, Palaziozorra, Gamongoa, Esnabide eta Kaputxinoetako parkeak. Guztira, 50 hektareatik gorako azalera osatzen dute. Berdegune horiek hiri-bilbean sartzea eta “Auzo Bihotzak” deituriko gunek lotzea proposatzen da.

Horretarako, honako ekintza hauek proposatu dira Aurrerakinean:

- Beraundik Gamongoa parkerako irisgarritasuna hobetzea. Alaberga eta Galtzarabordaren artean pasabide bat sortzea, edo Arramendi eta Palaziozarra arteko jarraitasuna berreskuratzea, horretarako, besteak beste, bi parkeak lotuko dituen pasabide bat prestatuz.

Gainera, udalerriko landa-ingurunean Listorretako aisia-eremua eta Lau Haizetako parkea finkatzea proposatzen da, San Markos eta Txoritokietako gotorlekuak eta inguruneak protagonista direla.

2.3.1.5 Irisgarritasun- eta mugikortasun-proposamenak

Aurrerakinak mugikortasun ez-motorduna nahiz motorduna bermatzeko behar diren erantzun guztiak jasotzen ditu, bai eta oinezkoentzako lekua berreskuratzearen ondoriozko aparkaleku-zuzkidura egokia ere, eta gaiari osotasunean heltzen dio.

Irisgarritasun unibertsalari dagokionez, HAPOk udalerriko Irisgarritasun Planak ezarritako jardueraildoan jarraitu nahi du. Hori dela eta, irtenbide batzuk planteatzen ditu, eta horien helburua da azaleko urbanizazio-obrak egitea (oinezkoentzako sarea hobetzeko proiektuak egitea, batez ere, oinezkoentzako eremu partzialak prestatzea, espaloiak zabaltzea, belarriak jartzea eta galtzadan pasabide goratuak jartzea, gurutzatzeak errazteko) eta igogailu publikoak edo pasabideak ezartzea.

Aurreko epigrafean adierazitako oinezkoentzako ardatzen antolamendutik eratorritako oinezkoentzako eremuak antolatzeo jarduketuz gain eta, beste batzuen artean, honako proposamen hauek egin dira:

- Igogailu publiko berria eta pasabidea Altzaten (Pasaiako badiako ibilbidea).
- Igogailu publiko berria Altzaten (Lezorekiko muga).
- Igogailu publiko berria Pontika eta Igantzi artean.
- Igogailu publiko berria Jose Miguel Baradiaran parkearen eta Arramendiren artean.
- Igogailu publiko berria Gaztañon.
- Pasabidea Oiartzun ibaiaren gainean Alzate eta Iztieta artean.
- Pasabidea Alaberga eta Galtzaraborda artean, parkearen gainean.
- Pasabidea Arramendiko parkearen eta Palazio-zaharraren artean, saihebiderearen gainean.

Halaber, HAPOk oinezkoentzako bideen jarraitutasuna hobetzeko eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak hobetzeko aukerak baloratuko ditu, besteak beste, hirigunearen hegoaldean dauden jarduera ekonomikoetarako eremuekiko eta Zamalbide eta Tolare inguruko bizitegiekiko loturan.

Bestalde, Aurrerakinean jasota daude Oinezko eta Txirrindularien Mugikortasun Planean (OTMP) oinezkoentzako lehentasunezko sare bat sortzeko aurreikusitako udal-jarraibideak eta -ekintzak. Horretarako, honako proposamen hauek jaso dira:

- Abiadura moteltzea eta zirkulazioa lasaitzea: Alaberga Auzoa kalea, Sorgintzulo kalea, Beraun kalea.
- Oinezkoentzako eremua berreskuratzea (kalearen azaleraren % 60 oinezkoentzat): Sorgintzulo kalea, Galtzaraborda kalea, San Marko kalea, lehen aipaturiko ardatzez gain.
- Oinezkoa ahalduntzea eta lehentasuna nabarmentzeko neurriak: Sorgintzulo kalea, Urbasa kalea - Aralar plaza, Andoni Korta kalea - Aralar plaza, lehen aipaturiko ardatzez gain.
- Lehentasunezko sareko ibilbideen kalitatea (zuhaitzak, landareak, altzariak...): Aiako Harria kalea, Maurice Ravel kalea, Pontika kalea, lehen aipaturiko ardatzez gain.

- Ibilbideei buruz informatzeko seinaleak.

Gainera, OTMPk Errenteriako bizikleta-sareari buruz egiten dituen proposamenak HAPOn sartzeari proposatzen da. Gaur egun 11,8 km-ko luzera du, eta 25,1 km-ra iristea proposatzen da. Hala, bizikleta-sarea Irun kalean, trenbidearen etorbide berrian, Galtzaraborda-Alaberga parkean eta Gaztaño pasealekuan barrena igarotzea proposatzen da. Halaber, sare horrek Lezo, Pasaia eta Oiartzunerako sarbidea ematen duen eskualdeko sarearekin jarraipena izatea proposatzen da, eta sare horretan sartzeari Pasaia badi osorako proiektatutako ibilbidearen proposamena, Errenteriako hirigunea Kaputxinoak eremuan eta Alzate eremuan barrena zeharkatzen duena. Horrez gain, sare hori udalerriko nahiz inguruko jarduera ekonomikoetarako eremuekin lotzea proposatzen da.

Aurrerakinean bizikletentzako aparkalekuak modu esanguratsuan handitzea proposatzen da, modu homogeneoan zabalduz auzo guztietara.

Garraio publikoari dagokionez, Aurrerakinean proposatzen den jarduketa estrategikoena ETSren trenbidearen trazadura lurperatzea da hiriguneko zatian, oinezkoentzako hiribide bihurtzeko. Eskuhartze horretan, gainera, ETSren lehengo kotxerak ordeztzea planteatzen da, dagoeneko Irungo Arasora eramanda daudenak.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriari dagokionez, trenbide-sektorearen ikuspegitik egiten den proposamena ere jasotzen da Aurrerakinean. Horren arabera, batetik, ADIFek Donostia-Irun korridorean gaur egun duen trazaduran “hirugarren hari” bat ezartzea aurreikusten da, nazioarteko zabalera ezartzeko xedez eta, bestetik, salgaientzako saihebidetako bat antolatzea, Astigarraga-Lezo-Oiartzun trenbide-tarterako azterketa baten xede izan dena. 3 alternatiba planteatzen dira; trazaduretako bat lur azpitik igarotzen da udalerrira osoan; beste biak, berriz, puntualki bakarrik azaleratzen dira.

Ez da ekintza garrantzitsurik aurreikusten udalerrirako irisgarritasun-sistema honi dagokionez. Hala, Aurrerakin honetan baztertu egin dira, a priori, LPPk Pontikan GI-20 errepidetik hirigunera sartzeko aurreikusten duen proposamena, eta indarrean dagoen hirigintza-plangintzan Zabaldea eta Tolare hiriguneetarako eta Zentolengo hilerrirako planteatutako saihebidetako proposamenak.


Mugikortasun motordun pribatuari dagokionez, zirkulazioko eraztun bikoitza eratzea proposatzen da, lehendik dauden kaleak erabiliz, horiek birmoldatzearen, zirkulazioaren noranzkoa aldatzearen, galtzadaren zeharkako sekzioa murriztearen edo behar diren beste jarduketa batzuen kalterik gabe.

Hainbat aparkaleku-eraikin antolatzea proposatzen da, lurpean nahiz garaieran, bizilagunen (baita aldirietan ere) nahiz bisitarien (txandakako aparkalekuak) ibilgailuak gordetzeko. Proposamen horiek planteatzen dira bai hirigunera sartzeko lotuneetatik hurbil eta bai eskari handiena nabaritu den tokietan. Hala, beste kokaleku batzuen kalterik gabe, a priori kokaleku berri hauek planteatzen dira aparkalekuak ezartzeko:

- Pontika.
- Esnabide (San Markos kalea).
- Askatasunaren Martiriak.
- Lino aparkalekua handitzea, Gamon zumardiaren azpian.
- ETSren lehengo kotxerak.

- Tomas López.

Aipatutako neurri edo jarduketa guztiak modu integratuan planteatzen dira, intermodalitatea bultzatzeko moduan. Hala, trenbide-geltokiak, aldirietako eta/edo txandakako aparkalekuak, eta baita igogailu publikoak ere, ereduko leku berezi gisa eratzten dira. Horiei autobus-geralekuak gehituko zaizkie, prozesuaren ondorioz hartuko diren konponbideen arabera egokituko direnak.



6. irudia. Espazio libreen proposamena Errenteriako hiri-ingurunean. Iturria: Errenteriako HAPOn Aurrerakina.

2.3.1.6 Zerbitzu-azpiegiturak

Udalerriko energia elektrikoaren autohornikuntza-tasa hobetzeko asmoz, energia-komunitateak sortzeko aukera aztertu da.

Horretarako, Aurrerakinean, eguzki-energia fotovoltaikoaren parke bat ezartzeko aukera emango luketen udalerriko hainbat kokaleku aipatzen dira: San Markosko zabortege zaharrari dagokion lurzorua, beste erabilera batzuk hartu baino lehen egoera monitorizatu behar den denboran; Gamongoa Txirrita-Maleoren ondoko lurzorua; Egiluze eremua edo Arramendi eta Palaziozorra parkeak, beste batzuen artean.

2.3.1.7 Ondarea babestea

HAPO berriak, behin betiko bertsio osoan, dagokion Katalogoa egin beharko du. Horretarako, alde batetik, indarreko Plan Orokorreko Katalogoko irizpideak eta zehaztapenak eta, bestetik, dagokion eskumen sektorialak emandako dokumentazioa kontuan hartzea proposatzen da.

Arlo horretan dagoen informazioa egokia eta nahikoa dela uste da, prozesuaren jarraipenean, gai horretan zehazten diren irizpideetan oinarrituta, elementu berriak sartzen edo beste batzuk baztertzen sakontzearen kalterik gabe, zenbait kasutan desagertu egin delako, besterik gabe.

Egin beharreko katalogoak, gainera, hirigintza-arau batzuk izango ditu, Kultura Ondareari buruzko Lege berria (2019) xedatutakora egokituko direnak.

2.3.2 Landa Ingurunearen antolamendua

Aurrerakinean, lurzoru urbanizaezinaren zonakatze orokorrerako proposamen bat aurreratu da, Planaren hurrengo faseetan zehaztuko dena. Proposatutako zonetako erabilereen erregulazioari buruzko eztabaidaren ondorioetarako, LAGetan eta Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean xedatutakotik abiatuko da. Hala ere, udalak hori doitzeko eskumena du.

Errenteriako lurzoru urbanizaezinaren zonakatze orokorrerako proposatzen diren kategoriak honako hauek dira:

- **Nekazaritza eta abeltzaintza:** nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuak identifikatzen dira, eta Trantsizioko landa-paisaiak eta Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-eremu gisa identifikatzen diren nekazaritza-balio handieneko eremuak bereziko ditu; Nekazaritza eta Basogintzako LAParen kartografian oinarritzen da horien identifikazioa, HAPOn berezko lan-eskalaren ondoriozko doikuntzekin.
- **Ingurumen-hobekuntza:** betelan- edo isurketa-prozesuak jasan dituzten edo harrobiak izan diren eta lehengoratu behar diren lurzoru eraldatuak sartzen dira kategoria honetan. Aurrerakinean, bereziki, San Markosko zabortegearen alde degradatua, Txoritokietako hegoaldeko hegalaren inguruan dauden harrobia eta materialak botatzeko eremua eta Aldura inguruan dagoen betelana identifikatzen dira, zonifikatze-mota hori beste leku batzuetara zabaltzearen kalterik gabe.

- Babes bereziko eremuak: Babes Bereziko Baso-eremuei eta horien indargetze-eremuei dagozkienak dira, eta udalerriko natura-ondarearen eta biodibertsitatearen estrategian definituta daude. Estrategiaren Babeseko Baso-eremu horietan, kontserbaziorako tamaina eta garrantzi handiena duten basoak definitzen dira, euren egitura eta lotura-funtzioa kontuan hartuta.
- Baso-eremuak: Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean definitutako baso-jardueretara bideratutako baso-eremuak identifikatzen dira, haren zehaztapenetatik abiatuta, HAPOn berezko lan-eskalaren ondoriozko doikuntzekin eta lehen aipatutako babes bereziko baso-eremuak alde batera utzita.
- Azaleko uren babesak: ibai eta erreken ibilguak eta ertzak identifikatzen dira. Kostaldeei buruzko Legean, Urei buruzko Legean eta EAeko Ibai eta Erreken ertzak antolatzeke LAPean xedatutakoaren arabera jokatu da. Horien arabera, 00 mailako ibilguetarako (arropa < 1 km²), babesak 5 metrokoa izan behar du ibilguaren bi ertzetan; 0 mailako ibilguetarako (1 eta 10 km² arteko arropa), berriz, LAPean ezarritako atzerapenak 15 metrora jarri behar dira.
- Sistema orokorrak (SO): kategoria honetan sartzen dira lurzoru urbanizaezineko garraio-azpiegituretara eta lurzoru urbanizaezineko zerbitzu-azpiegituretara bideratutako lurzoruak.
- Kudeaketa-planek araututako naturaguneak: udal-mugartearen azaleraren zati handi bat babes bereziko lurraldeek hartzen dute, eta babes berezia dute kudeaketa-planen bidez araututako naturaguneak direlako. Egoera horretan sartzen dira Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremua eta Parke Naturala; bi espazio horiek, azaleraren zati handi batean gainjartzen badira ere, ez datoz bat mugaren zehaztapenean; beraz, oraingoz, lurralde horri dagokionez onartutako dokumentuen artean desadostasunak daudenez, HAPO berriak espazio bakoitza bere mugarekin eta araudi espezifikoarekin jasoko ditu. Parke Naturalean sartu nahi den Añarbeko baso-erreserbaren mugapena eta araudia ere zehaztu beharko dira.
- Intereseko beste eremu batzuk:
 - Lau Haizeta parkea: Aurrerakinean, zonakatzeko orokorraren proposamenak Lau Haizeta parkea ere hartzen du. HAPOn zehaztapenean, komeni da bereiztea landa-espazio libreen sistema orokorrean sartzen diren lurzoruak eta, beste erabilera nagusi batera, esaterako, nekazaritzara eta abeltzaintzara edo beste mota bateko erabilerara bideratzeagatik, parketik kanpo utz daitezkeen lurzoruak.
 - Aiako Harria-Lau Haizeta korridorea: Aurrerakinaren proposamenak Lau Haizeta parkea Aiako Harria Parke Naturalarekin lotzeko korridore bat antolatzea ere aurreikusten du. Ekimen hori berresten bada eremu gisa ere eratu ahal izango da.

Modu osagarrian, lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan kontuan hartu beharreko baldintzatzaile gainjarriak ere identifikatzen ditu Aurrerakinak. Horrela mugatutako lurzoruetan, kasuan kasuko eremua aplikatzeko zehaztapenak beteko dira eta, gainera, dagokion baldintzatzaile gainjarritik ateratzen direnak.

Zehazki, baldintzatzaile gainjarri gisa sartuko dira balio natural garrantzitsuak dituzten eremuak:

- Paisaia ikuspegitik interesa duten eremuak: Udalerriko Biodibertsitate Estrategian sartutako eremuak dira, paisaia-balioak dituztelako: Zaria, Urdaburu, Txoritokieta, San Marcos, Igoi Akola, Añarbe, Aldura eta Aizpitarte.
- Onura Publikoko Mendiak (OPM): Bat datoz Añarbe mendiarekin [OPM 2.067.1], eta gehitu berria da Antxulo ingurunea.
- Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroa: Erreterian, hartuneak eta horien babes-eremuak sartzen dira, hain zuzen ere, Lardabaso, Aitzpitarte eta Añarbe kobak. Halaber, Oiartzungo estuarioa ere eremu sentikor gisa sartu da.
- Intereseko fauna babesteko eremuak: baldintzatzaile honetan bisoi europarrarentzako, muturluze piriniarrarentzako, espezie nekrofagoentzako eta kolakarentzako interes bereziko eremuak biltzen dira.
- Intereseko landaredia: Batasunaren intereseko habitatak eta flora interesgarria dagoela dakigun eremuak sartzen dira.
- Intereseko beste naturagune batzuk: baldintzatzaile honetan sartu dira Añarbeko urtegia eta udalerrian dauden hezeguneak, Pagosarde, Malmazar, San Marko, Igantzizabal eta Kutarrokoak aipatuz.

Baldintzatzaile gainjarri gisa hartuko dira, halaber, ingurumen-arriskuak izan ditzaketen eremuak ere.

- Kutsatuta egon litezkeen lurzorua: IHOBEn inbentario eguneratua sartutako lurzorua.
- Uholde-arriskua duten eremuak: lehentasunezko fluxuko eremuei eta 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiko uholde-arriskuko eremuei dagokie, URA erakundearen informazioaren arabera.
- Higadura-arriskua duten eremuak: Nekazaritza eta Basogintzako LAPek higa ditzakeen eremuak eta % 50etik gorako maldak dituzten eremuak identifikatzen ditu.

HAPO berriak, behin betiko formulazioan, udalerriko dagokion zonifikatze akustikoa ezarriko du modu osagarrian.

O.14 Lurzoru Urbanizaezinaren Antolamenduko planoan lurzoru urbanizaezinaren zonakatzerako proposamena jaso da eta **C.1 Baldintzatzaile gainjarriak I** eta **C.2 Baldintzatzaile gainjarriak II** planoetan Lurzoru Urbanizaezinaren antolamenduaren baldintzatzaile gainjarriak jaso dira.

2.4 AURREIKUS DATEKEEN PLANAREN GARAPENA

HAPOn berrikuspenean planteatutako garapen-eremu eta -sektore gehienak dagozkien antolamendu xehatuko planen eta ondorengo urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuen bidez garatuko dira.

Garapen txikiagoak dituzten esparruetarako, HAPOk antolamendu xehakaturik jasoko du eta, beraz, zuzenean garatuko dira proiektuen bidez.

Ondorengo taulan jarduera-eremu bakoitzaren kasua jasoko da:

4. taula. HAPOn berria jarduketaren xede den esparru eta sektore bakoitzean aurreikus daitekeen garapena.

Eremuak eta sektoreak	Antolamendu xehatua HAPOn zehaztuko da.	Garapen-tresna		Oharrak
		Antolamendu xehatuko planak	Egikaritze-proiektuak	
Altzate	EZ	– Plan Bereziaren aldaketa	– Urbanizazio-proiektua – Eraikuntza-proiektua.	Izapidetzen (Hasierako onespina). IEE arrunta hasi da, eta irismeneko dokumentua du.
Esnabide	EZ	– Xehetasun Azterketa (Behin betiko onespina 2020ko uztailaren 20an)	Gaur egun egikaritzen. – Urbanizazio-proiektua – Eraikuntza-proiektua.	Antolamendu xehakaturik definituta dago onetsitako xehetasun azterketan, eta gaur egun eremua egikaritzen ari da.
Gamongoa	EZ	– HAPOn aldaketa	– Urbanizazio-proiektua – Eraikuntza-proiektua.	Izapidetzen (Hasierako onespina). IEE arrunta hasi da, eta irismeneko dokumentua du.
Loidi	Erabaki gabe	– Plan berezia, antolamendu xehatua HAPOn sartzen ez bada.	– Urbanizazio-proiektua (erabaki gabe) – Eraikuntza-proiektua.	Oraindik ez dago erabakita eremuaren antolamendu xehatua HAPOn edo PBan definituko den. Ez eta urbanizazio-proiektua beharko den ere.
Agustinak	Bai		– Eraikuntza-proiektua.	
Tolare Berri	Bai		– Eraikuntza-proiektua.	Antolamendu xehatua HAPOn zehaztuko da, 2. edo 3. alternatibak aukeratzeko ez badira behintzat. Kasu horretan, PP baten bidez garatuko da. Salbuespen berarekin, <i>a priori</i> , ez da urbanizazio-proiekturik beharko.
Zamalbide Berri				Aukeratutako alternatibaren, <i>a priori</i> , garapenik ez egitea erabaki da. Beste alternatiba bat garatuz gero, PP eta urbanizazio-proiektua beharko dira.
Basanoaga	Bai		– Eraikuntza-proiektua.	
Gaztaño	Bai		– Urbanizazio-proiektua – Eraikuntza-proiektua.	
Galtzaraborda	Bai		– Urbanizazio-proiektua – Eraikuntza-proiektua.	
Txirrita-Maleo eraikigarritasuna handitzea	Bai		– Eraikuntza-proiektua.	
Egiburu	Bai		– Urbanizazio-proiektua – Eraikuntza-proiektua.	

Egiluze	Bai		<ul style="list-style-type: none"> - Urbanizazio-proiektua - Eraikuntza-proiektua. 	
Intzinate	EZ	- Plan Partziala	<ul style="list-style-type: none"> - Urbanizazio-proiektua - Eraikuntza-proiektua. 	
Perutxene/Larretxipi	EZ	- Plan Partziala	<ul style="list-style-type: none"> - Urbanizazio-proiektua - Eraikuntza-proiektua. 	
Morrontxo	EZ	- Plan Partziala	<ul style="list-style-type: none"> - Urbanizazio-proiektua - Eraikuntza-proiektua. 	
Tolarieta	EZ	- Plan Partziala	<ul style="list-style-type: none"> - Urbanizazio-proiektua - Eraikuntza-proiektua. 	

2.5 BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN AZTERKETA

2.5.1 Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartutakoak, gainerako hirigintza-dokumentuak dokumentatzeko eta idazteko erreferentzia-esparrua dira, EAeko oinarritzko jarduketa-irizpideak ezartzen baitituzte lurralde-antolamenduari dagokionez. Halaber, lotesleak dira maila baxuagoko planeamendu-elementu guztientzat.

Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez, behin betiko onartuta geratu da LAGen berrikuspena. Berrikuspenak 1997ko lurralde-ereduaren oinarriak eguneratu eta osatzen ditu, irizpide hauek bereziki kontuan hartuta: hiri-berroneratzea, lurzorua baliabide mugatu gisa balioestea, klima-aldaketa, mugikortasun jasangarria, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemen zerbitzuak, baliabideen kudeaketa jasangarria, genero-ikuspegia, osasuna, irisgarritasuna, euskara, immigrazioa, parte-hartzea eta gobernantza ona, beste batzuen artean.

Antolamendu Kategoriek osatzen dute LAGen Lurralde Ereduaren proposamena ingurune fisikorako. Lurralde-zonakatze bat osatzen dute harrera-ahalmenaren arabera zehaztutako sektore homogeneotan, eta horietako bakoitzari berariazko erabileren erregulazioa aplikatzen zaio (ingurune fisikoa antolatzeko matrizea). Honako hauek dira:

- Babes Berezia
- Ingurumenaren hobekuntza
- Basoak
- Nekazaritza-abeltzaintza eta landazabala
- Mendiko larreak
- Azaleko Uren Babesa

LAGen arabera, *“garapen-plangintzak: Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, (...), Lurzoru Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzorurako LAGetan ezarritako antolamendu-kategorien izenak eta irizpideak erabiliko dituen kalifikazioa ezarriko du, eta azpikategoria gehigarriak sartu ahal izango dira azterketa-eremuaren berezitasunen arabera”*. Eta horri gaineratu diote garapen-plangintzak *“erabilera eta jardueren erregulazio zehatzagoa ezarri ahal izango duela antolamendu-kategoria bakoitzean, betiere kontuan hartuz LAG hauetan oro har araututakoa eta dagokion lurralde-eremuko baldintza partikularrak”*.

Gainera, Antolamendu Kategoriekin batera, baldintzatzaile gainjarri batzuk definitzen dira. Baldintzatzaile gainjarriek mugatu edo baldintzatu egiten dute ingurune fisikoaren antolamendu kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera araubidea.

Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzkoak honako hauek dira:

- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Arrisku geologikoak.
- Uholde-arriskua duten eremuak.

- Klima aldaketari lotutako arriskuak.

Azpiegitura berdekoak:

- Ingurumen-balioengatik babestutako guneak eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserba.
- Korridore ekologikoak eta funtzio anitzeko interes naturaleko beste gune batzuk.

Udal Plangintzaren arabera, LAGek zehaztaperen lotesle hauek ezartzen dituzte ingurune fisikoan zuzenean aplikatzeko:

- Hiri-plangintzak, lurzoru urbanizaezinaren erregulazioan, kategoria eta baldintzatzaile gainjarrien mugapena eta lurralde-plangintzan ezarritako erabilera-erregimena doitu, eta kategoria, baldintzatzaile eta erabilera-erregimen horiek doitu ahal izango ditu, udalerrri bakoitzaren berezko baldintzetara eta lan-eskalara egokitzeko. Nolanahi ere, aipaturiko kategorien eta erabilera-erregimenaren azken mugapena hirigintza-plangintzaren berezko zeregina da.
- LAGetan adierazitako antolamendu-kategoriez gain, hiri-plangintzak sistema orokorrak eta udalerrrian ezar daitezkeen landa-guneak kalifikatuko ditu, EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen esparruan araututakoaren arabera.

Azpiegitura berdeari eta ekosistema-zerbitzuei dagokienez, hirigintza-plangintzak honako irizpide hauek bete beharko ditu:

- Tokiko azpiegitura berdea sartzea Eremu Funtzionalekoarekin eta EAekoarekin lotuta.
- Tokiko azpiegitura berdearen zatitza hartzea espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak eta, aukera gisa, espazio libre eta berdeguneen tokiko sistemak, honako helburu hauek aplikatuz:
 - Berdeguneetako espazioen jarraitutasuna.
 - Balio ekologikoa babestea eta ekosistema-zerbitzuak indartzea, bizi-kalitatea hobetzeko eta natura pertsonengana hurbiltzeko aukera ematen duten elementu ekologikoz hornituz. Bereziki klima-aldaketari erreparatuz, eraikitako hiriko espazio libreen iragazkortasuna sustatuko da.
- Bere ingurumen-balioengatik, korridore ekologikoengatik edo bere lurraldeari eragiten dioten funtzio anitzeko beste espazio batzuen funtzioengatik babestutako eremu bakoitza mugatzea erregulazio egokia ezarri.

Gainera, LAGek beste zehaztaperen batzuk ere ezartzen dituzte, Lurralde Plan Partzialak eta Sektorialak idazteko erreferentzia direnak. Alde horretatik, 5. artikuluan Eremu Funtzionalak (EF) EAeren eta udalerrien tarteko planifikazio-eskala gisa mugatzen dira. Errenteria, Gipuzkoako beste 12 udalerrirekin batera, Donostialdea-Bidasoa Behereko Eremu Funtzionalean dago.

LAGek hiri-berroneratzearen, hiri-hazkunderen, ekonomia-jardueretarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren eta bizitegi-kuantifikazioaren arloko irizpideak ere ezartzen dituzte, besteak beste. Horien bidez, helburuak, oro har, honako hauek izango dira: hiri-berroneratzea lehenestea, espazio urbanizatuak trinkotzea eta espazio degradatuak edo gutxiegi erabilitakoak birziklatzea, lurzoru-okupazio berrien alternatiba gisa, etxebizitza-eskaria, ekonomia-jardura eta

zuzkidurak asetzeko edo desorekak konpontzeko xedez. Hain zuzen ere, LAGen arabera, Erreneriako bizitegi-eskaintza berria 1.922 unitatekoa da.

Aipatutako zehaztapen, irizpide eta orientabide orokorrez gain, LAGek ez dute beste jarraibide espezifikorik proposatzen Erreneriako udalerrirako.

2.5.2 Donostialdea-Bidasoa Beherea eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala

Donostialdea-Bidasoa Beheko Lurralde Plan Partzialak (LPP), 2016ko uztailaren 27an behin betiko onartutakoak¹, Lurralde Antolamenduaren Eredu bat ezartzen du, hain zuzen ere, eremu funtzionaleko lurralde osoko ingurune fisikoaren erregulazioari, garraio- eta komunikazio-sarearen antolamenduari, izaera estrategikoko hirigintza-eremu batzuen konfigurazioari eta bizitegi-garapen eta ekonomia-jarduerako garapen berrien banaketa haztatuari buruzko antolamendu-proposamen nagusien laburpenak eratua. Eredua, beraz, Natura Inguruneari, Landa Lurrari, Mugikortasun Ereduari, Garraio eta Komunikazio Sareari, Azpiegitura eta Zerbitzu Sareari eta Hiri Kokalekuen Sareari buruzko ondorio proposatzaile nagusien gainjartze gisa eratu da.

Halaber, LPPk, *Donostia-Bidasoa Behereko Eremu Funtzionaleko (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialaren paisaiaren zehaztapenei buruzko aldaketa behin betiko onetsi zuen irailaren 22ko 154/2020 Dekretuaren bidez*, gomendio-izaerako xedapenak jasotzen ditu, Donostialdea-Bidasoa Beherea Eremu Funtzionalaren (Donostia-Bidasoa Beherea) Paisaiaren Kalitateko Helburuak (PKH) garatzea xede dutenak Donostiako Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan oinarrituta. Dekretuak paisaiari buruz ezarritako xedapenak ***¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.*** Paisaia atalean daude jasota.

Jarraian, LPPk Erreneriako udalerrirako zehaztutako alderdiak azalduko dira:

Ingurune fisikoaren antolamendua

Espazio-unitate handien lau kategoria definitzen dira, Ingurune Fisikoaren Antolamendu Orokorrari buruzko LPPeko 2. planoan mugatuta geratzen direnak, natura-ingurunearen eta landa-habitataren nagusitasun gisa:


a) Ingurune fisikoaren lurralde-antolamendu orokorrerako oinarritzko zonakatzeko-proposamena:

1. Natura- eta/edo baso-babes bereziko lurzorua: LAGetako Babes berezia, Ingurumen hobekuntza eta/edo Baso hobekuntza kategoriei dagokie.
2. Landa-habitata eta/edo hiri-inguruko eremu berdeak finkatzeko babes bereziko lurzorua: LAGetako Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala eremua kategoriakoa da.
3. Ibai-korridoreak: azaleko uren babeseko LAGen kategoriari dagozkio.
4. Hiri-inguruko landa-lurra. Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabalaren eremuaren eta Balio Estrategiko Handiko eremuaren zati bat da, egungo hiri-garapenaren inguruko eremuan dagoena. Udal-plangintzan zehaztuko da landa-habitat finkatu gisa kalifikatzeko edo hirigintza-hedapen berriko eremuei atxikitzeko aukera hautatuko den erabakiko da.

¹ 121/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partziala (LPP) behin betiko onesten duena. 153. zenbakiko EHAAn argitaratu zen 2016ko abuztuaren 12an.

b) Ingurune fisikoaren lurraldearen antolamendu orokorrerako antolamendu osagarriaren eta gainjarriaren proposamenak:

1. Hiriarteko landa-parkeak: Lau Haizetako hiriarteko landa-parkea (Ametzagaña – San Markos – Txoritokieta -Perurena)
2. Hiri-inguruko landa-parkeak: Listorreta-Landarbaso hiri-inguruneko landa-parkea
3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-eremu estrategikoak: 12 Frantzilla



SUELO DE ESPECIAL PROTECCIÓN NATURALÍSTICA Y/O FORESTAL



SUELO DE ESPECIAL PROTECCIÓN PARA LA CONSOLIDACIÓN DEL HÁBITAT RURAL Y/O ÁMBITOS PERIURBANOS VERDES



CORREDORES FLUVIALES



SUELO RURAL PERIURBANO



PARQUES RURALES INTERURBANOS



PARQUES RURALES PERIURBANOS



ÁREAS AGROPECUARIAS ESTRATÉGICAS


7. irudia. Errenteria udalerriko ingurune fisikoaren sailkapena. Iturria: Ingurune Fisikoaren Antolamendu Orokorreko 2. Planoa. Donostialdea – Bidasoa Beherea LPP.

Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

LPPk garraio-eredu alternatibo bat proposatzen du, oinezkoentzako eta txirrindularientzako hiriarteko ibilbideen sarea ezarriz. Oinarrizko sare horretan sartzen dira Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen Lurraldearen Arloko Planean arlo funtzionalerako planteatutako proposamen guztiak, besteak beste, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide berriak egiteko proposamenen bat, hala nola Errenteria-Pasaia eta Errenteria-Donostia hiriguneak Zamalbide eta San Markos auzoen bidez lotzea. Gainera, Zamalbide auzotik Astigarraga eta Oiartzun lotzen dituen GI-2132 errepiderainoko adar bat proposatzen da.

Halaber, Errenteria Lezo udalerriarekin lotzea proposatzen du, Kaputxinoak auzotik, GI-636 errepidearen eta portu-plataformen arteko trazadurari jarraituz, Lezoko hirigunean GI-3440 errepidearekin bat egin arte.

Halaber, Errenteriako Fanderia eta Lartzabal auzoen arteko lotura egitea aurreikusten da; horrela, batetik, hiri-barruko mugikortasuna hobetuko da eta, bestetik, lurralde-eskalako beste ibilbide batzuekiko lotura, inguruko Errenteria, Oiartzun eta Irun udalerrien arteko fluxua erraztuz.



BIZIKLETA BIDEEN LAP

PTS DE VÍAS CICLISTAS

- BURUTUTAKO TARTEAK.
TRAMOS EJECUTADOS.
- - - BURUTUGABEKO EDO IKERKETEN ZAIN DAUDEN TARTEAK.
TRAMOS NO EJECUTADOS O PENDIENTES DE ESTUDIO ALTERNATIVO.

DONOSTIALDEA LZP

PTP DONOSTIALDEA


- OINEZKOEN ETA BIZIKLETA BIDEEN SAREKO PROPOSAMEN BERRIAK.
NUEVAS PROPUESTAS RED PEATONAL Y CICLISTA.

Figura 1. 8. irudia. Oinezkoen eta txirrindularien sarea Errenteriako udalerrian eta inguruan. Iturria: 3.1 plano. Oinezkoentzako eta txirrindularientzako sarea. Donostialdea-Bidasoa Beherea LAP.

Bide-sareari dagokionez, LPPk Arramendi pasealekuan (Gamongoa) bide-lotura bat antolatzeko aukera azaltzen du GI-20 autobidetik hirigunera iristeko sargune gisa, jakineko soluziorik ematen ez duen arren.


Trenbide-sareari dagokionez, LPPk bere egiten ditu EAeko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren proposamenak. ADIFen trenbide-sare berriak, AHTren (Abiadura Handiko Trena) enbor nagusiak, Erreterria udalerrria Astigarraga eta Oarsoaldea arteko tartean zeharkatuko duela aurreikusten da, Donostialdeko erdigunera, merkantziak eta, hala badagokio, bidaiariak garraiatzeko.





Bestalde, ETSren (Euskal Trenbideen Sarea) egungo sarean, Galtzarabordako eta Erreterriako geltokien artean, biak Erreterriako hiriguneari, trazadura aldatzea proposatzen da.



9. irudia. Etorkizuneko trenbide-sarea Erreterriako udalerrian eta inguruan. Iturria: 3. Planoa. 3.2 Trenbide-sarea etorkizunerako aurreikuspenen arabera..

Hiri-ingurunearen antolamendua



-  AGRUPACIONES URBANAS Y PERIURBANO
-  AGRUPACIONES URBANAS
-  SUELO RURAL PERIURBANO
-  CORREDORES FLUVIALES URBANOS

10. irudia. Errenteriako hiri-ingurunearen antolamendu orokorra. Iturria: 5. Planoa. Hiri-ingurunearen antolamendu orokorra. Donostialdea- Bidasoa Beherea LPP.

LPPk hiri-ingurunearen antolamendu orokorrari buruzko proposamenak ditu, hirigintza-okupazioa izan dezaketen lurzoruak globalki mugatzen dituena eta, horien barruan, hainbat esparru espezifiko definitzen dituena:

1.- Hiriko eta hiri-inguruko multzoak: udalez gaindiko eremuak, hiri-jarraitutasuna eta herritarren funtzionalitate integratua duten azpieskualde gisa mugatuak. Donostia Ekialdea, Pasaia, Erreterria, Lezo eta Oiartzunek osatzen dute Oarsoaldea multzoa.


2.- Hiri-multzoak: Hiri-lurra eta lurzoru urbanizagarria da. Komunikazio-azpiegitura nagusiak ere sartzen dira. Udal-barrutiko iparraldeari dagokio, hirigunea eta Zamalbide eta San Markos inguruneak kokatuta dauden eremuari.

3.- Hiri-inguruko landa-lurzorua: landa-habitata nagusi den egungo hiri-garapeneko eremuen ingurunean kokatutako eremuak dira.

4.- Hiriko ibai-korridoreak: Oiartzun ibaia, Erreterrian barrena igarotzen den tartean, kategoria honen barruan sartzen da.

5.- LPPn Izaera Estrategikoko Eremu gisa definitutako eremuak: Udalerriaren iparraldeko muturra Pasaia Badia Izaera Estrategikoko Eremuari dagokio. Eremu horretan, badiaren hirigintza-berroneratze orokorra eta portuaren modernizazio osagarria dira helburu nagusiak. Erreterrian, alde batetik, portuko jarduera ekonomikoak dauden E eremua hobetzea aurreikusten da eta, bestetik, Erreterriatik Herreraraino badiaren hegoaldean doan ertzeko ibilbidea egitea.

Pasaia Portuko Sistema Orokorra zerbitzu-eremuaren Antolamendurako Plan Berezia da, haren antolamendu xehatuaren dokumentua, eta bertan ezartzen denari jarraituko zaio; horregatik, kontu horri buruz LPPn aipatzen diren antolamendu-jarraibide eta -irizpide orokorrak gomendiotzat hartzen dira.



PROCESO INTEGRADO DE REGENERACIÓN URBANÍSTICA GENERAL DE LA BAHÍA Y MODERNIZACIÓN COMPLEMENTARIA DEL PUERTO PASAIA

 CONSOLIDACIÓN Y/O APERTURA DE LOS SIGUIENTES ITINERARIOS PEATONALES Y CICLISTAS PÚBLICOS INTERURBANOS:

- 1** • CONEXIÓN POR EL NORTE DE LA BAHÍA, INCLUIDO BOTE DONIBANE-SAN PEDRO.
- 2** • ITINERARIO DE BORDE POR EL SUR DE LA BAHÍA DESDE ERRENTERIA HASTA HERRERA.
- 3** • ITINERARIO DE BORDE EN LA VARIANTE GI-3440 LEZO-DONIBANE.
- 4** • CONEXIONES TRINTXERPE-HERRERA.



APERTURA DE NUEVOS ELEMENTOS DE CONEXIÓN VIARIA DIRECTA DEL INTERIOR DEL PUERTO CON LAS REDES GENERALES DE COMUNICACIONES EXTERIORES Y CON LA ZONA LOGÍSTICA DEL CORREDOR DE LEZO-GAINTXURIZKETA, PRIORIZANDO A MEDIO-LARGO PLAZO LAS CONEXIONES CON LA AP-8/AP-1 POR EL ESTE DEL PUERTO.



MEJORA DEL ACCESO FERROVIARIO AL RECINTO PORTUARIO E IMPLANTACIÓN DEL TERCER HILO EN LA RED ACTUAL DE ADIF.



NUEVA ESTACIÓN DE ETS EN ALZA Y REFORMA DE LAS ESTACIONES DE HERRERA Y ANTXO.



CONSOLIDACIÓN DE LAS DÁRSENAS DEPORTIVAS YA HABILITADAS EN SAN JUAN, SAN PEDRO Y HERRERA-TRINTXERPE.

PROCESO DE REGENERACIÓN URBANÍSTICA DE LA BAHÍA DE PASAIA Y MODERNIZACIÓN DEL PUERTO CON LAS SIGUIENTES RECOMENDACIONES DE INTERVENCIONES DE TRANSFORMACIÓN DE USOS DENTRO DEL RECINTO PORTUARIO, DE ACUERDO CON EL PLAN ACTUAL DE ORDENACIÓN DE LA ZONA DE SERVICIOS DEL PUERTO DE PASAIA:









-  **A** • PASEOS PÚBLICOS DE BORDE. BOCANA.
-  **B** • EQUIPAMIENTO PÚBLICO. ONDARTXO. PROYECTO ALBAOLA.
-  **C** • REORDENACIÓN Y USO PÚBLICO DE LOS MUELLES DE SAN PEDRO Y TRINTXERPE.
-  **D** • NUEVOS DESARROLLOS URBANÍSTICOS Y NUEVOS FORMATOS DE POLÍGONOS PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS AVANZADAS ASÍ COMO ACTIVIDAD ECONÓMICA PORTUARIA.
-  **E** • ACTIVIDADES ECONÓMICAS PORTUARIAS.
-  **F** • REORDENACIÓN DE LA ESTACIÓN DE ADIF EN PASAI ANTXXO, CON LA REVERSIÓN DE ESPACIO LIBRE PARA LA AMPLIACIÓN EN ANTXXO DEL BOULEVARD DE LA ANTIGUA N-1 Y EL TRATAMIENTO DE LA BARRERA FERROVIARIA ENTRE ANTXXO Y EL PUERTO.
-  **G** • REORDENACIÓN DEL FRENTE DE ENCUENTRO CON EL CASCO DE LEZO, DISPONIENDO DE UNA VARIANTE DE LA GI-3440 DE ACCESO A PASAI DONIBANE Y UN NUEVO PASEO EN CORNISA HACIA EL PUERTO DE REMATE DEL CASCO.
-  **H** • REORDENACIÓN Y USO PÚBLICO DEL EXTREMO OESTE DE BORDALABORDA.

Figura 2. 11. irudia. Pasaiako Badia izaera estrategikoko eremua.. Iturria: 5.3 plana. Pasaiako Badia izaera estrategikoko eremua. Donostialdea-Bidasoa Beherea LPP.

Etxebizitza-parkearen eta jarduera ekonomikoen antolamendua

Lurralde Plan Partzialaren azken 16 urteetako epemugan (2016/2031), espazio-erreserba egoki gehien dituzten udalerriek, Lezok eta, batez ere, Oiartzunek eta Donostiako Ekialdeak, beren plangintzan Errenteriaren eta, batez ere, Pasaiaren bizitegi-hazkunderako lurzoru falta orekatzea gomendatzen da.

LPPren arabera, Errenterian Gamongoa, Perutxene eta Palaziozarrako etorkizuneko poligonoetako bizitegi-dentsitatea handitzea eta, hala ere, Zamalbide eta Tolare Berriko garapenak berriz aztertzea da gomendatutako beste aukera bat.

LPPk 2.058 eta 2.784 etxebizitza berri arteko urkilla aurreikusten du LPPren epemugan Errenterian planifikatutako bizitegi-parkearen hazkunderako. HAPOk kontuan hartu beharreko funtsezko zehaztapena da hori, eta kopuru horiek LAG idazteko prozesuan adierazitako kopurua (1.922 etxebizitza) gainditzen dutela ikusi da, kopuru hori epemuga laburragoari dagokion arren.

Jarduera Ekonomikoetarako lurzoru 105 eta 120 ha artean finkatu da, eta udalerria “lehtasunezko intereseko udalerrri” gisa sartu da jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamenduari eta garapenari dagokienez. **1.13: LPP** planoan LPPak udalerrirako egindako ingurune fisikoaren antolamendua jaso da.

2.5.3 Lurraldearen Arloko Planak (LAP)


2.5.3.1 EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.²

Kantauriko isurialdeari dagokion EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeko LAP behin betiko onartu zen abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez, eta azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez aldatu zen. Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan isurtzen diren Kantauriko arro hidrografikoetako ibai-ibilgu guztien alde banatan dauden 100 m-ko zabalerako lurzoru-zerrendek osatzen dute haren antolamendu-eremua, sortzen direnetik itsasora iristen diren arte.


LAP horrek hiru osagaien arabera bereizten ditu ibilgu nagusiak: ingurumen-osagaia, hidraulikoa eta hirigintzako. LAPean jasotako araudiak berariazko atzerapena ezartzen du, ingurumen- eta hirigintza-osagaien arabera definitutako kategorien arabera eta osagai hidraulikoak definitutako tartearen

² 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPren Aldaketa behin betiko onartzen duena, 2013ko abenduaren 12an EHAAn argitaratua.

10 km² arteko artoa dute (0 maila). Udalerriko gainerako errekek 1 km² baino gutxiagoko artoa dute (00 maila).




13. irudia. Errenteriako udalerriko ibai eta erreken osagai hidraulikoa. Iturria: EAeko ibai eta erreken LAP.



14. irudia. Errenteriako udalerriko hiri-garapenen ingurunean kokatutako ibai eta erreken osagai hidraulikoa. Iturria: EAEko ibai eta erreken LAP.

Hirigintza-osagaiaren arabera, LAPak, berriz, Errenterian “eremu garatuetako ertzak”, “hirigintza-garapen berriak izan ditzaketen eremuetako ertzak”, “landa-eremuko ertzak” eta “hiriarteko komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertzak” bereizten ditu.



15. irudia. Errenteriako udalerriko ibai eta erreken osagai hidraulikoa. Iturria: EAEko ibai eta erreken LAP.

Kategoria horietako bakoitzerako, eta tarteen osagai hidraulikoaren arabera, LAPak gutxieneko atzerapen hauek ezarri ditu:

5. taula. LAPak ezarritako gutxieneko atzerapenak, osagai hidraulikoen eta hirigintzakoaren arabera.

Tarte-maila	Eremu garatuetako ertzak		Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzak		Landa-eremuko ertzak	Komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertzak
	Mugatze-lerro definitua	Definitu gabe	Eraikuntza	Urbanizazioaren plataforma		
III	12 m	16 m	20 m	8 (10) m	50 m	50 m
II	10 m	14 m	16	6 (8) m	30 m	30 m
0	10 m	12 m	12	2 (4) m	15 m	15 m

*Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten esparruetako ibai-ertzetan dagoen hirigintza-zona ondo kontserbatutako landaredia duten ertzetako ingurumen-zonarekin bat badator, urbanizazioaren gutxieneko atzerapenaren parametroa zabaldu ahal izango da parentesi artean adierazitako zenbatekoraino.

Lehentasunezko Natura Intereseko Eremuetan dauden landa-eremuko ertzetan, 50 metroko atzerapena utziko da, gutxienez, ibilgu publikoaren mugatze-lerrora, baldin eta eremu horiek antolamendu-espezifikorik ez badute. Antolamendu-planak dituzten eremu babestuen kasuan, Ibilgua Babesteko Eremuaren definizioa eta ertzetan baimendutako, onartutako eta debekatutako erabilerak eta jarduerak finkatzea onetsitako antolamendu-dokumentuetan ezarritakoak izango dira.

Bigarren kasu hori aztertzen ari gara Errenteriako udalerrian, “Lehentasunezko Natura Intereseko Eremuetako ertzak” Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremuaren eta Parke Naturalaren barruan daude; horregatik, bete beharreko araudia eremu babestu horien kudeaketa-dokumentuetan ezarritakoa izango da.

00 tarte-mailako ur-ibilguei dagokienez, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Argitzea komeni da 0-n (ingurumen-osagaia) nahiz 0-n (hirigintza-osagaia) adierazitakoak bat egiten duela LAP honen 1998ko bertsioan jasotakoarekin, eta ordutik hona aldaketa batzuk izan direla; horregatik, lehentasuna eman beharko zaio ingurumenari buruz eskura dagoen informaziorik eguneratuena eguneratzeari, bai eta hirigintza-osagaiari dagokionez indarrean dagoen hirigintza-plangintzatik datorren informazioa eguneratzeari ere.

LAPak Udalaren hirigintza-proposamenean eragina duten zehaztapenak ezartzen ditu. Alde horretatik, hauek dira alderdirik aipagarrienak:

- Aplikatu beharreko arloko oinarizko legeriaz gain (2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentaraua, Uren 1/2001 Legearen Testu bategina, Uren 1/2006 Euskal Legea, etab.), ibilgu guztiei aplikatu behar zaizkie Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoaren araudia, Uholde-arriskuari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua, uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzko 903/2010 ED eta uholde-arriskua kudeatzeko planak.
- LAPak, *C.3 Hornidura-urtegiak, lakuak eta urmaelak eta ur-hartuneak babesteari buruzko araudia* epigrafean, 200 m-ko zabalerako zerrenda perimetrala ezartzen du urtegien babes-eremu gisa, urtegiaren maila goren normalari dagokion lerrotik neurtuta, presatik gora eta bere arroaren barruan. Babes-eremu horretan, LAPak erabileren erregulazio espezifikoa ezartzen du.
- LAPak lurzoruaren erabilera-erregimen bat ezartzen du, eremuen uholde-arriskuaren arabera:
 - o *E.2.1. Lurzoruaren erabileren araubidea, uholde-arriskuaren mailaren arabera.*
 - o *E.2.2. Lurraren erregimen orokorra eta uholde-eremuetako jarduketak.*
 - o *E.2.3. Lurzoruaren araubide espezifikoa eta uholde-arriskua duten eremuetako jarduketak lehentasunezko jarioaren gunearen barruan.*
 - o *E.2.4. Lurzoruaren araubide espezifikoa eta lehentasunezko jario-eremutik kanpo kokatutako 100 urteko birgertatze-aldiko uraldiagatik uholde-arriskua duten eremuetako jarduketak.*
 - o *E.2.5. Lurraren araubide espezifikoa eta uholde-arriskua duten eremuetako jarduketak 100 eta 500 urte arteko birgertatze-aldiko uraldiak direla eta.*

I.14: Ibaien LAP planoan LAP horrek udalerrirako ezarritako zehaztapenak jaso dira.

mugapenaren arabera (Udalplan 2008); bai eta ibaiei eta urtegiei ere; eta Aiako Harria eremu babestuari (KBE eta Parke Naturala).

LAPen antolamendu-kategoria bakoitzerako ‘Berariazko aplikazio-arau’ batzuk garatu dira, ‘Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrize’ batean araututa. Honako hauek dira irizpide orokorrak:

Baso-erabilerako eremuetan “(...) ekoizpen- eta babes-funtzioak elkarri lotuta daude. Administrazio sektorialak arduratuko dira kasu bakoitzean baso-espezie egokiena zein den zehazteko azterlanak egiteaz, bai ekoizpen-premien arabera, bai lurraren estazio-baldintzen arabera. (...)”. Basoa - Bakandutako landarediko mendia eremuan “ (...) zuhaizti-erabilerako bokazioa izango dute; horregatik, eremu horietan berezko birsorkuntza eta masa horien hobekuntza bermatuko duten tratamenduak erabiliko dira”. Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Plan espezifikoak, udal-plangintzari dagokionez, “*babesteko interes handia duten baso autoktonoak udal plangintzako Babes Bereziko kategorian babestu ahal izango dira*”.

Balio Estrategiko Handia duen nekazaritza eta abeltzaintza azpikategoriako eremuak (...) nekazaritza-sektorerako ikuspegi estrategikotik hartzen dira eta, ondorioz, haiek mantentzea eta beste erabilera batzuen aurrean babestea lehentasunez jotzen dira”, eta “Trantsizioko Landa Paisaia” azpikategoriako eremuetan (...), *lurzoruen gaitasun agrologikoari eusten saiatuko dira, bai eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak eta nekazaritza-paisaiak babestea ziurtatzen duten beste batzuk ere. Oro har, lehengoan eutsiko zaio Nekazaritzako azalera erabilgarriari.*” Ingurumena hobetzeko eremuetan “(...) Erabilera hori zehazteko, komenigarria izango da esku hartzeko Plan Teknikoa izapidetzea. Plan horretan zehaztuko dira zona bakoitzean lortu beharreko helburuak, egungo narriadura eragiten duten eragileak eta horiek zuzentzeko modua, gainerako erabileren tratamendu integrala, etab.”.

Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planak, udal-plangintzari dagokionez zehazten du “*antolamendu-kategoria eta -azpikategoria bakoitzerako ezarritako eremuen mugak doitu ahal izango dituela, LAPean proposatutako zonakatzea erabiliz. (...) Halaber, udal-plangintzak lurzoru bat “Babes Berezikotzat” jotzen badu, edo lurzoru hori hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen badu, LAP honetan ezarritako arau eta protokoloen arabera, automatikoki aldatuko da, eta eremu horiek LAP honen antolamendu-eremutik kanpo birsailkatuta geratuko dira*”.

1.15: Nekazaritza eta Abeltzaintzako LAP planoan jaso da LAP horrek udalerrirako proposatutako antolamendua.

2.5.3.3 EAEko Hezeguneen LAP

Hezeguneen LAPak, uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez behin betiko onartu eta urriaren 30eko 231/2012 Dekretuaren bidez aldatutakoak, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zehaztapenak garatzen ditu EAEko hezeguneen inbentarioaren eta sailkapenaren bidez, eta erabilerak eta jarduerak arautzen ditu, berariazko antolamenduaren xede diren hezeguneetan duten harrera-ahalmenaren arabera.

LAPak EAEko hezeguneak identifikatu eta inbentariatu, tipologiaren arabera sailkatu eta hiru taldetan banatuko ditu, LAPean ezarritako erregulazio-motaren arabera. LAPak II. Multzoa osatzen duten

esparruen kasurako soilik ezartzen du erregulazioa. I. eta III. multzoak hezeguneen zerrenda bat dira, eta horiei buruzko informazioa dute (lotutako kodea eta kokalekua).

Hezeguneen eboluzioa ezagutzeko eta, hala badagokio, beharrezko babes-neurriak adierazteko, LAPak "EAEko Hezeguneen Inbentarioa" sortu du. Añarbeko urtegia Inbentarioko I. Multzoan sartu da, EG12 kodearekin, bai eta Malbazarreko putzua ere (GC13). Azken hori Hernaniko udal-mugartearekiko mugan dago.

I. Multzoko hezeguneak Naturagune Babesturen baten barruan daudenak dira. Eremu horien antolamendua ez da Lurraldearen Arloko Plan honen xedea, eta eremu horietako bakoitzaren araudi espezifikoarekin arabera egingo da.

LAP honetan sartutako hezeguneez gain, azken urteotan, Erreneriako Udalak Aiako Harria Parke Naturaleko eta haren inguruneko urmael-sare bat sortu du. Orain arte, 12 hezegune egikaritu edo egokitu ditu, eta funtzionaltasun ekologiko handia dute. Hezegune horien artean aipatzekoak dira, alde batetik, Pagosarde, Aldura, Burkondo edo Igantziko urmaelak, Aiako Harria eremuaren iparraldean daudenak eta, bestetik, Kutarro eta San Marko urmaelak, San Marko inguruan daudenak.

2.5.3.4 EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LAP⁴

Martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bitartez behin betiko onartutako EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LAPren antolamendu-eremua Kostaldeei buruzko Legean definitutako Eragin Eremua da: "500 m-ko gutxienezko zabalerako zerrenda, itsasertzaren barrualdeko mugatik neurtuta". Eremu hori, ibaien ertzetan hedatzen da mareen eragina nabaritzen den lekuraino. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, itsas mailatik 5 metroko kotari dagokio (ekinokzioko itsasbehera bizia).

Zonakatzea edo kategorien esleipena LAGek lurzoru urbanizaezinerako definitzen duten lurralde-eredua da eta, LAP honen ondorioetarako, itsasertzaren kontserbazio-balioaren arabera duen harrerahalmenean oinarritzen da, bai eta eremu bakoitzerako arautzen diren erabileren arabera ere.

Udalerraren iparraldea eragin-eremuaren barruan dago, eta LAPak ondoren xehatutako zonakatzea zehazten du:


- Hiri-lurra: 426,04 ha
- Lurzoru urbanizagarria: 119,99 ha
- Ibaiak: 14,07 ha
- Itsasadarrak: 4,15 ha
- Estatuko eta autonomia-erkidegoetako portuak: 20,60 ha
- Itsasoa: 1,21 ha

Indarrean dauden hiri-lurzoruei eta lurzoru urbanizagarriei dagokienez, Kostaldea antolatzeko LAPak itsasertzei buruzko legeria eta udal-plangintza betetzearen baitan uzten du antolamendua.

⁴43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzen duena.

Portu-eremuetara ematen duten eremuak Portuen Lurraldearen Arloko Planak (gaur egun idazten ari dira), udal-plangintzak eta portu bakoitzeko Plan Berezi Zuzentzaileak antolatuko dituzte.

Itsasadarren ertzetan, antolamendua Ibai eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin koordinatuko da. Kostaldeko lurraldea ere itsasadarretan kostaldeari buruzko legerian ezarritako mugapenak aplikatu behar dira.



17. irudia. Kostaldea antolatzeko LAParen antolamendu-kategoriak Errenteriako udalerrian. Iturria: Kostaldea antolatzeko LAP.

2.5.3.5 EAEko Trenbide Sarea antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarea antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duenak, honako helburu hau du: “plangintza- eta erregulazio-tresna bat eratzea, erreferentzia gisa erabiliko dena bere zehaztapenak garatzeko beharrezkoa den sektore- eta hirigintza-arloko esku-hartzerako”, eta EAEko trenbide-sare osoa ezartzeko eta garatzeko jarduerak zehazten ditu.

LAPak ezarritako araudia bat dator Lurreko Garraioak Antolatzeko Legearen Erregelamendua onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuarekin.

Lurraldearen Arloko Plan honen xedapen iragankorreen zehazten den moduan, “1. Lurraldearen Arloko Plan honen Zehaztapenen 6. artikuluan jasotzen den hirigintza-antolamenduko tresnen beharrezko egokitzapena argitaratu eta urtebeteko epean egingo da”. eta “2. Nolanahi ere, Lurraldearen Arloko Plan hau indarrean jartzean plangintza-tresnak berrikuste-fasean dituzten udalerriek prozedura horretan egingo dute egokitzapena nahitaez.”

LAP honek “Trenbide Erabilerako Komunikazioen Sistema Orokorra” kalifikazioan sartu beharreko espazioak adierazten ditu, Trenbide Sarearen azpiegitura egikaritu ondoren. Honela dio LAPak aipaturiko Dekretuko *Definizioa* izeneko 18. artikuluan eta *Zehaztapen teknikoak* izeneko 19. artikuluan:

- *“3. Trenbide Sare Berriaren azpiegitura egin ondoren, Trenbide Erabilerarako Komunikazioen Sistema Orokorra osatzen dute trenbidearen lur-berdinketak, haren elementu funtzionalek eta haren ustiapen egokiari lotutako instalazioek okupatutako lurren multzoak, eta lurzoru urbanizagarri eta urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan zortzi (8) metroko zerrenda batek, eta hiri-lurzoruan bost (5) metrokoak (...).*
- *4. Zubi, zubibide, egitura eta antzeko obren kasu berezietan, lur-berdinketaren kanpoko ertz gisa hartuko da obrak lurrean bertikalki proiektatzeko lerroa. Hala badagokio, egituraren euskarrien kanpoko ertzak hartu ahal izango dira halakotzat. Nolanahi ere, jabari publikokoa izango da egituraren euskarriek okupatzen duten lurra.*

ETSk kudeatutako Euskotrenen Bilbo-Donostia trenbideak Erreneriako hirigunea zeharkatzen du eta hiru geltoki ditu udalerrian (Galtzaraborda-Erreneria, Erreneria eta Fanderia-Erreneria).

Renfek kudeatutako Brinkola-Irun lineak, Erreneriako hirigunearen iparraldetik igarotzen denak, geltoki bat du udalerrian (Lezo-Erreneria geltokia).


Horrez gain, ADIFen trenbide-sare berriak, AHTren (Abiadura Handiko Trena) enbor nagusiak, Erreneria udalerria Astigarraga eta Oarsoaldea arteko tartean zeharkatuko duela aurreikusten du LPPak, Donostialdeko erdigunera, merkantziak eta, hala badagokio, bidaiariak garraiatzeko. Aurreikusitakoaren arabera, zati hori Erreneriako hirigunearen hegoaldeetik igarotzen da, San Markos ingurutik Aranguren industrialderaino, Oiartzungo udalerriarekiko mugan (2,4 km, gutxi gorabehera).

2.5.3.6 Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Ekipamendu Komertzialak sortzeko Lurraldearen Arloko Plana

LAP hori behin betiko onartu zen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko kokalekuak identifikatzeko eta kokaleku horiek bete behar dituzten ezaugarriak zehazteko.

LAP honek “lehentasunezko intereseko udalerritzat” jotzen du Erreneria. Horren arabera, dagokion eremu funtzionaleko LPParen lurralde-ereduari jarraituz, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen hirigintzari buruzko antolaketa, kudeaketa eta sustapenerako politika ezartzen du:

- *“Lurzoru okupatu finkatuak hobetzeko oinarrizko politika.*
- *Industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko politika berezia, enpresak lekuz aldatzea erraztuz eta espazio hutsak jarduera-eremu berrietarako erabiltzea sustatuz.*
- *Industriako sailkapena duten lurzoru hutsak garatzeko politika berezia, lehendik dauden poligonoak indartuta, desblokeatuta eta sustatuta.*
- *Planak interes estrategiko orokorreko puntutzat dituen eremuetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzeko politika berezia.”*



**OPERACIONES DE CREACION PUBLICA
DE SUELO PARA ACTIVIDADES ECONOMICAS**




Figura 3. 18. irudia. Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Ekipamendu Komertzialak sortzeko Lurraldearen Arloko Planeko proposamen-planoaren zatia.

Udal-plangintza berrikusteko prozesuetarako, LAP honek irizpide hauek ezartzen ditu lurzoruaren kalifikazioari dagokionez:

- “Gaur egun lurzoru ‘industrializat’ edo ‘jarduera ekonomikoetarako’ lurzorutzat kalifikatutako lurzoruak birkalifikatzeko prozesuak “bizitegi-kalifikazio” edo antzeko kalifikazio berriak egiteko baina ez dira onartuko, baldin eta alde zuzenetik eta behar bezala dokumentatuta justifikatzen bada ezinezkoa dela ikuspegi tekniko, ekonomiko edo hirigintzaketik eragiketa alternatibo bat planteatzea, hau da, lurzoru horiek jarduera ekonomiko berriak hartzeko moduko eremu bihurtzea, dagokion aparkaleku-zuzkidurarekin hornituta (...).

- *Nolanahi ere, hirigintzako birkalifikazio-prozesu berriak izapidetzeko, hala nola ‘industria-lurzorua’ edo ‘jarduera ekonomikoetarako lurzorua’, ‘bizitegi-lurzorua’ edo ‘zuzkidura-lurzorua’, aldi berean, udalerriko eremuan edo bere Eremu Funtzionaleko eremuan ‘jarduera ekonomikoetarako’ lurzoru berri baten azalera baliokidea hirigintza-plangintzan sartzeko eskatzea.*

Azkenik, Lurraldearen Arloko Plan Berezi honetan Kantauri Isurialdeko Eremu Funtzionaletan leku gutxien duten eremuetan (...) ez da komeni “jarduera ekonomikoetarako” kalifikazioa duten lurzoruen hirigintza-birkalifikazioa beste erabilera alternatibo batzuetara aldatzea, eta jarduera ekonomikoaren euskarri gisa dagoen lurzoru urria babesteko xedez, industria-eremu zaharkituen birmoldaketa-prozesuak, baldin eta erabilera-aldaketekin egiten badira, lehentasunez eragiketa mistoetara bideratzea, horietan, zuzkidura- edo bizitegi-eraikuntza berriarekin batera, beste jarduera ekonomikoren bat ezartzea aurreikusten denean.”

2.5.3.7 Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAP

Gipuzkoako bizikleta-bideen LAP (aurrerantzean GBBLAP) *Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauak* onartu zuen.

GBBLAP Behin Betiko Onartzeko Dokumentuak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea (aurrerantzean GBBOS) sortzea proposatzen du, gaur egun partzialki egikarituta dagoena. GBBOSren helburu nagusia bizikleten erabilera hiriko eta hiriarteko eguneroko garraioan integratzea da, mugikortasun ez-motorduna indartzeko. GBBOSk izaera egituratzailea du, Lurralde Historikoko eskualde, eremu funtzional eta hirigune nagusi guztietan barrena igarotzen delako eta denak lotzen dituelako. 439 Km-ko luzera du eta bederatzi ardatz nagusik osatzen dute.

GBBLAPak Oinarrizko Foru Sarea (GBBOFS) (Oinarrizko Sarea eratzen duten batez ere hiriarteko izaerako tartekak) eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarea (GBBOUS) (Oinarrizko Sarean txertatzeko bokazioa duten hiriko tartekak) bereizten ditu.

GBBLAPak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sareko (GBBOFS) zatietarako foru-administrazioak kudeatzea eta titulartasuna ematea proposatzen du, eta lotesleak izango diren GBBOFSren zati, adar eta elementu funtzionaletara mugatzen da. Halaber, udalerriek beren plangintzak egokitu behar dituztela ezartzen du, bizikleta-bide horiek lurzoruaren kalifikazio honetan sartuta: Bizikleta Komunikazioaren Sistema Orokorra, bizikleta-azpiegitura behar bezala egiteko lurzoruen erreserba eta hornidura egokia bermatzeko, antolamendu-irizpideak errespetatuz. Definizio horrek, kalifikazio honi dagokionez, hirigintza-antolamenduko tresna guztiak lotzen ditu.

GBBLAPak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarerako (GBBOUS) udal-kudeaketa eta -titulartasuna proposatzen du. Oinarrizko Udal Sarearen proposamena dagokien tokiko administrazioei kontsulta egin ondoren erabaki daitekeenaren kalterik gabe egiten da. Oinarrizko Udal Sareari dagokionez, GBBLAPak gomendiozko gidalerro ez-lotesleak proposatzen ditu, alderdi jakin batzuk izan ezik, hala nola hiriarteko zatiekin lotzeko puntuak.

I-1 Donostia-Irun ibilbidea Erreneriako hirigunean barrena igarotzen da, Oiartzun ibaiaren ubidearekiko paralelo, udalerraren ipar-ekialdean dagoen Lartzabal auzotik, udalerraren ipar-mendebaldean eta Pasaia Antxorekin mugan dagoen Kaputxinoak auzoraino. Erreneriako hirigunean eta Oiartzun ibaiaren

ertzean dagoen Santa Klara plazatik sortzen da I-1.3 Errenteria-Oiartzun adarra, Fanderia auzorantz. Fanderia auzoa zeharkatuz, ibaian gora jarraitzen du Oiartzun ibaiaren ibilguak, izen bereko udalerriraino.

Gainera, GI-2132 errepidearekiko paralelo, I-3.3 Astigarraga-Oiartzun adarra proposatzen da, I.3 Donostia-Beasain ibilbideari dagokiona, eta alternatibak aztertzeko tartearen kategoria eman zaio.





Figura 4. 19. irudia. I-1 Donostia-Irun ibilbidea Errenteria udalerrian barrena igarotzen. Iturria: Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPEko C-1.2 eta C-1.3 planoak.



20. irudia. I-3.3 Astigarraga-Oiartzun adarra, I-3 Donostia-Beasain ibilbideari dagokiona Errenteriako udalerrian igarotzen den tartearen. Iturria: Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPEko C-3.4 plana.

2.5.4 Aztergai den eremuan eragina duten beste Plan edo Programa batzuk

2.5.4.1 Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021)

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen, eta Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ) izeneko eta Espainiako araudian 62/2003 Legearen bidez txertatutako 2000/60/EE Zuzentaraua aplikatzeko tresna da. Dokumentuak, alde batetik, Estatuko Administrazio Orokorrak, Kantauriko Ur Konfederazioaren bidez egindako eta, bestetik, EAEK, Uraren Euskal Agentziaren (URA) bidez egindako plan hidrologikoak biltzen ditu.

Urtarrilaren 20ko 20/2016 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 zikloari dagokion Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren (UAKP) arabera, Oiartzun ibaia, Errenteriako hirigunean igarotzen den zatian, III. taldekoa den ARPSI ES017-GIP-OIA-01 Oiartzunen sartuta dago. III. taldeak arrisku handiko ARPSIak hartzen ditu, I. eta II. taldeekin lotutako arazoak konpondu ondoren egitura-babesa eman behar zaie. Beraz, UAKPk ez du jasotzen dagokion ARPSIari buruzko neurririk indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren epemugan (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** atala).

Gainera, Uraren Esparru Zuzentarauak eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduak ezarritakoa betez, Kantauriko Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren barruan Eremu Babestuen Erregistroa (HEA) dago. Errenterian honako eremu hauek daude (ikus 3.2.4.4, **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** atala):

- Harguneak eta Babes Eremuak: Lardabaso koba, Aitzpitarte, Añarbe.
- Eremu Sentikorra: Oiartzun estuarioa
- Habitatak eta Espezieak Babesteko Eremuak: ZEC ES210016 Aiako Harria
- Beste babes-figura batzuk: Bisoi europarrarentzako eta Pirinioetako muturluzearentzako Interes Berezikoko Eremuak, Aiako Harria Parke Naturala.

2.5.4.2 Paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua EAEko lurralde-antolamenduan

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak EAEko administrazio publikoak paisaiaren arloan dituzten jarduketa-helburuak ezartzen ditu. Horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- a) *Beren natura- edo kultura-izaeragatik berriazko jarduera integratuak eskatzen dituzten paisaien balioak kontserbatzea.*
- b) *Hiri-eremuko paisaia hobetzea, bereziki aldirietakoa eta herriguneetara iristeko bideetakoa.*
- c) *Landa-eremuan paisaiak mantentzea, hobetzea eta zaharberritzea.*
- d) *Paisaien artikulazio harmonikoa, arreta berezia jarriz biztanle guztientzat irisgarriak diren paisaiei arreta berezia eskainiz, bai eta hiri- eta landa-eremuen arteko ukipen-espazioei ere.*
- e) *Lurraldearen gaineko esku-hartzeak paisaian behar bezala integratzea, batez ere azpiegiturei eta jarduera ekonomikoko eremuei dagozkienak.*

Paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeako ezarritako tresnen artean, besteak beste, paisaia integratzeko azterlanak aipatzen ditu Dekretuak. Azterlan horien helburua obra- eta jarduera-proiektuak gauzatzeak

paisaian dituen ondorioak kontuan hartzea da, bai eta obrak eta jarduerak paisaian behar bezala integratzeko irizpideak eta hartutako neurriak azaltzea ere.

Dekretu horretako 7.3 artikulua honako hau xedatzen du:

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak eta haren sektore publikoko erakundeek paisaia-integratioari buruzko azterlana erantsiko dute, beren eskumeneko obra edo jardueren proiektuen dokumentazio gehigarri gisa. Nolanahi ere, honako hauetan eskatuko da Paisaia-integratioaren azterlanak egitea:

- a) Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 28.5 artikuluan aipatzen diren jardueretan.*
- b) Lurralde- edo hirigintza-plangintzak hala eskatzen duen kasuetan.*
- c) Garraio- edo portu-azpiegiturak egitean.*
- d) Ondare historiko-artistikoaren parte izateagatik katalogatutako edo inbentariatutako eremu edo enklabeetan, horien ingurunean txertatuta.*

2.5.5 Udal-mailako beste plan batzuk

2.5.5.1 Errenteriako Ekintza Plana klima-aldaketara egokitzeko

Errenteriako Udalak Klima Aldaketara Egokitzeko Plana (2018) egin du. Honako hauek dira haren helburu estrategikoak:

1. Errenteriako biztanleria klima-aldaketara egokitzea.
2. Klima-aldaketa barne hartuko duen udal-kudeaketa arduratsua garatzea.
3. Klima-aldaketarekiko udalerrri erresilientea diseinatzea.

Planaren helburu estrategikoak 6 xede lortuz eta 32 ekintza ezarriz erdietsiko dira.

1. XEDEA: Biodibertsitateak kontserbazio-maila handia du, eta udalerriko zerbitzu ekosistemikoak baloratu eta lehenetsi egiten dira.
2. XEDEA: Hiri-lurzoruaren eremua erresilientea da klima-aldaketaren aurrean.
3. XEDEA: Udalerriko ura banatzeko eta saneatzeko sistema optimizatuta dago.
4. XEDEA: Udal-plangintzetan sartzen da klima-aldaketara egokitzea.
5. XEDEA: Biztanleria klima-aldaketari buruz informatuta eta sentsibilizatuta dago eta, horrela, bere erresilientzia handitzen da.
6. XEDEA: Klima-aldaketak Errenteriako herritar guztiengan izango dituen ondorioak ezagutzen dira eta haien gizarte-ongizatea bermatuta dago.

32 neurriak biodibertsitatearen, hirigintzaren (kanpoaldea eta barrualdea), osasunaren eta uraren esparruei zuzenduta daude. Neurrien lehentasunaren arabera, jarduteko hiru epemuga ezartzen dira: epe laburra (2017-2020), epe ertaina (2021-2025) eta epe luzea (2026-2030).

6. taula. Erreneriako Klima Aldaketara Egokitzeko Planean ezarritako 32 neurriak lehenestea eta horiek gauzatzeko denbora-esparrua.

Neurria	Epe laburra	Epe ertaina	Epe luzea
1.6 Ibai-ibilguak prestatzea klima-aldaketari aurre egiteko.	2020		
2.2 Eraikinetan eraginkortasun-irizpide jasangarriak ezartzea.	2020		
3.4 URari ARPSIaren berrikuspena egiteko eskatzea.	2020		
4.1 Hornidura- eta saneamendu-sarearen plan zuzentzailea idaztea eta garatzea.	2020		
4.2 Uholde eta lehorteei buruzko udal-plangintzetan klima-aldaketaren zeharkakotasuna azaltzea.	2020		
4.3 Klima-proiektzioak eta egokitzapen-irizpideak larrialdi-planetan eta babes zibilean txertatzea.	2020		
4.4 Erreneriako hiri-antolamendu orokorraren planean jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren irizpideak sartzea.	2020		
5.1 Klima-aldaketara egokitzeko sentsibilizazio- eta erantzukizunkidetasun-kanpainak egitea.	2020		
5.3 Klima-aldaketaren arriskuak integratzea (bero-kolpea, deshidratazioa, etab.) talde sentikorrenekin (haurrak, gaixoak, hirugarren adineko pertsonak, etab.) lan egiten duten pertsonentzako prebentzio sanitarioko jardueretan).	2020		
5.4 Udal mailako ekonomia zirkularra bultzatzea.	2020		
6.1 Pobrezia energetikoaren azterketa egitea eta jarduketa-protokoloa prestatzea.	2020		
6.4 Erreneriako atmosferaren kalitatearen jarraipena egitea.	2020		
1.1 Izurriteen eta landare inbaditzaileen kontrola bultzatzea.		2025	
1.2 Babestutako naturaguneen kudeaketan klima-aldaketara egokitzeko irizpideak sartzea.		2025	
1.3 Lehorteari eta muturreko tenperaturei aurre egiteko espezie autoktonoen erabilera sustatzea.		2025	
1.5 Aiako Harria parke naturalaren azalera handitzea.		2025	
3.1 Etxebizitzetan kontagailu indibidualak instalatzea.		2025	
3.2 Udalerriko sareko ur-galerak murriztea.		2025	
3.3 Bizitegi-sektorean eta sektore publikoan ura tratatu eta berrerabiltzeko sistemak aztertzea.		2025	
3.5 Ur-baliabideen kalitatea bermatzea		2025	
4.5. Arrisku klimatikoko eremuetan dauden etxebizitzak babesteko plana garatzea.		2025	
4.6. Lorezaintza-plan berritzailea garatzea, biodibertsitatea eta ekosistemak hiri-lurzoruan txertatzeko.		2025	
4.7. Egungo azpiegitura berdea mantendu eta hobetzea, udalerria ez dadin hazi lurzorua gehiago artifizializatzearen kontura.		2025	
5.2. Udalerriko sektore ekonomikoak klima-aldaketari buruzko gaietan prestatzea.		2025	
5.5. Hezkuntza-sistemaren etapa guztietan klima-aldaketaren gaia sartzea.		2025	
6.2 Klima-aldaketak Errenerian dauden kolektiboetan dituen ondorioak aztertzea, adingabeak, migratzaileak, hirugarren adineko pertsonak, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak eta abar barne hartuta.		2025	
6.3 Klima-aldaketaren arriskuak Erreneriako gizarte-politikan txertatzea.		2025	
1.4 Aiako Harria eta Lau Haizeta naturaguneen arteko korridore ekologikoa aktibatzea.			2030

Neurria	Epe laburra	Epe ertaina	Epe luzea
2.1 Udalerriko eraikinetan teilatu berdeak jartzeko aukera aztertzea			2030
2.3 Itsas mailaren igoerak Errenterriako azpiegituretan izan ditzakeen ondorioak aztertzea.			2030
2.4 Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak (DJHS) leku egokietan instalatzea, Saneamendu Sareko Plan Zuzentzaileari jarraituz.			2030
2.5 Lerradura-arriskuaren azterketa eta azterketa horren ondorioen arabera neurriak garatzea.			2030

2.5.5.2 Errenterriako Oinezkoen eta Txirrindularien Mugikortasun Plana

Errenterriako Udalak, Ingurumen eta Mendi Sailak koordinatuta eta Trafiko eta Hirigintza Sailekin elkarlanean, Oinezkoen eta Txirrindularien Mugikortasun Plana (aurrerantzean OTMP) prestatu zuen 2015eko maiatzean. OTMPren helburua da bizikleta hirigunean garraibide gisa erabiltzea sustatzea, eta oinezkoen joan-etorriak seguruagoak, erosoagoak eta erakargarriagoak bihurtzea.

OTMPren esparruan, *“Errenterriako oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari buruzko azterketa”* egin da. Azterketa horrek Errenterriako udalerrri barruan egiten diren joan-etorrien gaur egungo egoerari buruzko diagnostiko orokor bat du. Azterketa horren arabera, biztanleen % 80,5ek Errenterrian joan-etorriak egiteko modua oinezkoa da. Autoaren edo motorraren erabilera eta garraio publikoa bigarren tokian daude, joan-etorrien % 9,3rekin garraio-mota motordun bakoitzerako. Herritarren % 1ek baino ez du erabiltzen bizikleta eta, gehienek udalerrri barruko joan-etorrietarako erabiltzen dute.

Testuinguru horretan, OTMPk hainbat jardura proposatzen ditu Errenterriako oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna hobetzeko.

Lehentasunezko oinezkoen sarean atzemandako arazoak konpontzeko jarraibideei dagokienez, estrategia bat proposatzen da, hainbat udal-jarraibide eta -ekintzarekin, helburu orokor hauek betetzeko:

- Oinezkoentzako bideen erosotasuna hobetzea.
- Oinezko joan-etorriak laburtzea eta erraztea.
- Ibilgailuek harrapatzeko arriskuak murriztea.
- Oinezkoentzako eremu erakargarria, segurua eta bizitzekoa sortzea.
- Zarata eta kutsadura atmosferikoa gutxitzea.

Aipatutako helburu orokor horiek betetzeko, gainera, jarduketara zehatz bihurtzen diren berariazko helburu hauek proposatzen dira:

- Abiadura moteltzea: Alaberga Auzoa kalea, Sorgintzulo kalea, Beraun kalea.
- Oinezkoentzako espazioa berreskuratzea: Sorgintzulo kalea, Galtzaraborda kalea, San Marko kalea.
- Oinezkoa ahalduntzea: Sorgintzulo kalea, Urbasa kalea - Aralar plaza, Andoni Korta kalea - Aralar plaza.
- Kalitatea lehentasunezko sareko ibilbideetan: Aiako Harria kalea, Maurice Ravel kalea, Pontika kalea.

- Ibilbideei buruz informatzeko seinaleak

Txirrindularien mugikortasuna hobetzeko ekintzei dagokienez, 25,1 km-ko luzera duen sarea proposatzen da. Sare horrek lehendik zeuden 11,8 km-ak hartzen ditu, eta horiei beste 13,3 km gehituko litzaizkieke, bai eta 30eko eremuen sarea ere. Sare horretan, hainbat neurriren bidez, txirrindularien zirkulazioa erraztu daiteke, “ad hoc” bizikleta-bideak diseinatu gabe.

Proposamen berria Errenerriako hirigunean oinarritzen bada ere, inguruko beste udalerrri batzuekin, hala nola Pasaia, Lezo eta Oiartzunekin, koordinatutako eskualde eskeman integratzeko asmoa du. Gune horietako eta eskualdeko industrialdeetako gehienak Errenerriako hirigunetik 3-4 km baino gutxiagora daude eta, beraz, hiriko bizikletaren ekintza-erradioak erabat estaltzen dituen distantziak dira.

Bizikleta-bide mota egokiena proposatu da tarte bakoitzerako: Bizikleta-pista, Bizikleta-espaloia, Bidegorria galtzadan, Bidegorria kontrako alderako galtzadan, Bizikleta-banda, Bide mistoa, Bizikleta-kalea, Txirrindulari eta oinezkoentzako, Bizikleta-zidorra.

Gainera, bide-azpiegituz gain, bizikletaren erabilera sustatzeko neurri osagarri ugari proposatu dira (aparkalekuak, araudiak, publizitatea, ikaskuntza, etab.).

Horrela, mugikortasun jasagarria eta ez-motorduna bultzatu nahi dira Errenerriako hirigune barruan egiten diren joan-etorrietarako.

2.5.5.3 Errenerriaren jasangarritasunerako ekintza-plana 2018-2025

Errenerriako Udalak Errenerriako Jasangarritasunaren aldeko II. Ekintza Plana (2017-2025) egin du (aurrerantzean II. JEP), Errenerriako Jasangarritasunaren aldeko aurreko Ekintza Plana (2006-2011) berrikusteko fase gisa.

Horrekin batera, 2012. urtearen erdialdean, 2025eko Plan Estrategikoa egiten hasi zen Udala. Dokumentu hori 2015. urtearen amaieran onartu zen, eta udalerrirako ikuspegi eta helburu estrategiko orokorrak ezarri zituen.

Bestalde, 2015eko irailaren 24an, udalerrriak bat egin zuen Nazio Batuen Compact Of Mayors ekimenarekin, eta klima-aldaketari aurre egiteko tokiko ekintza bat bizkortu zuen, anbizio handiagokoa, lankidetzakoa eta jasagarria.

Esparru horretan, Udalsarea 21ek (Eusko Jaurlaritza) “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa” eta beste udal-plan batzuetan (Txirrindulari eta Oinezkoentzako Mugikortasun Plana, 2025 Plan Estrategikoa, Errenerria hobetzeko eta kontserbatzeko udal-estrategia, etab.) ezarritako jarraibideen arabera egin eta diseinatu da II. JEP.

Jasangarritasunaren aldeko Errenerriako II. Ekintza Planak (2017-2025) udalerrriaren ikuspegia, 13 ildo estrategiko, 45 programa eta ekintza-sorta bat (176 ekintza) biltzen ditu.

Errenerriaren 2025eko ikuspegia pertsona solidarioak eta dinamikoak bizi diren lurralde batena da. Pertsona horiek ikasi, berritu eta, beren baliabideetan oinarrituta, garapen sozial eta ekonomiko arduratsua bultzatzen dute, kalitatezko habitat batean. Bere bizi-kalitateari esker, pertsonak erakarri eta atxikitzen dituen hiria da (2025 Plan Estrategikoa).

Markatutako ildo estrategikoak jarraian zerrendatuko dira. Ingurumenari eta lurralde-plangintzari dagokienez, 2-7 ildoak azpimarratu behar dira. Ildo horietan, besteak beste, HAPO egiteko kontuan hartu beharreko irizpide batzuk ezarri dira:

1. Lurraldearen erabilera jasangarria bultzatzea, udalerriko bizi-kalitatea hobetzeko.
2. Natura-ingurunearen eta paisaiaren babesa eta kontserbazioa bultzatzea, hura osatzen duten elementuen kudeaketa aktiboaren bidez.
 - Oiertzun ibaiaren hiriko zatia ibai-parke gisa konfiguratzea, eta berezko orientazioa eta erakargarritasuna ematea.
 - Natura-ingurunearen babesa eta guneen arteko lotura hobetzea.
 - Tokiko biodibertsitatea babestea, haren kontserbazioa bultzatuz eta espezie inbaditzaileen inbasioa saihestuz.
 - Ingurumen-arloko komunikazioa eta sentsibilizazioa hobetzea.
3. Joan-etorriak modu jasangarrian egitea, ibilgailu pribatu motordunaren erabileraren kaltetan.
 - Oinezko eta bizikletazko joan-etorriak sustatzea.
 - Mugikortasun jasangarria sustatzeko komunikazioa eta kanpainak ezartzea.
 - Garraio publikoaren erabilera eta intermodalitatea sustatzea.
 - Merkataritza-jardueraren mugikortasun motorduna kudeatzea.
4. Kontsumo arduratsua sustatzea, baliabide naturalen erabilera eta kudeaketa eraginkorraren bidez.
 - Uraren kontsumo arrazionala errazteko neurriak ezartzen laguntzea.
 - Hornidura- eta saneamendu-sarea hobetu eta kontrolatzea.
 - Energia zentzuz kontsumitzeko eta murrizteko neurriak ezartzen laguntzea.
 - Energia berriztagarrien erabilera eta ezarpena areagotzea.
 - Hondakinen sorreraren prebentzioa eta murrizketa sustatzea.
 - Hondakinen bilketa hobetzea eta kontrolatzea, gaikako bilketa areagotzeko.
 - Hondakin-arloko komunikazioa eta sentsibilizazioa hobetzea.
5. Ingurumen-kalitatea hobetzea eta izan daitezkeen eraginak murriztea.
 - Airearen kalitate ona mantentzea eta bermatzea.
 - Udalerriko kutsadura akustikoa minimizatzea.
 - Hiribilduko lurren kalitate ona bermatzea.
6. Arriskuak saihesteko eta jarduera ekonomikoak behar bezala kudeatzeko behar diren neurriak sustatzea.
 - Ingurumen-arriskuak saihestea, arriskuak eta inpaktuak prebenitzeko eta murrizteko politiken bidez.
 - Sektore ekonomikoan ingurumenaren hobekuntza sustatzea.
7. Klima-aldaketa arintzeko tresnak eta baliabideak sustatzea eta ezartzea.
 - Klima-aldaketarekin lotutako udal-planen jarraipena eta urteko ebaluazioa egitea.
 - Klima-aldaketa arintzen lagunduko duten neurriak ezartzea.
8. Herritarren bizi-kalitatean eragina duten udal politika guztietan parte-hartzea, komunikazioa eta sentsibilizazioa sustatzea.
9. Barne-koordinazioa sustatzea, iraunkortasun-prozesuak zeharkakoak izan daitezen.
10. Bizitzarako garapen ekonomiko jasangarria sustatuko duten, enplegua sortuko duten eta ordaindu gabeko lanen banaketa sustatuko duten politikak bultzatzea.

11. Bizi-kalitate ona ahalbidetuko duen gizarte-eredua sustatzea.
12. Udalerriko aisialdi- eta hezkuntza-eskaintza zabaldu eta hobetzea.
13. Hiri adimentsua: smart Errenteria.

2.5.5.4 Errenteriako natura-ondarea eta biodibertsitatea hobetu eta kontserbatzeko udal-estrategiaren estrategia- eta ekintza-plana

“Errenteriako natura-ondarea eta biodibertsitatea hobetzeko eta kontserbatzeko udal-estrategia” eta “Errenteriako natura-ondarea eta biodibertsitatea hobetzeko eta kontserbatzeko udal-estrategiaren ekintza-plana” biak batera egin ziren 2013ko urtarrilean.

Honako hau da strategiak ezarritako helburu nagusia: *Errenteriako udalerrian biodibertsitatearen gainbehera eta ingurumen-zerbitzuen degradazioa geldiaraztea 2020rako, Europar Batasunaren helburuak bete daitezen.*

Hala, elkarren mendeko lau helburutan egituratuta dago Estrategia, elkarren artean indartzen diren eta 2020rako ezarritako helburu nagusiari erantzuten dioten lau helburutan. Hauek dira helburuak:

1. Aniztasun biologikoa galtzeko arrazoiak aztertzea, aniztasun biologikoa udalaren eta gizartearen eremu guztietan txertatuz.
2. Biodibertsitatea osatzen duten elementuen kontserbazio-egoera ona lortzea, habitatak, espezieak eta prozesu ekologikoak babestuz.
3. Biodibertsitate-zerbitzuek guztiontzat dituzten onurak handitzea.
4. Biodibertsitatearen gaineko zuzeneko presioak murriztea eta baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea.

Helburu horietako bakoitza hainbat ildo estrategikotan banatzen da, eta ildo horietako bakoitzak jakineko erronka bati erantzuten dion bere helburu espezifiko du.

1. HELBURUA: Aniztasun biologikoa galtzeko arrazoiak aztertzea, aniztasun biologikoa udalaren eta gizartearen eremu guztietan txertatuz.

Líneas estratégicas	Objetivos específicos
L.E.1. Integración de la conservación de la Biodiversidad en la política municipal	1.1. Integrar los objetivos y necesidades de conservación y mejora de la biodiversidad en las políticas municipales.
	1.2. Establecer mecanismos de coordinación e impulso de la conservación de la biodiversidad para asegurar la aplicación de las medidas necesarias.
L.E.2. Adecuada evaluación del desarrollo y ejecución de planes, programas o proyectos que afecten al término municipal	2.1. Mejorar la calidad ambiental de planes, programas y proyectos de aplicación en Errenteria en lo que respecta a la conservación de la biodiversidad.
	2.2. Mejorar la capacitación de los técnicos municipales sobre afecciones a la biodiversidad y su evaluación.
L.E.3. Utilización sostenible y ambientalmente responsable de los recursos naturales	3.1. Aplicar planes de sostenibilidad sectoriales de modo que la huella ecológica se reduzca hasta niveles ambiental y éticamente sostenibles.
L.E.4. Concienciación y divulgación del valor de la biodiversidad y de los pasos que pueden dar para su mejora, conservación y uso sostenible	4.1. Incrementar el nivel de conocimiento de la biodiversidad de Errenteria entre su ciudadanía.
	4.2. Fomentar la participación ciudadana en la conservación y mejora de la biodiversidad de Errenteria.
	4.3. Promover la divulgación y el acceso público a la información científica y técnica sobre la biodiversidad de Errenteria.

2. HELBURUA: Biodibertsitatea osatzen duten elementuen kontserbazio-egoera ona lortzea, habitatak, espezieak eta prozesu ekologikoak babestuz.

Líneas estratégicas	Objetivos específicos
L.E.5. Establecimiento de un marco de gestión activo y eficaz para la conservación de la biodiversidad de los espacios naturales protegidos del municipio (ZEC y PN de Aiako Harria)	5.1. Elaborar, aprobar y aplicar adecuadamente los planes de gestión y medidas de conservación correspondientes en los espacios naturales protegidos del municipio.
L.E.6. Administración proactiva y eficaz de las Areas de Especial Protección incluidas en el Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria, garantizando su protección	6.1. Desarrollar y consolidar un sistema municipal de áreas importantes para la biodiversidad.
L.E.7. Mejora y mantenimiento de la coherencia y funcionalidad ecológica de las áreas municipales de interés para la biodiversidad	7.1. Mejorar la estabilidad ecológica y funcional del conjunto de áreas protegidas de Errenteria.
L.E.8. Alcance y mantenimiento de un estado favorable de conservación de los hábitats naturales de Errenteria	8.1. Proteger adecuadamente los hábitats de cuya conservación Errenteria es particularmente responsable.
	8.2. Aplicar una gestión orientada a la mejora ecológica de los hábitats de cuya conservación Errenteria es particularmente responsable.
	8.3. Incrementar la superficie de bosques autóctonos, mejorando su funcionalidad ecológica.
L.E.9. Alcance y mantenimiento de un estado favorable de conservación de las especies de interés de Errenteria	9.1. Mejorar la planificación de la gestión de las poblaciones de especies amenazadas a escala regional.
	9.2. Aplicar una gestión orientada a la mejora del estado de conservación de las especies amenazadas de la CAPV en Errenteria.
L.E.10. Obtención del conocimiento necesario para una adecuada gestión de la conservación de la biodiversidad de Errenteria	10.1. Mejorar los conocimientos sobre la biodiversidad de Errenteria, incluyendo especies, hábitats y procesos ecológicos.
	10.2. Establecer relaciones eficaces de colaboración y coordinación entre el Ayuntamiento de Errenteria y entidades que investigan sobre biodiversidad.

3. HELBURUA: Biodibertsitate-zerbitzuek guztiontzat dituzten onurak handitzea.

Líneas estratégicas	Objetivos específicos
L.E.11. Integración de la conservación de la biodiversidad en los instrumentos de planificación urbana existentes	11.1. Mejorar la capacidad para proteger y mejorar la biodiversidad urbana en planificación, edificación y rehabilitación.
L.E.12. Favorecer a la biodiversidad en el Sistema de Espacios Libres de Errentería y facilitar su disfrute por parte de la ciudadanía	12.1. Adecuar la gestión de las zonas verdes y parques municipales, para incrementar su valor para la biodiversidad.
	12.2. Mantener y mejorar los actuales valores naturales existentes en el Sistema de Espacios Libres de Errentería.
	12.3. Facilitar el acceso de la ciudadanía a las zonas verdes urbanas y optimizar su capacidad para la educación y sensibilización ambiental.
L.E.13. Mejorar la funcionalidad ecológica de los espacios y hábitats degradados	13.1. Recuperar las áreas degradadas urbanas y periurbanas con potencial para la mejora de la funcionalidad ecológica y la conservación de la biodiversidad.
	13.2. Recuperar la funcionalidad ecológica del tramo del río Oiartzun que discurre por Errentería.
L.E.14. Mejorar la estabilidad ecológica y funcional del término municipal de Errentería	14.1. Eliminar las principales deficiencias que limitan o reducen la conectividad ecológica en Errentería.
	14.2. Mejorar la funcionalidad ecológica de los sistemas fluviales de Errentería, manteniendo una representación suficiente y en buen estado de conservación de los ecosistemas fluviales.

4. HELBURUA: Biodibertsitatearen gaineko zuzeneko presioak murriztea eta baliabide naturalen erabilera jasagarria sustatzea.

Líneas estratégicas	Objetivos específicos
L.E.15. Apoyo de modelos y prácticas agroforestales y forestales compatibles con la conservación y mejora de la biodiversidad	15.1. Fomentar la adopción de prácticas agroforestales y forestales compatibles con la mejora y conservación de la biodiversidad.
	15.2. Reducir los impactos negativos de la actividad agroforestal y forestal sobre la biodiversidad y promover los positivos.
L.E.16. Mitigación y compensación de los impactos negativos graves sobre la biodiversidad	16.1. Identificar los programas de ayudas públicas perjudiciales para la biodiversidad y reformarlos o eliminarlos gradualmente e introducir de manera efectiva incentivos positivos.
	16.2. Aplicar el principio de la responsabilidad ambiental para mitigar o compensar los impactos negativos sobre la biodiversidad.
	16.3. Mejorar el control sobre el terreno de las actividades autorizadas y sus condicionantes relativos a la biodiversidad.
L.E.17. Reducción del impacto sobre la biodiversidad de las especies exóticas invasoras	17.1. Desarrollar medidas activas para eliminar y/o controlar las especies exóticas invasoras presentes en el municipio.

Helburu zehatz bakoitzaren ondoriozko jarduketa zehatzak Errenteriako Biodibertsitate Estrategiaren Ekintza Planean jaso dira. Ekintza Planeko ekintzak dagozkien fitxen bidez garatzen dira. Fitxa horietan, aplikazio-irizpideei, kostu zenbatetsiari, lehenetsunari, maiztasunari, epeari, arduradunari eta abarri buruzko informazioa ematen da.

Plan hori 113 ekintzak osatzen dute, eta % 54,86 lehenetsunezkoak dira. Babestutako naturaguneen kudeaketarekin eta sustapenarekin, konektibitate ekologikoarekin, habitat naturalen kontserbazio-egoerarekin eta ibaien funtzionaltasun ekologikoarekin zerikusia dutenak nabarmentzen dira.

Ekintza Planean planteatutako jarduketan artean, Planak proposamen estrategiko hauek garatzen ditu, banan-banan eta xehatuta:

- **Babes Bereziko Eremuen** erabilera- eta jarduera-araubidea mugatzeko eta arauak eta erregulazioak garatzeko proposamena:
 - a) **Babeseko baso-eremuak:**
 - **Babes Zorrotzeko Baso Eremuak**: titulartasun publikoko eremuak dira.
 - Añarbeko herri-lurreko pagadiak ‘Epifitotan aberatsak diren *Ilex* eta *Taxus*-ekin (*Ilici-Fagion*)’
 - Añarbeko herri-lurreko haritz kanduduneko hariztiak
 - Aizpitarteko baso mistoa eta haren indargetze-eremu periferikoa
 - Txoritokietako baso mistoa eta haren indargetze-eremu periferikoa
 - **Baso Eremu Babestuak**: titulartasun pribatuko eremuak.
 - Antxulo errekaen arroako zuhaitzi autoktonoak.
 - b) **Aiako Harria - Lau Haizeta Eskualdeko Korridore Ekologikoa**: Aiako Harria Parke Naturalaren (Natura 2000 Sarea) eta Lau Haizeta Parkearen artean, baso-eremu babestuen sarea barne hartuz.
 - c) **Paisaiaren ikuspegitik interes handia duten eremuak:**
 - Añarbeko zirkua
 - Igoin-Akolako estazio megalitikoak
 - San Markos mendiaren mendi-hegalak
 - Txoritokieta mendiaren mendi-hegalak
 - Aizpitarte mendiaren gailurra eta mendi-hegalak
 - Aldura mendiaren gailurra eta mendi-hegalak
 - Urdaburu mendiaren gailurra eta mendi-hegalak
 - Zaria mendiaren gailurra eta mendi-hegalak
 - d) **Dolinak:**
 - Eguzkibordako dolina
 - Arkiriko dolina
 - Aitzondoko dolina
 - Ondartxuloko dolina
 - e) **Paisaia Babestuak:**
 - 07. eremua: Alaberga
 - Atlasko zedroa (*Cedrus atlantica*)
 - Zumarra (*Ulmus minor*)
 - Haritz kandudunen multzoa (*Quercus robur*)
 - 09. eremua: Galtzaraborda-Ekialdea
 - Magnolia (*Magnolia glandiflora* “*Ferruginea*”)
 - Magnolia (*Magnolia glandiflora* “*Lanceolata*”)
 - 10. eremua: Galtzaraborda Mendebaldea
 - Idi-bihotz arbola (*Liriodendron tulipifera*)
 - 14. eremua: Erdigunea
 - Zumarra (*Ulmus minor* “*Pendula*”)
 - Altzifrea (*Cupressus sempervirens*)

20. eremua: Gabierrota

- Platano arrunta (*Platanus hispanica*)
- Platano arrunta (*Platanus hispanica*)
- Xarma (*Carpinus betulus*)
- Xarma (*Carpinus betulus*)

22. eremua: Agustinak

- Himalaiako zedroen multzoa (*Cedrus deodara*)
- Atlasko zedroen multzoa (*Cedrus atlantica*)
- Zumarra (*Ulmus minor*)
- Platano arrunta (*Platanus hispanica*)

37. eremua: Fanderia

- Magnolia (*Magnolia glandiflora*)


39. sektorea: Larzabal

- Pago gorria (*Fagus sylvatica* "Purpurea")
- Pago gorria (*Fagus sylvatica* "Purpurea")


Sektorea: Añabitarte

- Belabaratzeko haritz kanduduna (*Quercus robur*)


- **Añarbeko Erreserba** izendatzea: Añarbeko herri-basoa Aiako Harria Parke Naturaleko Erreserba Eremu izendatzea.
- Errenteriako Udalak lurzatiak **zaindu** edo eskuratzeko akordioak ezartzeko lehentasunezko proposamena:
- **Arramendi Parkeko** biodibertsitatea hobetzeko eta ugaltzeko jarduerak proposatzea (landaketak egitea eta zuhaiztiak sortzea, eremu batzuk jendearentzako ixtea, etab.).
- **Lau Haizeta parkea** mugatzea eta berrikustea.




21. irudia. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estrategian proposatutako babeseko baso-eremuak.



22. irudia. Aiako Harria-Lau Haizeta korridorea, Errenteriako Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estrategian proposatutakoa.



23. irudia. Errenteriako Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estrategian proposatutako paisaia-intereseko eremuak.



24. irudia. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estrategian proposatutako Añarbeko Baso Erreserba.

2.6 INGURUMENA BABESTEKO HELBURUAK

2.6.1 Garapen Jasangarriko Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020⁵

2002an onetsitako Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak 5 ingurumen-xede finkatu ditu, EAEn 2020an lortu behar direnak:

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. Natura-baliabideak eta hondakinak egoki kudeatzea.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea: indartu beharreko balio bakarra.
4. Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
5. Klima-aldaketaren eragina murriztea.

4. xedeak lotura zuzena du hirigintza-plangintzarekin. Xede horren barruan, honako helburu hauek planteatzen dira:

1. helburua: Lurraldearen erabilera jasangarria lortzea. Helburu hori alderdi hauetan zehazten da: hiri finkatua berritzea eta birgaitzea; bizi-kalitatea eta hiriguneen diseinu erakargarriaren hobekuntza sustatzea; hiri-plangintza lurralde-antolamenduko tresnetan jasotako helburuetara eta jasangarritasun-irizpideetara egokitzea.

2. helburua: Hainbat erabilera eta jardueratarako (bizitegitarako, jarduera ekonomikoetarako eta aisialdirako) garapen jasangarria ahalbidetuko duen irisgarritasuna lortzea. Mugikortasun-premiak murriztu nahi dira, ibilgailu motordunen eskaera handitzea eragiten duten hirigintza-jarduerak eta -erabilerak ez erraztuz.

3. helburua: Ekonomiaren hazkundearen eta bitarteko motordunen garraio-eskariaren hazkundearen arteko erlazioa etetea. Ingurumenean eragin txikiena duten garraio-bideak sustatu nahi dira, eta garraio ez-motordunak garraio motordunekin parekatu.


2.6.2 EAEko Ingurumeneko Esparru Programa⁶

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorreko 6. artikuluan xedatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa (IEP) batean jasoko dela, ingurumen-organoak lau urtean behin egingo duen programan.

Gaur egun, indarrean dago IV. IEP. 2020 du epemugatzat eta Euskadik aurrean dituen erronkak deskribatzen ditu. 2020rako helburuak eta jarduera nagusiak ere finkatuta ditu Euskal Herriko kapital naturala babesteko, kontserbatzeko eta lehengoratzeko.

⁵ Garapen Jasangarria. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritzza.

⁶ Garapen Jasangarria. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritzza.



Aurreko irudiak esparru estrategikoko 6 ingurumen-erronkak aurkezten ditu. Horietatik sortzen dira 6 helburu estrategikoak (4 lehenak ingurumen-garapen jasangarriaren aldekoak eta 2 azkenak gobernantza-sistemarekin lotutakoak). 6 helburu horiek 2020rako lehentasunezko zatik jo diren 75 jarduketatan zabaldu dira.

1. helburua: *“Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz”,* 2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistemen narriadura geldiaraztea da. Aurerapenak aurrerapen, ekosistema asko narriatuta daude edo modu jasangarrian ari dira erabiltzen. Horren arrazoia, besteak beste, lurzoruaren artikulazio-maila handia dela uste da, azken urte hauetan erritmoa moteldu egin den arren.

Gure kapital naturala babestu, kontserbatu eta lehengoratzeko, 2020ko IEPrek ekintza estrategikoak honako jarduera-ildo hauek ditu ardatz:

- 1.1. *Natura-ingurunearen kontserbazioa eraginkortasunez integratzea arloko politketan.*
- 1.2. *Ekosistemen eta horien zerbitzuen galera mugatzea.*
- 1.3. *Lurzoruaren okupazioa geldiaraztea, erabilerak nahastea eta espazio narriatuak berroneratzea eta berrerabiltzea sustatuz.*

1.4. Euskal Autonomia Erkidegoko kapital naturalaren kudeaketan tresna ekonomikoak sartzea.

1.5. Lurraldean diharduten eragileak ekosistemen zerbitzuen garrantziaz konprometitzea eta sentsibilizatzea.

Horien artean, HAPOren helburuekin duen loturagatik, 1.3 jarduketa-ildoak azpimarratu behar da, lurzorua okupatzeari buruzkoa eta jarduketa hauetan banatzen dena:

- *Lurralde-antolamendu adimentsu bat ezartzen laguntzea, biztanle-dentsitate handiagoak lehenetsiko dituen eta erabileren konbinazioa (lana, aisia, etxebizitza) eta lurzoruaren kontsumoaren optimizazioa indartuko dituen, lurzoruaren berrerabilera eta berroneratzea lehenetsiz.*
- *Zona narriatuak zaharberritzeko orduan zerbitzu ekosistemikoak sustatzea.*
- *Gure lurralde antolamenduko gidalerroetan azpiegitura berdeen kontzeptua txertatzea.*

2.6.3 Klima Aldaketaren Aurkako 2050erako EAEko Estrategia

2013. urtean, Klima Aldaketaren Aurkako EAEko 2008-2012 plana amaitu eta ebaluatu ondoren, estrategia hori egiten hasi ziren, emisioak gutxitzeko eta klima-aldaketara egokitzeko ibilbide-orria zehazteko.

Estrategiak 2050. urterako Euskadiren Ikuspegia definitzen du, bost premisatan oinarrituta, eta horren aplikazioak aukera emango du ezarritako helburuak lortzeko. Klima-aldaketaren aurkako ekintza arintzearen eta egokitzearen ikuspegitik lantzen denez, Estrategiak finkatzen dituen helburuak bi alderdi horietan oinarritzen dira, eta bere zeharkakotasuna dela eta, 2050erako sektore-helburuetan banatzen dira. Helburu horietan aurrera egiteko, hurrengo hamarkadetan garatu beharreko ekintzak bideratzen dituzten jarduera-ildoak zehazten ditu Estrategiak.

Europa erreferentzia iraunkortzat hartuta, Euskadik BEGen isurtzeak 2030erako gutxienez % 40 murrizteko helburua zehaztu du Estrategian, eta 2050erako gutxienez % 80 murrizteko helburua, hori guztia 2005. urtearekiko. Horrenbestez, BEGen isurtzeak murrizteko helburuekin batera, sektoreak energia-kontsumo eraginkorrago baterantz aldatuko dira, eta energia berriztagarrien kuota, gutxienez, % 40koa izango da azken energia-kontsumoan. Horrekin batera, sektore kontsumitzaileen elektrifikaziorantz pixkanakako transformazioa gauzatuko da. Beraz, Euskadik 2050erako ezarri du azken kontsumoaren % 40 energia berriztagarriaren bidez kontsumitzeko helburua.

Aldi berean, beharrezko egitura-aldaketak lurralde- eta hiri-plangintzan aldaketak egitea ere aurreikusten du, mugikortasun-premia gutxiago dituzten eredu tarantz eta isurtze gutxi edo batera ez duten garraiobideen behar adinako eskaintza izateko.

Egokitzapenerako Europako Estrategiaren ildotik eta klima-aldaketak Euskadin izango dituen eraginaren ildotik, Euskal Estrategiaren helburua da euskal lurraldeak klima-aldaketarekiko erresilientzia bermatzea. Helburu hori lortzeko, udalerrian nahiz eskualdean hartu beharko diren berariazko xede eta jarduera-ildoak planteatzen dira.

Helburu aringarri gisa zehaztutakoak lortzeko, hala nola egokitzapenekoak eta berriztagarriak, 9 xede eta 24 jarduera-ildo definitu dira.

Ildo horretatik, "Udalsarea 21" Tokiko Agenda 21ak Koordinatzeko Foroak hainbat gida egin ditu klima-aldaketari buruzko tokiko estrategia, programa eta jarduerari buruz:

- 1.- '8. Udalsarea 21: Klima-aldaketaren aurkako tokiko estrategiak abian jartzeko gida' izeneko lan-koadernoa. Lan-koadernoko I. eranskinean tokiko jarduerak proposatzen dira sektore bakoitzean, eta II. eranskinean, berriz, klima-aldaketaren aurkako udal-ordenantzaren eredia.
- 2.- '12. Udalsarea 21: Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida' izeneko lan-koadernoa.

3 INGURUMENAREN INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA, -ANALISIA ETA -BALORAZIOA

Kapitulu honetan, Errenteriako ingurune fisiko eta sozialaren ebaluazio xehatua jasotzen da.

3.1 PLANAREN ETA KOKAPENAREN JARDUERA-EREMUA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren jarduera-eremua Errenteriako udal-mugarte osoa da.


Udalerria Donostialdea eskualdearen ekialdean dago, Gipuzkoako lurralde historikoaren ipar-ekialdean. 32 km² inguruko azalera du, hau da, Gipuzkoako azaleraren % 1,6.

Muga hauek ditu: iparraldean, Lezoko udalerria eta Pasaia badiak; ipar-mendebaldean, Pasaia; mendebaldean, Donostiako Altza auzoa, Astigarraga eta Hernani; hegoaldean eta hego-ekialdean, Nafarroako Arano eta Goizueta herriak; eta ekialdean, Oiartzun.

Udal-mugartearen iparraldean dagoen haran zabala Pasaia badiaren dago eta hiri-, bizitegi- eta industria-kokagune nagusiak hartzen ditu, baita errepide- eta trenbide-azpiegitura garrantzitsuak ere. Udalerraren erdialdea eta hegoaldea landa-eremu bati dagozkie. Eremu horretan, San Markos, Txoritokieta, Aldura, Urdaburu eta Zaria gailurrak nabarmentzen dira. Azken hori da udalerriko puntu garaiena, itsasoaren mailatik 630 metroko altuerarekin.

Lurraldearen zenbait alderdi giltzarritzat har daitezke Errenteriako ezaugarriak dagokienez, hala nola, portua izatea udalerriko itsas fatxadan, komunikazio-azpiegituren garrantzia (AP-8, Donostiako saihesbidea, lehendik zeuden trenbide-sareak, etab.), hiriguneak Pasaia, Lezo eta Oiartzungo hiri-eremuekin duen jarraitutasuna, landazabaleko eremu zabalak kontserbatzea, edo udalerraren hegoaldean natura-balio handiko eremuak egotea, hala nola Aiako Harria edo Añarbeko ingurunea eremu babestuak.

1.1: Kokapena planoan Errenteria udalerriak Donostialdea-Bidasoa Beherea eremu funtzionalaren esparruan duen kokapena erakusten du.



25. irudia. Erreterriako udalerrriaren kokapena.

3.2 INGURUNE FISIKOA

3.2.1 Orografia⁷

Ikuspegi morfoestruturalatik, bi giro desberdin bereiz daitezke:

- Haranaren hondoa, Oiartzun ibaiaren ibarrak eratutakoa eta bizitegi-eremu hiritarrak eta industrialdeak hartzen dituena;
- Lurraldearen gainerako zatiari dagokionez, ibaiaren modelatze-lanak erliebe menditsua sortu du, malda handikoa eta, oro har, basoek okupatutakoa; ibaiarteetan eta topografia hobeko zenbait lekutan, larre eta labore atlantikoak daude, baserriko jarduerari lotutakoak.

Udalerriaren iparraldean mendi-hegal leunak eta haranaren hondoa daude, oro har, % 50etik beherako maldekin. Udalerriaren hegoaldean eta erdialdean, bestalde, desnibel handiak daude eta erliebe menditsua osatzen dute, % 50etik gorako maldak nagusitzen baitira. Horrek eragina du zenbait nekazaritza-jarduera higadura-arrisku handirik gabe hartzeko gaitasunean. Maldarik handienak, % 75etik gorakoak, udalerriaren hegoaldean eta erdialdean sakabanatuta daude.

Udalerriaren orografia hobeto ulertzeko, azalera lurzoruaren maldaren arabera sailkatu da eta lurraldearen azalera malda-mailen arabera kalkulatu da.

⁷ Geoeuskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Espazialen azpiegitura.


7. taula. Azalera maldak-mailen arabera

Malda-maila	Azalera (ha)	Udal-mugartearen ehunekoa (%)
<% 10	315,2	% 9,8
% 10-20	308,1	% 9,6
% 20-30	358,6	% 11,2
% 30-50	846,6	% 26,4
% 50-75	1031,4	% 32,2
>% 75	343,9	% 10,7

I.2: **Maldak** planoan udal-mugarteko malden banaketa jaso da.


Kota altuena, itsas-mailatik 630 m-koa, Zaria mendiaren gailurrari dagokio, eta udal-mugarteko hego-ekialdeko muturrean dago. Udalerriaren mutur horretan daude kota altuenak, hain zuzen ere Aiako Harriaren mendilerroan.

Kotarik baxuena ibarraren hondoari dagokio. Oiartzun ibaian dago, udal-mugartearen iparraldeko muturrean, Pasaiaiko Badiaren muga, Oiartzun ibaia itsasoratzen den tokian.



26. irudia. Errenteria udalerriko maldak.

Malda txikiagoko lurak ez dira ugariak Errenteriako udalerrian, gehienbat haran-hondoetara mugatzen baitira (udalerrriaren iparraldean). Eremu horretan daude hiritar eta urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruak.



27. irudia. Herrigunearen inguruko maldak eta komunikazio-azpiegiturak Errenteriako iparraldean.

3.2.2 Ezaugarri geologikoak⁸⁹

Euskal Herriko Mapa Geologikoaren arabera (EEE), Errenteria udalerria Donostiako Unitatean dago, eusko-kantauriar katearen barruan. Udalerrriaren iparraldea Donostiako Unitateko Ereñozu blokekoa da, EAeko unitaterik zaharrena, batez ere Bortzirietako mendiguneko material paleozoikoz (karbonifero-devoniarra) osatua baitago.

Material litologiko hauek osatzen dute azterketa-eremua:

8. taula. Errenteria udalerriko formazio litologikoak.

Unitate litologikoak	Iragazkortasuna	Azalera (ha)	Udal-ehunekoa
Arbelak, graubakak eta konglomeratuak	baxua porositategatik	1.446,3	45,96
Kareharri hareatsu edo hareharri karedunen eta tupa edo lutita karbonatuen txandakatzea	ertaina pitzaduragatik	589,8	18,74
Tupa gris eskistosoak. Kareharri-mailak.	baxua pitzaduragatik	410,0	13,03
Arbelak	ertaina pitzaduragatik	283,9	9,02
Hareharri silizeo lokalki estratifikatuak, edo konglomeratikoak edo ferruginosoak. Lutita-iraganaldiak.	ertaina porositategatik	140,2	4,46
Jalkin alubialak, alubial-kolubialak	ertaina porositategatik	90,4	2,87
Kareharri gris edo gorriak, kalkarenita bioklastikoak eta/edo hareatsuak. Kareharriko olistolitoak.	altua pitzaduragatik	79,2	2,52

⁸ Euskal Herriko Mapa Geologikoa (1:200.000), 1991. Energiaren Euskal Erakundea (EEE).


⁹ Geoeuskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Espazialen azpiegitura (Litologia, Geomorfologia, Interes geologikoko lekuak).

Unitate litologikoak	Iragazkortasuna	Azalera (ha)	Udal-ehunekoa
Lutita gorriak eta aldagarriak	Iragazgaitza	29,8	0,95
Tuparri-kareharriak eta tuparriak, grisak edo gorriak Kareharriak	baxua pitzaduragatik	21,8	0,69
Megabretxa poligenikoak: hareharri-bretxak, tuparriak, tuparri-kareharriak eta lutitak. Megaturbiditak.	altua porositateagatik	21,5	0,68
Hareharri, buztin eta konglomeratu gorri edo berdeak	baxua porositateagatik	17,2	0,55
Konglomeratu silizeoak	altua porositateagatik	12,0	0,38
Faila-bretxak	altua porositateagatik	2,5	0,08
Kareharrizko edo hareharrizko olistolitoak	altua pitzaduragatik	0,8	0,03
Tuparriak, tuparri-kareharriak eta kareharri hareatsuak (tarte hemipelagitikoak)	baxua pitzaduragatik	0,7	0,02
Kareharri beltz estratifikatuak	altua pitzaduragatik	0,4	0,01
Tuparriak eta tuparri-kareharriak, grisak edo beste batzuk. Oso leku jakinetan, slumpak edo kareharrizko hareharriak	baxua pitzaduragatik	0,3	0,01
Ofitak	Iragazgaitza	0,3	0,01

Errenteriako unitate litologiko nagusia arbel, graubaka eta konglomeratuen formazioa da. Hegoaldeko eta erdialdeko zatirik handiena eta udalerraren azaleraren % 46 hartzen dute.

Iparraldean, malda leuneko mendi-hegalak eta haran-hondoak daude, eta kareharri hareatsuak edo hareharri karetsuak eta tuparriak edo lutita karbonatatuak tartekatzen dira, Errenteriaren azaleraren % 19 hartuz.

Bi unitate litologikoen artean tupa gris eskistosoak osatutako eremua dago.



28. irudia. Formazio litologikoak eta interes geologikoko guneak..

Interes geologikoko hainbat gune edo eremu identifikatu dira, guztiak interes zientifiko-didaktikokoak eta balio ertainekoak, Donostia-Irun sakonunea izan ezik, interes txikikoa baita.

Kodea	Izena	Interesa	Interes-maila	Oharrak
205	Pasaiako itsasadarraren bokalea eta portua	Ertaina	Eskualdekoa	Aritxulegiko faila-eremuaren aldera garatutako itsasadarra. Gune horretan, Jaizkibel formazioari (Behe Eozenoko turbiditak) eta Goi Kretazeoko turbiditari eragiten die. Faktore horiek garrantzi bereziko ainguratoki natural bat osatzen dute.
674	Txoritokietako higadura-diskordantzia	Ertaina	Eskualdekoa	64-II-21 harrobian (Txoritokieta) Behe Kretazeoko oinarriko kareharrizko flysch formazioko tuparri eta tuparri-kareharrizko jalkinak ikus daitezke, hiato garrantzitsuak markatzen.
700	Urumeako meandro formako harana	Ertaina	Eskualdekoa	Urumeak sortutako ibai-arroila, material paleozoikoen gainean bihurgune handiko bidea egiten duena.
214	Donostia-Irun sakonunea	Txikia	Eskualdekoa	Sakonune litologiko-estruturala da, E-M norabidekoa. Goi Kretazeoko tuparri-kareharri eta tuparri grisen aldera garatu da eta aldamenetan Jaizkibel formazioa eta Goi Kretazeoko turbiditak daude, iparraldean eta hegoaldean, hurrenez hurren.

Eremu horietako bakar bat ere ez da sartu EAEko Interes Geologikoko Lekuen zerrendan.

3.2.3 Edafologia eta gaitasun agrologikoa

Litologia, orografia, klima eta antzeko agenteek baldintzatzen dituzte udalerrian banatutako lurzoruetak.


Erreterian nagusi diren lurzoru motak kanbisolak dira, erabilera handia, ertaina edo txikia dutenak, malda txikiagoa edo handiagoa duten lurretan egotearen arabera. Kanbisolak klima epel hezeko lurzoru tipikoak dira. Gainazal azpiko horizonte kanbikoa dute, eta haren ezaugarri nagusia da horizontea zertxobait aldatuta dagoela, egitura zatikatua eta kolore biziagokoa dela eta arroka amak baino buztin gehiago duela. Dezente garatutako lurzoruak dira. Detritiko txandakatuen gainean sortzen dira: lutitak, hareharriak eta limolitak proportzio desberdinetan. Buztina metatzeko hasierako prozesuko lurzoru gazteak dira, eta nekazaritzarako erabilera ugari ematen dituzte. Malda handiko eremuetan baso-erabilera baino ez du. Bere muga nagusiak topografiari, lodiera txikiari, izaera harritsuari edo base-eduki txikikoari lotuta daude.

Luvisolak kareharri-formazioen gainean udalerrian sakabanatutako orbanetan identifikatu dira. Goiko geruzetan buztin-garbiketa dute, eta beheko geruzetan metatzen dira.

Udalerrian azalera txikia duten beste lurzoru-mota batzuk litosolak dira. Eskeletikoak dira, eta San Markosen inguruan kareharrizko arroka-azaleratzeen artean garatutakoak.

9. taula. Erreterriako lurzoru-motak..

Lurzoru-motak	Azalera (ha)	Udalerriko ehunekoa (%)
Kanbisol distrikoa	2505,48	78,25
Lurzorurik gabe	244,54	7,64
Kanbisol humikoa	222,50	6,95
Luvisol ortikoa	96,75	3,02
Kanbisol gleikoa	61,78	1,93
Urtegia	40,97	1,28
Litosola	16,37	0,51
Ibilgua	11,78	0,37
Kanbisol kromikoa	1,86	0,06



29. irudia. Errenterriako lurzoru-motak..

Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen arabera (GFA, 1988), udalerrriaren azalera handiena beren aprobetxamendua baso-erabilerara mugatzen duten murrizketa handiko lurri dagokie (VII. mota). Errenterriako hirigunea udalerrriaren iparraldean dago eta, eremu horretan, lurzoruak, oro har, balio agronomiko oso txikia edo batere balio ez duten eremuei dagozkie, eta kontserbazio edo paisaia-erabilerara mugatzen dira. (VIII. mota).

Azalera txikiagoan, hirigunearen hegoaldean eta lurraldearen erdialdeko eremu sakabanatuetan, lurrak muino txiki eta < % 20ko maldako hegaletan daude, laneko lurren mugan (IV. mota). Baita muga larriak dituzten lurrak ere, landaredi iraunkorra, belarkara edo egurtsua mantentzera mugatu behar dutenak (VI. mota).

Udalerrian, alubial zabaletan ere agertzen dira lurrak, muga agronomiko gutxi dituztenak (II. mota), eta baita alubial estuetan eta malda txikiko mendi-hegaletan ere (III. mota).





Figura 5. 30. irudia. Errenteriako mota agrologikoak.

EAEko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurraldearen Arloko Planak (2014ko urriko behin betiko onespena) 78,32 ha hartzen ditu 'nekazaritza eta abeltzaintza: Balio Estrategiko Handia' kategorian: Azalera hori malda txikiko metaketa-hegaletan banatuta dago, AP-1 bide-azpiegituraren inguruan, Astigarragako udalerriarekiko mugan, Zamalbidea eta San Markos auzoen inguruan.



31. irudia. Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko Balio Estrategiko Handiko eremuak.

1.3: Gaitasun agrolotikoa planoan erakusten dira mota agrolotikoak eta balio estratetikoko handiko eremuak.

3.2.4 Hidrologia

3.2.4.1 Sare hidrografikoa

Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera, Errenterriako udal-mugartea Planaren aplikazio-eremuaren barruan dago.

Errenterriako udalerrria bitan banatuta dago: alde batetik, Oiantzungo Unitate Hidrologikoa (Oiantzungo UH), iparraldean eta, bestetik, Urumeako Unitate Hidrologikoa (Urumeako UH), udalerrriaren hegoaldean, Kantauriko Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan biak.


Oiantzungo UHk 1.930,5 hektareako azalera du, Errenterriako lurraldearen % 60. Oiantzungo UHaren barruan Oiantzungo arroa dago, hainbat azpiarrotan banatua. Oiantzungo UHko azpiarro adierazgarrienak Sarobe (% 37,97) eta Oiantzungo trantsizio-drainatzea (% 19,17) dira.

Urumeako UHk lurraldearen % 40 hartzen du, eta Errenterriako udalerrian 1.273,5 hektareako azalera du. Añarbeko, Urumeako eta Europar Batasunaren barruko Urumeako arroek osatzen dute. Añarbe arroa lurraldeko handiena da, azalaren % 30,27 hartzen baitu.

10. taula. Errenterriako unitate hidrologikoak, arroak eta azpiarroak.

Udalerriaren hegoaldeko muturrean Añarbeko urtegia dago, Aiako Harriaren hegoaldeko isurialdeko mendi-hegaletan barrena igarotzen diren hainbat errekatako urak biltzen dituena, besteak beste, Suerrin, Lats, Martindegi, Malbazar, Arrizabal eta Mandabide.

Añarbeko presako ura Errenteriako udalerrriaren hego-mendebaldeko mugan igarotzen den Urumea ibaira joaten da.



33. irudia. Errenteriako sare hidrografikoa.

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezarritako zatiketaren arabera, Oiartzun ibaiak 50 eta 100 km² (II. maila) arteko arroa du Errenterian. Urumea ibaiak, udalerrriaren hego-mendebaldeko mugan barrena doan tartean, 100 eta 200 km² arteko arroa du (III. maila). Udalerriko gainerako errekek 1 eta 10 km² arteko arroa dute (0 maila) edo 1 km² baino txikiagoa (00 maila).

Sare hidrografikoa **I.4: Hidrologia** planoan irudikatu da.

3.2.4.2 Uren kalitatea^{10,11,12,13}

Uraren Euskal Agentziaren (URA) EAEko uren egoeraren jarraipena egiteko sareak bi kontrol-estazio ditu Oiartzun-A ur-masan. Horietako bat, OIA102 Erreterria (Behe Oiartzun), udalerrriaren ekialdeko mugan dago, Talaia Aranguren industrialdean.

Azken txostenek emandako datuen arabera, Oiartzun-A ur-masak, OIA102 Erreterria estazioan ez du egoera kimiko ona, biotako merkurioari dagozkion Ingurumen Kalitatearen Arauak gainditzen baititu. Masak egoera ekologiko txarra zuen 2018an, eta neurritsua da 2014-2018 bosturtekoan. Fitobentoek eragindako ingurumen-helburu biologikoak ez dira betetzen, eta azken urteetan ez dira hain nabarmenak izan (espezie mesotrofiko eta eutrofikoen nagusitasuna). Beraz, Oiartzun-A ur-masaren egoera orokorra ona baino okerragoa da.

Urumea II ur masak kontrol-estazio bat du Hernanin, Erreterriako mugatik 1 km-ra, hain zuzen ere URU288 Pagoaga. Eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera (2018. urtea), Urumea II masa (URU288) egoera kimiko eta ekologiko onean zegoen, bai 2018an, bai 2014-2018 aldian. Hala, ur-masaren egoera orokorra ona da.

11. taula. Oiartzun – A eta Urumea II masen uren kalitatearen egoera ekologikoa 2018.ko kanpaina

Adierazlea	Oiartzun- A (OIA102)	Urumea II (URU288)
Makroornogabeak	Moderatua	Oso ona
Fitobentoak	Eskasa	Ona
Arrain-fauna	Ona	Oso ona
Egoera biologikoa	Eskasa	Ona
Fisikokimikoa	< Ona	Ona
Hidromorfologia	Ebaluatu gabe	Ebaluatu gabe
Egoera ekologikoa	Eskasa	Ona

Gainera, Pasaiaiko Badian, E-OI10 Lezo estazioa dago, Oiartzun trantsizioko ur-masakoa. Oiartzunen trantsizioko ur-masa asko aldatu da 2018ko kanpaina, eta egoera ona baino okerragoa dela diagnostikatu da; potentzial ekologikoa ertaina dela uste da, batez ere makroornogabeengatik eta fitoplanktonagatik. Ingurumen-helburuak ez betetzeko egoera egonkorra da aztertutako azken sei urteetan. Egoera kimikoa ona da.

URA sistemaren zaintza-sarearen azken datuen arabera, Añarbeko urtegiak (AÑA-EMB) potentzial ekologiko ona edo handiagoa du, eta egoera kimiko ona; beraz, egoera orokorra ere ona da.

¹⁰ Anbiotek & Cimera, 2019. EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea. Emaitzen txostena. 2018ko kanpaina. URA.

¹¹ Laboratorios Tecnológicos de Levante & Ekolur, 2019. EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea. 2018ko kanpaina. URA.

¹² Azti-Tecnalia, 2019. Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea. 2018ko kanpaina. URA.


¹³ Cimera S.L., 2019. EAEko lakuak, barrualdeko hezeguneak eta urtegiak zaintzeko sarea. 2017-2018 ziklo hidrologikoa. URA.

3.2.4.3 Lur azpiko urak

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako aldearen Plan Hidrologikoaren Berrikuspenaren arabera (2015/2021 zikloa), Erreterriako udalerria lur azpiko ur-masa hauetan oinarritzen da:

- Mendigune paleozoikoak (ES017MSBT017001): eremu paleozoiko eta granitoideari dagokio, eta udalerraren hegoaldean eta erdialdean dago, 1.783,39 hektareako azalerarekin.
- Andoain-Oiartzun (ES017MSBT017002): Iparraldeko Antiklinorioa eremuari dagokio eta udalerraren erdialdean eta ipar-mendebaldean dago, 642,26 ha-rekin.
- Zumaia-Irun (ES017MSBTES111 S000015): Goi kretazeoko kostaldeko kateari dagokion masa bat da, eta udalerraren iparraldeko 778,30 hektarea hartzen ditu.

Gainera, Erreterriako udalerrian lur azpiko lau ur-masaren azaleraren zati bat dago, eta interes hidrogeologikoko kokalekutzat jotzen dira. Andoain-Oiartzun masaren barruan hiru sektore bereizten dira: Landarbaso-Txoritokieta, Santiagomendi, Txoritokieta. Zumaia-Irun masako Zumaia-Irun Kuaternarioko sektorea, udalerraren iparraldeko muga dago.



34. irudia. Lur azpiko ur-masak eta sektoreak..

EAEko lur azpiko urak kontrolatzeko sarearen arabera¹⁴, SC30 Hernani-C zundaketa kontrol-estazioko Andoain-Oiartzun masa egoera kimiko onean dagoela diagnostikatu da, aurten ezarritako mugatik gorako (0,5 mg/l) amonioa-kantitatea hauteman den arren. Maendigune Paleozoikoak masak ere

¹⁴ TELUR Geotermia y Agua, S.A, 2019. Euskal Autonomia Erkidegoko lurpeko urak kontrolatzeko sarea mantentzea. 2018ko kanpaina. URA.


egoera kimiko ona du masa kontrolatzeko bi estazioetan, SC28 Latxe erreka eta SC39 Arditurri iturburua. Halaber, Zumaia-Irun masak egoera kimiko ona du SC56 Zundaketa Inurritza-3 kontrol-estazioan.

3.2.4.4 Eremu Babestuen Erregistroa (Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoa)¹⁵

Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroan (EBE) ingurune urtarrarekin zerikusia duten eta erkidegoko araudia eta beste araudi batzuk aplikatuz babesa jasotzen duten eremuak sartzen dira. Erreterian honako eremu hauek daude:

- Harguneak eta Babes Eremuak:
 - Landarbaso koba
 - Aitzpitarte
 - Añarbe
- Eremu Sentikorra: Oiartzun estuarioa
- Habitatak eta Espezieak Babesteko Eremuak: ZEC ES210016 Aiako Harria
- Beste babes-figura batzuk:
 - Bisoï Europarrarentzako Interes Bereziko Eremuak
 - Pirinioetako muturluzearentzako Interes Bereziko Eremuak
 - Aiako Harria Parke Naturala

¹⁵ 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura eta Jucarko demarkazio hidrografikoen eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana eta Ebroko demarkazio hidrografikoen Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.



35. irudia. Erreteriako Eremu Babestuen Erregistroa.

3.3 INGURUNE BIOTIKOA


3.3.1 Landaredia eta lurzoruen erabilerak¹⁶

Atal hau egiteko oinarritzko erreferentzia gisa, habitaten, egungo landarediaren eta lurzoruen erabileren kartografia (1:10.000 eskala) kontsultatu da Geoeskadin. Halaber, “Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoa” eta “EAEko zuhaitz berezien zerrenda” kontsultatu dira.

3.3.1.1 Landaredia potentziala eta lurzoruen erabilerak

EAEko Landaredia Serieen Maparen arabera, Erreteriako udal-mugartearen zatirik handiena haritziz eta baso misto atlantikoz beteta dago, altitude txikieneko mendi-hegalak okupatuz, lurzoru sakonago eta gutxiago garbitutakoen gainean. Formazio horrekin batera, haltzadi kantauriarra egongo litzateke ibai-ibilguz lotuta; pagadi azidofiloa udalerriko lur altuenetan; eta ameztia lurzoru urrietako eguterenan.

¹⁶ Natura Ondarea eta Biodibertsitatea. Ingurumena eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.



36. irudia. Errenteriako landaredia potentziala.

3.3.1.2 Egungo landaredia eta lurzorua erabilerak

Hala ere, gaur egungo landarediak ez du lotura handirik landaredia potentzialarekin, lurraldea giza jarduerak aldatu dutelako.

Gaur egun, bertako espezieen basoek (hariztiak, pagadiak, ameztiak, etab.) eta ibaiertzeko basoek (haltzadiak, lizardiak eta sahastiak) Errenteriaren azalera osoaren % 41 hartzen jarraitzen dute. *Quercus robur* (% 26) nagusi duen baso azidofiloa eta pagadi azidofilo atlantikoa (% 9) dira udalerrian ordezkari handiena duten bi habitat erdinaturalak.

Baso autoktonoa -iratzedia, lahardia, otadia, arantzadia- ordezteko etapek udalerraren azalaren % 2,13 hartzen dute.

Baso-landaketek udalerraren azalaren % 28,25 hartzen dute. Koniferoen landaketek 541,34 ha hartzen dituzte, udal azalaren % 16,90. Udalerriko konifero-espezie ugariena intsinis pinua da (*Pinus radiata*), eta Errenteriako lurraldearen % 10 hartzen du.

Hostozabalen landaketek 363,62 hektareako azalera hartzen dute, udalerraren azalaren % 11,35. Udalerriko hostozabalen espezie ugarien artean, *Quercus rubra* landaketak nabarmentzen dira, % 4 inguruko azalarekin. Eukalipto-sailak (*Eucalyptus sp.*) oso hedatuak daude Iberiar Penintsulako isurialde kantauriarrean eta EAEko lurraldean, baina Errenteriako udalerraren azalaren % 0,1 besterik ez dute hartzen gaur egun.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerek ere lurraldearen zati handi bat aldatu dute, jatorrizko basoen zati handi bat belardiek eta larreek hartu baitute. 435,95 hektarea okupatzen dituzte, udalerraren % 14 inguru. Azkenaldian, hazkunde demografikoak eta hiri- eta industria-lurzoruaren premiak, inguruko jardura tradizionalak uztearekin batera, horien beherakada eragiten ari diren faktoreak dira.


Baratzeak, mintegiak eta fruta-arboleak eta parke eta lorategiak, bestalde, udalerraren azaleraren % 0,17 eta % 0,96 besterik ez dute hartzen, hurrenez hurren.

Hiriguneak, garraio-azpiegiturak eta aldatutako beste eremu batzuk (lurzoru urbanizatua, landa-nukleoak, zaborteziak, landareri hazten ez den edo landare erruderala duen zapal dutako edo aldatutako eremua, etab.) udalerraren % 12 dira.

Ondorengo taulan agertzen diren unitateak kartografiatuta daude **1.5: Landaredia eta lurzoruaren erabilerak** planoan.

12. taula. Errenteriako landaredia eta lurzoruaren erabilerak.

Landaredia eta lurzoruaren erabilerak	Azalera (ha)	Udalerriko ehunekoak (%)
Ibai-ibilguak eta urtegiak	59,49	% 1,86
Belardiak eta larreak	435,95	% 13,61
Iratzedia, lahardia, otadia, elordia	68,40	% 2,13
Ibaiertzeko basoa	70,66	% 2,21
Bertako espezieen basoa	1.243,76	% 38,82
Hostozabalen landaketak	363,62	% 11,35
Koniferoen landaketak	541,34	% 16,90
Baratzeak, mintegiak eta fruta-arbolak	5,48	% 0,17
Parke eta lorategi apaingarriak	30,74	% 0,96
Eremu artifizializatuak	384,50	% 12




37. irudia. Errenteriako landaredia eta lurzorua erabilerak.

3.3.1.3 Interes bereziko landaredia

Eusko Jaurlaritzaren EAEko habitaten maparen arabera, Errenterian Batasunaren Intereseko Habitaten 806 ha inguru daude, hau da, udalerraren azalera osoaren % 25. Honako hauek dira identifikatutako habitatak:

Kodea	Izena	Azalera (ha)	Udalerriko ehunekoa (%)
4030	Txilardi lehor europarrak.	123,16	% 3,85
6210*	Larre mesofiloak <i>Brachypodium pinnatum</i> -ekin	1,25	% 0,04
6230*	Belardi menditarrak	0,55	% 0,02
6510	Altuera txikiko sega-belardi elkorak (<i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>).	250,11	% 7,81
8220	Malda harkaiztsu silizeoak landaretza kasmofitikoarekin.	0,01	% 0,00
9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, <i>Ilex</i> eko eta <i>batzuetan Taxuseko oihanpearekin</i> (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>).	278,90	% 8,71
91E0*	Haltzadiak eta lizardiak	150,70	% 4,70
9230	Galizia eta Portugalgo hariztiak <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> -rekin.	0,05	% 0,00
9260	<i>Castanea sativa</i> basoak.	0,95	% 0,03
GUZTIRA		805,67	% 25,15



38. irudia. Batasunaren intereseko habitatak Erreterriko udalerrian.

Bestalde, Europako Zuzentarauak hariztiak eta intereseko hostozabalen beste baso batzuk Batasunaren garrantzizko leku gisa hartzen ez dituen arren, balio ekologiko handiko formazioak dira eta ez dute azalera handirik hartzen Gipuzkoan; izan ere, nabarmen murriztu dira interes txikiagoko beste formazio batzuen alde (basoberritzeak, belardiak, etab.). Beraz, formazio horiek (eskualdeko interesekotzat jotzen direnak) kontserbaziorako intereseko landarediaren artean sartu behar dira, 92/43/EEE Zuzentarauak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak eta Euskal Herriko Natura Kontserbatzeko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak ezarritakoaren arabera.

3.3.1.4 Flora-espeziea mehatxatuak

Geoeuskadin eskuragarri dagoen “EAEko flora mehatxatua kontserbatzeko dokumentu teknikoei (2011)” buruzko informazioaren arabera, udalerraren hegoaldeko muga dagoen azalera txiki bat *Prunus lusitanica*ren kontserbazio-eremuari dagokio.


Gainera, “EAEko flora baskularraren zerrenda gorriaren”¹⁷ arabera, espezie mehatxatuak dituzten 1x1 km-ko laukietan, hurrengo taulan agertzen dira zerrendatutako espezieak.

13. taula. Flora-espezie mehatxatuak, udalerrian inskribatutako espezie mehatxatuen 1x1 km-ko laukietan.

Espezieak	Kategoria	Habitat nagusia
<i>Prunus lusitanica</i>	Bakana	Errekak, dolinak

¹⁷ Ihobe, 2010. EAEko flora baskularraren zerrenda gorria. Eusko Jaurlaritzak.

<i>Dryopteris aemula</i>	la mehatxatua	Errekak
<i>Hymenophyllum tunbrigense</i>	Bakana	Errekak
<i>Ilex aquifolium</i>	Interes berezikoa	Basoak
<i>Narcissus bulbocodium subsp. citrinus</i>	Interes berezikoa	Larre menditarrak
<i>Pinguicula lusitanica</i>	Interes berezikoa	Larre hezeak
<i>Saxifraga clusii</i>	Bakana	Errekak
<i>Soldanella villosa</i>	Bakana	Errekak
<i>Teucrium botrys</i>	Kaltebera	Larre harritsuak
<i>Trichomanes speciosum</i>	Interes berezikoa	Errekak



39. irudia. Errenteriako flora mehatxatua.

Intereseko landaredia I.6: **Interes bereziko landaredia** planoan irudikatuta dago

3.3.2 Intereseko fauna

Eusko Jaurlaritzaren datu-basean 10 x 10 km-ko UTM laukietan Errenteriako udalerrria inskribatuta dagoen EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan agertzen diren espezie hauen aipamenak daude:

14. taula. Udalerrria kokatuta dagoen UTM 30TWN88, 30TWN89, 30TWN98, 30TWN98, 30TWN99(10X10 km) laukietan katalogatutako fauna-espezieak.

Espeziea	Izen arrunta	Mehatxu-kategoria*	Habitat nagusia
Hegaztiak			
<i>Accipiter gentilis</i>	Aztore arrunta	B	Basoa
<i>Accipiter nisus</i>	Gabirai arrunta	IB	Basoa
<i>Actitis hypoleucos</i>	Kuliska txikia	B	Ibai-ibilguak

<i>Alcedo atthis</i>	Martin arrantzalea	IB	Ibai-ibilguak
<i>Bubo bubo</i>	Hontz handia	B	Harkaitzak, basoa, etab.
<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata arrunta	IB	Landazabala, sastrakadia
<i>Charadrius dubius</i>	Txirritxo txikia	K	Ibai-ibilguak
<i>Cinclus cinclus</i>	Ur-zozoa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Circaetus gallicus</i>	Arrano sugezalea	B	Basoak, sastrakadiak
<i>Circus cyaneus</i>	Mirotz zuria	IB	Landazabala
<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	Mokolodia	IB	Basoa
<i>Corvus corax</i>	Erroia	IB	Orokorra
<i>Dendrocopos minor</i>	Okil txikia	IB	Basoa
<i>Dryocopus martius</i>	Okil beltza	B	Basoa
<i>Falco peregrinus</i>	Belatz handia	B	Harkaitzak
<i>Falco subbuteo</i>	Zuhaitz-belatza	B	Basoa
<i>Ficedula hypoleuca</i>	Euli-txori beltza	B	Landazabala
<i>Gyps fulvus</i>	Sai arrea	IB	Harkaitzak
<i>Hieraetus pennatus</i>	Arrano txikia	B	Basoa, landazabala
<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	IB	Landazabala
<i>Larus fuscus</i>	Kaio iluna	IB	Hezeguneak, labarrak
<i>Milvus milvus</i>	Miru gorria	K	Landazabala
<i>Monticola saxatilis</i>	Harkaitz-zozo gorria	IB	Harkaitzak
<i>Monticola solitarius</i>	Harkaitz-zozo urdina	IB	Harkaitzak
<i>Neophron percnopterus</i>	Sai zuria	K	Harkaitzak
<i>Pernis apivorus</i>	Zapelatz liztorjalea	B	Basoa
<i>Phalacrocorax aristotelis</i>	Ubarroi mottoduna	B	Hezeguneak, labarrak, ibai-ibilguak
<i>Riparia riparia</i>	Uhalde-enara	K	Ibai-ibilguak
<i>Sylvia cantillans</i>	Txinbo papargorritza	IB	Sastrakadia, basoa
<i>Tachybaptus ruficollis</i>	Txilinporta txikia	B	Hezeguneak
<i>Upupa epops</i>	Argi-oilarra	K	Landazabala
Anfibioak			
<i>Bufo calamita</i>	Apo korrikalaria	K	Baso hezeak
<i>Hyla meridionalis</i>	Hegoaldeko zuhaitz-igela	G	Hezeguneak
Ugaztunak			
<i>Eptesicus serotinus</i>	Baratze-saguzarra	IB	Harkaitzak, eraikuntzak
<i>Felis silvestris</i>	Basakatua	IB	Basoa
<i>Galemys pyrenaicus</i>	Muturluze piriniotarra	G	Ibai-ibilguak
<i>Miniopterus schreibersii</i>	Schreibers saguzarra	K	Kobak
<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	G	Ibai-ibilguak
<i>Mustela putorius</i>	Ipurtatsa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Myotis daubentonii</i>	Ur-saguzarra	IB	Ibaiertzeko basoak
<i>Myotis myotis</i>	Arratoi-belarria	K	Kobak
<i>Myotis nattereri</i>	Natterer saguzarra	B	Kobak
<i>Nyctalus leisleri</i>	Gau-saguzar txikia	IB	Basoa
<i>Pipistrellus nathusii</i>	Nathusius pipistrello	IB	Basoa, eraikuntzak

<i>Rhinolophus euryale</i>	Ferra-saguzar mediterranea	G	Basoak, kobak
<i>Rhinolophus hipposideros</i>	Ferra-saguzar txikia	K	Koba
Narrastiak			
<i>Zamenis longissimus</i>	Eskulapioren sugea	IB	Basoa, landazabala

*G: Galzorian, K: Kaltebera, B: Bakana, IB: Interes Berezikoa.

Aurreko taulan erakutsitakoaren arabera, lau espezie 'galzorian' kategorian katalogatuta daude, bederatzia espezie 'kaltebera' kategorian, hamahiru espezie 'bakana' eta hogeita bat 'interes bereziko' espezieetat jotzen dira.

Zerrenda hori Errenteriako udalerrian aldi-aldi egiten diren hainbat azterlanekin osatzen da, udalerrian bizi diren fauna-espezieen ezagutza hobetzeko eta, hala, espezie horien kontserbazioa sustatzeko neurriak bultzatzeko.

Duela gutxi, 2019. urtean, Errenteriako Udalak eskatuta, Naturtzaindia Elkarteak azterketa bat egin zuen Aizpitarteko barrunbeak erabiltzen dituzten kiroptero-espezieak ezagutzeko. Barrunbe horiek udalerraren hegoaldean eta Aiako Harria KBE eremuan daude. Lan horri esker, kobetan eta koba horien inguruan gutxienez 11 kiroptero-espezie daudela baieztatu ahal izan da. Horien artean, *Rhinolophus euryale* nabarmendu behar da, izan ere, azken 50 urteetan ez da espezie horren berririk izan inguruan.

15. taula. Naturtzaindia Elkarteak egindako azterketan Aizpitarten identifikatutako kiroptero-espezieak. Bakoitzaren kategoria EAeko espezie mehatxatuen katalogoaren arabera adierazten da, eta lodiz nabarmendu dira aurreko taulan sartu ez diren espezieak.

Espeziea	Mehatxu-kategoria
<i>Barbastella barbastellus</i>	G
<i>Rhinolophus euryale</i>	G
<i>Miniopterus schreibersii</i>	K
<i>Myotis emarginatus</i>	K
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	K
<i>Eptesicus serotinus</i>	IB
<i>Nyctalus leisleri</i>	IB
<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	IB
<i>Pipistrellus pygmaeus</i>	IB
<i>Plecotus sp.</i>	IB
<i>Rhinolophus hipposideros</i>	IB

Halaber, 2019an, Udalak eskatuta, DESMA Estudios Ambientales SL enpresak kiropteroen komunitatearen karakterizazioa egin zuen hirigunean kokatutako Oartzun ibaiaren ibai-habitatean eta Errenteriako Arramendi parkean. Azterketa honetan lortutako emaitzen arabera, zortzi taxon daude. Funtsean, espezie horien presentzia nahiko ohikoa da hiri-inguruneetan edo periurbanoetan.

16. taula. Errenterian Arramendi parkean eta Oartzun ibaian identifikatutako kiroptero-taxonak. Lodiz markatuta aurreko inbentarioetan sartu ez den espeziea.

Espeziea	Mehatxu-kategoria
----------	-------------------

<i>Myotis daubentonii</i>	IB
<i>Myotis sp.</i>	
<i>Eptesicus serotinus</i>	IB
<i>Nyctalus leisleri</i>	IB
<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	IB
<i>Pispistrellus pygmaeus</i>	IB
<i>Pipistrellus kuhlii</i>	IB
<i>Plecotus sp.</i>	IB

Azkenik, Aranzadi Zientzia Elkartek 2019an egindako Errenteriako inbentario herpetologikoaren zazpigarren laginketa-kanpainaren esparruan herpetofaunaren banaketari buruz lortu berri den informazioaren arabera, Errenteriako udalerrian zazpi anfibio-espezie eta 11 narrasti-espezie aurkitu dira.

Aipatu behar da azken kanpaina horretan uhandre marmolaire bat (*Triturus marmoratus*) ikusi zela, aurreko laginketetan ez bezala. Identifikatutako espezieen artean, Eskulapioren sugea (*Zamenis longissimus*) bakarrik sartzen da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan Interes Berezikiko kategorian.

17. taula. Errenterian identifikatutako herpetofauna-espezieen zerrenda.

Espeziea	Mehatxu-kategoria
<i>Alytes obstetricans</i>	
<i>Anguis fragilis</i>	
<i>Bufo spinosus</i>	
<i>Coronella austriaca</i>	
<i>Coronella girondica</i>	
<i>Lacerta bilineata</i>	
<i>Lissotriton helveticus</i>	
<i>Natrix astreptophora</i>	
<i>Natrix maura</i>	
<i>Pelophylax perezi</i>	
<i>Podarcis liolepis</i>	
<i>Podarcis muralis</i>	
<i>Rana temporaria</i>	
<i>Salamandra salamandra</i>	
<i>Triturus marmoratus</i>	
<i>Vipera seoanei</i>	
<i>Zamenis longissimus</i>	IB
<i>Zootoca vivipara</i>	

3.3.2.1 Faunarentzako intereseko eremuak

EAEko Ingurumen Esparru Programak “Lehentasunezko Banaketa Eremuak, Interes Bereziko Eremuak eta flora eta fauna espezie mehatxatuen Gune Sentikorrek” babesteko premia ezartzen du, Kudeaketa Plana izan ala ez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek sinatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen Kudeaketarako Plan Bateratuaren arabera, Errenteriako hegoaldea, Aiako Harria KBE eremuarekin bat datorrena, Interes Bereziko Eremutat eta ugatza, sai zuria eta sai arrea espezie nekrofagoen Elikadurarako Babesgunetzat jotzen da.

Halaber, Aiako Harria espazio naturala belatz handiaren (*Falco peregrinus*) eta okil txikiaren (*Dendrocopos minor*) lehentasunezko banaketa-eremutat jotzen da, bi espezieei dagozkien kudeaketa-planetako proposamenetan jasota daudenak. Gainera, Añarbeko urtegiaren baso-ingurunea bat dator Okil ertainaren (*Dendrocopos medius*) Lehentasunezko Banaketa Eremuarekin.

Gainera, udalerrriaren hego-mendebaldeko mugan barrena igarotzen den Urumea ibaiaren zatia bisoi europarrantzako (*Mustela lutreola*) Interes Bereziko eremutat jotzen da. Zati horrek Kudeaketa Plana du, bisoi europarrantzako (*Mustela lutreola*) Kudeaketa Plana onartzen duen eta hura babesteko arau osagarriak ematen dituen 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartua. Oiartzun ibaia eta haren beste ibaiadar batzuk espezie horren Lehentasunezko Banaketa Eremu gisa bereizten dira.

Urumea ibaia ere Interes Bereziko Eremutat jotzen da muturluze piriniarrantzat (*Galemys pyrenaicus*), espezie horrentzako kudeaketa-planaren proposamenak adierazten duen bezala.


Oiartzun ibaia, udalerrian barrena igarotzen den zatian, bat dator kolakarentzako (*Alosa alosa*) Interes Bereziko Eremuarekin.

Udalerrriaren zati handi bat ferra-saguzar mediterranearrantzako (*Rhinolophus euryale*) Interes Bereziko Eremu eta Gune Sentikorraren barruan sartzen da, espezie horrentzako kudeaketa-planaren proposamenak adierazten duen bezala.

Narrastiei dagokienez, udalerrriaren erdialdea eta hegoaldea bat datoz suge berde-horiarentzako Lehentasunezko Banaketa Eremuarekin (*Hierophis viridiflavus*) eta Schreiber muskerraren (*Lacerta schreiberi*) iparraldeko muturrarekin.

Gainera, udalerrriaren mendebaldea eta erdialdea pirinioetako uhandrearentzako (*Euproctus asper*) Lehentasunezko Banaketa Eremutat hartzen da.

1.7: Intereseko fauna planoan espezie katalogatuentzako intereseko eremuak irudikatu dira.



40. irudia. Faunarentzako Interes Bereziko Eremuak (IBE) eta Lehentasunezko Banaketa Eremuak (LBE) Errenterian.

3.3.2.2 Hegaztiak eta linea elektrikoak

Hegazti-espezie mehatxatuen ugaltzeko, elikatzeko, sakabanatzeko eta kontzentratzeko lehentasunezko eremuak mugatzen dituen eta hegaztiak goi-tentsioko aireko linea elektrikoekin talka egitearen eta elektrokutatzearen aurka babesteko neurriak aplikatu beharko diren babes-eremuak argitaratzen dituen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindua araber, Aiako Harria KBE babes-eremuan sartzen da.

3.4 NATURA-INTERESEKO GUNEA

3.4.1 Eremu babestuak

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 28. artikulua naturagune babestuzat jotzen ditu, gutxienez, honako baldintza hauetako bat betetzen duten eta halakotzat jotzen diren guneak:

- a) Sistema edo elementu natural adierazgarriak, bereziak, hauskorak, mehatxatuak edo ekologia-, zientzia-, paisaia-, geologia- edo hezkuntza-interes berezikoak izatea.
- b) Bereziki biodibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta horiei lotutako natura- eta kultura-baliabideak babestera eta mantentzera bideratuta egotea.

42/2007 Legeak eremu babestuen sistema bat ezartzen du, 3 kategoriatan banatuta:

- Naturagune babestuak

- Natura 2000 Sareko Naturagune Babestuak
- Nazioarteko tresnek babestutako eremuak

Bestalde, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, bere 13. Artikuluan xedatzen du naturagune babestuak kategoria hauetako batean sailkatuko direla:

- a) Parke naturala.
- b) Biotopo babestua.
- c) Zuhaitz apartekoa.
- d) Europako Natura 2000 Sarean sartutako zona edo lekua (Batasunaren garrantziko lekuak (BGL), Babes bereziko eremuak (BBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE), lehen aipatutako a), b) eta c) kategoriekin, osorik edo partzialki, bat etortzearen kalterik gabe.


Abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 50. Artikuluaren arabera, **nazioarteko tresnek babestutako eremutzat** joko dira Espainia partaide duten nazioarteko hitzarmen eta akordioetan xedatutakoaren arabera formalki izendatutako naturagune guztiak eta, bereziki, honako hauek:

- a) Nazioarteko Garrantziko Hezeguneak, Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei buruzko Hitzarmenekoak, bereziki Uretako Hegaztien Habitat gisa.
- b) Munduko Ondarearen Zerrendako leku naturalak, Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Konbentziokoak.
- c) Eremu babestuak, Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurumena babesteko hitzarmenekoak (OSPAR).
- d) Mediterraneorako garrantzia duten Gune Bereziki Babestuak (MGGBB), Mediterraneoko itsas ingurunea eta kostaldea babesteko hitzarmenekoak.
- e) Geoparkeak, UNESCOk izendatuak.
- f) Biosferako Erreserbak, UNESCOk izendatuak.
- g) Europako Kontseiluaren Erreserba biogenetikoak.

Gune horiei ibai-erreserba naturalak gehitu behar zaizkie. Babes-figura horren helburua gizakiaren esku-hartze txikia duten edo esku-hartzerik batere ez duten eta oso egoera ekologiko onean dauden ibai-tarteak babestea da.

Errenteriako udalerrian daude Aiako Harria Parke Naturalaren zati bat (*240/1995 Dekretua, apirilaren 11koa, Aiako Harria eremuko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plano onesten duena*) eta ZEC ES2120016 Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremua (*355/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Aiako Harria ES2120016 Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena eta hura kontserbatzeko neurriak onesten dituena*).

1.8: Eremu babestuak planoan udalerriko naturagune babestuak aurkezten dira.



41. irudia. Errenteriako eremu babestuak.

Aiako Harria Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) Gipuzkoako ekialdeko muturrean dago, ekialdera Lapurdirekin eta hegoaldera Nafarroarekin muga eginez. Enklabe hori Bidasoa ibaitik Urumea ibairaino hedatzen da, eta 6.913,8 hektareako azalera du. Horietatik 1.736,5 ha (azalera osoaren % 25) Errenteria udalerrriaren hegoaldeko erdian daude.

Eremu hori 1995etik dago Parke Naturalaren figuraren bidez babestuta. Ondoren, 2004an, Europako Batzordeak Natura 2000 Sareko Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrendan sartu zuen eta, 2013an, Eusko Jaurlaritzak haren kontserbazio-neurriak onartu zituen, KBE deklaratu.

Aiako Harria itsas mailatik 800 metro altxatzen den batolito bat da, eta interes geologiko handia du; izan ere, Paleozoikoan sortu eta Euskal Herriko material zaharrenetako batzuk daude bertan. Historian zehar hainbat mineral erazi dira Aiako Harrian, hala nola zilarra, kobrea, burdina eta zinka, eta meatze eta trenbide ugari sortu dira mineralei irteera emateko. Gaur egun, meategi batzuk jendearentzat irekita daude, esaterako Arditurrikoa, eta turismo- eta hezkuntza-erakarpak garrantzitsua osatzen dute. Trenbideak, bestalde, parke barruan sartzeko bide berde berezi bihurtu dira.

Parke Naturalak interes handia du bertan dauden flora eta fauna espezieei erreparatuta ere. Landaredia substratu geologikoaren izaera azidoak, klima epel eta euritsuak, baso-ustiapenak eta abeltzaintza-erabilerek baldintzatzen dute. Lurzoruaren erabilera nagusia basogintzakoa da. Lurraldearen zati handi batean hariztiak eta baso-landaketak daude, bai koniferoak, bai hostozabalak, eta KBEren azalaren % 30 inguru natura-intereseko habitatek osatzen dute. Azalaren % 83,2 jabetza publikokoa izanik, Onura Publikoko Mendi gisa, mendiaren aprobetxamendu integrala eta baso-masen zainketa ere bermatu ditu.

Esan behar da artzaintza estentsiboak ere garrantzi pixka bat duela goi eremuetan, eta ez dagoela bizigunerik KBEaren barruan.

Babestutako eremu hori antolatze eta kudeatzeko babes-figurretan eta plangintzetan ezarritako zehaztapenei dagokienez, 240/1995 Dekretuaren bidez onartutako Natura Baliabideen Antolamendurako Planak zonakatzeko bat ezartzen du Parke Naturalean, eta zona hauek bereizten ditu:

- Erreserba Eremuak: balio ekologiko oso handiko eremuak edo eremu bereziak, botanika-, fauna-, paisaia- edo arkeologia-ezaugarri apartekoak dituztelako.
- Babes Eremuak: zorua higatzeko edo galtzeko arrisku handia duten eremuak. Zorua eta uraren zikloa babestea dute helburu, zorua galtzeko prozesuak eragozteko eta zuhaitzen azalera handitzeko jarduerak bultzatuz.
- Kontserbazio Aktiboko Eremua: naturaren eta kulturaren ikuspegitik interesa duten eremuak dira, eta ingurunea babestea eta egungo erabilerei eustea edo horiek hobetzea eskatzen dute.
- Zaharberitzeko eremuak: Arditurriko eta Arlepoko meategien ondorioz sortutako hondakindegia dira, egonkortu samarrak.
- Abeltzaintza-Basogintza Sustatzeko eremua: gaur egun abeltzaintza estentsiboa eta basogintza dira erabilera nagusiak. Bi erabilerak sustatzea eta antolatzea da helburua.
- Gailurrak babesteko eremua: belarrez eta zuhaixkaz estalitako eremuak, paisaia- eta kultura-balio handikoak.
- Landazabaleko eremuak: baserri eta biztanleguneen ingurunea, belardiek, soroek eta inguruko baso txikiak osatua. Erabilera-aniztasunari eustea eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea da helburua.
- Azpiegituren zortasun-eremua.

Halaber, Parke Naturala deklaratzeko dekretuan Babes Eremu Periferiko bat ezarri da, haren kanpoko mugaren inguruko 200 m-ko lur-zerrenda batez osatua, natura-baliabideen erabateko babesa bermatzeko.

Parke Naturala zonakatzeko ezarritako kategorien artean, Erreterian sei eremu besterik ez dira bereizten, Babes Eremu Periferikoarekin batera.

18. taula. Aiako Harria Parke Naturalaren zonakatzeko Erreterian udalerrian. Iturria: Erreterian Natura Ondarea eta Biodibertsitatea hobetzeko eta kontserbatzeko udal-estrategia. Kiko Alvarez Dávila, 2013.

Aiako Harria PN zonakatzeko	Azalera (ha)	PNren % Erreterian
Babes-eremua	419,10	24,15
Kontserbazio aktiboko eremua	810,10	46,68
Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko eremua	426,29	24,56
Gailurrak Babesteko eremua	0,48	0,03
Landazabaleko eremua	27,17	1,57
Azpiegituren zortasun-eremua	52,28	3,01
Guztira	1.735,41	100
Babes Eremu Periferikoa	174,79	

Ondoren, *87/2002 Dekretuaren*¹⁸ bidez, Eusko Jaurlaritzak Aiako Harria Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren zati arauemailea onartu zuen. Bertan, Parke Naturalaren kudeaketa-eredua ezarri zen, balio naturalak kontserbatzeko helburuetan oinarrituta eta, horretarako, kudeaketarako jarraibide eta irizpideak ezarri ziren, bai eta honako alderdi hauei buruzko erregulazioak eta jarduerak ere:

- Plangintza hidrologikoa.
- Floraren eta faunaren kudeaketa eta zaintza.
- Paisaiaren babesa.
- Abeltzaintza kudeatzeko plana.
- Baso-plangintza.
- Ehizako eta arrantzako plan teknikoa.
- Erabilera publikoko eta hezkuntza-erabilerako plana.
- Tokiko garapena.
- Eraikuntza-alderdiak eta azpiegiturak.

Hala ere, EKZPari amaitu zaio indarraldia, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legearen 28. artikuluekin bat etorriz. Artikulu horretan berariaz adierazten da EKZPek bost urteko indarraldia izango dutela eta, epe hori igaro ondoren, aurreikusitako araudiaren arabera berrikusi eta onartu beharko direla.

Bestalde, *355/2013 Dekretuaren*¹⁹ bidez, Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zen 2013. urtean, Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan jasotako Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak eta hegazti basatien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinetako hegazti-espezieak dituelako, eta horiek kontserbatzeko neurriak onartu ziren. KBE onartzeko dekretuak eremu babestu horren zonakatzea definitzen du, egungo egoeraren eta kasu bakoitzean proposatzen den kudeaketa-motaren eta -intentsitatearen arabera.

19. taula. Aiako Harria KBEaren zonakatzea Errenteriako udalerrian. Iturria: DEA geoEuskadi.

Aiako Harria KBE zonakatzea	Azalera (ha)	KBEren % Errenterian
Babes zorrotzeko eremua	25,69	1,53
Lehengoratzeko ekologikoko eremua	706,57	42,04
Bilakaera naturaleko eremua	875,24	52,08
Baso-ustiapen estentsiborako eremua	5,66	0,34
Abeltzaintzako ustiapen estentsiborako eremua	61,16	3,64
Nekazaritzako ustiapen Intentsiborako eremua	2,63	0,16
Nekazaritza eta basogintzako ustiapen Intentsiborako eremua	3,25	0,19
Hiri-eremua eta azpiegiturak	0,32	0,02
Guztira	1.680,51	100

¹⁸ 87/2002 Dekretua, apirilaren 16koa, Aiako Harria Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren zati arauemailea onartzen duena. EHAA, 81. zk., 2002ko maiatzaren 2a, osteguna.

¹⁹ 355/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2120016) izendatu eta haren kontserbazio-neurriak onartzen dituena.

Jarraian, KBEren funtsezko elementu gisa identifikatutako habitatak eta espezieak adierazten dira. Horietan oinarritzen dira, batez ere, proposatutako neurriak. Ez da ahaztu behar KBEren eremuan beste habitat natural batzuk eta babes bereziko erregimeneko flora- eta fauna-espezie batzuk ere badirela, eta horiek ez dutela berariazko neurri aktiborik behar, edo neurri horien kontserbazioa gako-elementuetarako edo kudeaketaren xede diren elementuetarako hartzen diren neurriek bermatzen dutela.


- Habitatak
 - Baso autoktonoak:
 - Pagadi azidofilo atlantikoak (UE 9120 kod.)
 - Galizia eta Portugalgo hariztiak *Q. robur* eta *Q. pirenaica*-rekin (UE 9230 kod.)
 - Quercus robur* nagusi den harizti azidofiloak
 - Errekastoak-haltzadiak, eta horiei atxikitako fauna eta flora
 - Atlantiko aldeko ibaiertzeko basoak, haltzadiak eta lizardiak dituztenak (UE 91E0 kod.)*
 - Sastrakak eta larreak, eta horiei atxikitako flora
 - Txilardi atlantikoak (UE 4030 kod.)
 - Larre azido menditarrak (UE 6230 kod.)*
 - Komunitate hidroturbosoa
 - Trantsizio-zohikaztegiak (UE 7140 kod.)
- Espezieak
 - Koleoptero saproxilikoak
 - Okil beltza (*Dryocopus martius*)

Nabarmendu egin behar da *apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen testuategina onartzen duenak, 18. artikuluan honako hau ezarri zuela: "Leku berean eremu babestuen figura desberdinak gainjartzen badira, horiek arautzen dituzten arauak eta plangintza-mekanismoak koordinatu egin beharko dira, espazioaren plangintza integratuz dokumentu bakar batean bateratzeko, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu beharreko erregimenek osotasun koherente bat osa dezaten."*

Gaur egun, ez da egin Aiako Harria eremua barne hartzen duten Naturagune Babestuen bi tipologiak arautzen dituen dokumentu bakarria izateko baldintza betetzen duen Parke Naturalaren NBAParen berrikuspenik. Hala ere, 2003az geroztik, Errenteriako Biodibertsitate Estrategiaren esparruan, Udala "Añarbeko Erreserba Eremua" izendatzea sustatzen ari da, gutxienez parkearen zati baten antolamendua, erabilera eta kudeaketa arautzen duten araudiak eguneratzeko, eta eremu horri babes handiagoa emateko.

3.4.2 Onura publikoko mendiak

Gainera, Errenteriako udalerrriak Onura Publikoko Mendien 1.591,20 ha ditu, *Gipuzkoako Mendiei buruzko 7/2006 Foru Arauak* arautuak eta Gipuzkoako Onura Publikoko Mendien Katalogoan jasotakoak.



42. irudia. Onura Publikoko Mendiak Errenteriako udalerrian.

3.4.3 Intereseko beste naturagune batzuk

Errenteriako natura-ondarea eta biodibertsitatea hobetzeko eta kontserbatzeko udal-estrategiaren Estrategia eta Ekintza Planaren helburua da udal-esparrutik biodibertsitatea galtzeko prozesuak alderantzizatzeko ahalegina egitea eta haren osagaien kontserbazio-egoera hobetzea, antzemandako mehatxuen eta presio-faktoreen eragina ahal den neurrian mugatuz.

Helburuak lortzeko lehentasunezko ekintzen artean, babestutako naturaguneen kudeaketarekin, konektibitate ekologikoarekin eta habitat naturalen kontserbazio-egoeraren hobekuntzarekin zerikusia dutenak nabarmentzen dira. Alde horretatik, Errenteriako udalerrian dauden eta interes handia duten naturagune batzuk deskribatuko ditugu jarraian.

Lau Haizeta parkea

Aurreko ataletan ere Lau Haizeta parkea aipatu den arren, eskualdeak duen interesa dela eta, labur-labur deskribatuko dira parkearen ezaugarriak eta gune hori arautzen duen plangintzatik sortutako kontserbazio-irizpideak.

Lau Haizeta parkea, 1999an izendatua²⁰, Errenteria, Astigarraga eta Donostiako udalerriek partekatutako lurretan dago, eta 600 hektareako azalera du; horietatik 200 hektarea, gutxi gorabehera, Errenteriako udalerrikoak dira. Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako berdegune handia da,

²⁰ Lau Haizeta Antolatzeko Plan Berezia (GHI-100/97-P08). GAO, 10.203 zk., 1999ko ekainaren 28koa.

Donostialdea-Bidasoa Behereko Eremu Funtzionaleko dentsitate handiko hiri-eremuen barruan eta inguruko perimetroan txertatuta dagoena.

Aldamenean dituen hiriguneen berezko garapen-dinamika ez bezala, lurzoru horiek, funtsean, ez dute hirigintza-hedapenik izan, eta eboluzionatu egin dute, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen tradizional batekin batera. Gaur egun, espezie autoktonoen, esaterako, haritz kandudunen, ametz arrunten, haltzen eta lizarren baso-formazioen masa adierazgarriak mantentzen dituzte, interes handiko natura- eta kultura-ondareko beste elementu batzuez gain.

Parkean, Errenteriako udalerrri barruan, San Markos eta Txoritokietako XIX. mendeko gotorleku militarrek, baso mistoa (babes zorrotzeko baso-eremua) eta Txoritokietako estazio megalitikoak nabarmendu behar dira. San Markos eta Txoritokieta mendietako mendei-hegalak, gainera, paisaiaren aldetik interes handia duten eremuak dira. Parkean interes handiko egitura geologikoak (dolinak) ere badaude.

Lau Haizeta parkeari natura-interes handia ematen dioten ezaugarri horiek direla eta, Donostialdea-Bidasoa Behereko Eremu Funtzionaleko LPPak hiriarteko landa-parke gisa hartzen du Lau Haizeta. Horren helburua da udalaz gaindiko berdegune bat finkatzea, paisaiaren babesa, korridore ekologikoen sarea eta ingurune fisikoaren kontserbazioa bermatzeko. Aldi berean, inguruko ingurunearekin bateragarriak diren lehen sektoreko jardueren iraupena ahalbidetzen da eta jarduerak indartzen dira.

Lau Haizeta parkeak, gainera, Antolamenduko Plan Berezi bat du, hura zaintzeko oinarritzko erregulazioak ezarriko dituen, honako helburu hauek kontuan hartuta:

- Auzo mugakideetako eta, oro har, Donostialdeko Eremu Funtzionaleko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea.
- Herritar guztientzako aisialdi-eremu bat sortzea.
- Ingurunekeo natura- eta arkitektura-intereseko elementuak babestea.
- Hiriguneekin muga egiten duen lurralde batean hiri-erabilerekin sortzen duten presioa saihestea.
- Natura-ingurunea ustiatzeko jardueren garapena bermatzea eta arautzea.

Era berean, Plan Berezian honako hauek planteatzen dira lurraldean esku hartzeko oinarritzko irizpide gisa:

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako egungo ustiategiak finkatzea eta parke-ideian txertatzen saiatzea.
- Erabilera publikoko harrera-eremuak mugatzea, lurraldearen erabilera intentsiboagoa antolatzen den eremurako sarbideetan.
- Herritarren aisialdirako titulartasun eta erabilera publikoko espazio libreak zehaztea, baliabide naturalak, flora eta fauna autoktonoak eta intereseko elementu eta eraikinak babesteko eta balioesteko.
- Lehendik dauden inpaktuak zuzentzeko behar diren neurriak proposatzea.
- Parkearen eremuan aurreikusitako jarduera eta inbertsio publikoak bultzatzea eta koordinatzea.

Añarbeko Erreserba

Añarbeko basoak Añarbeko urtegiaren ondoan daude, eta 910 hektareako azalera hartzen dute Errenteriako udal-mugartearen barruan, eta beste 118 hektarea Donostiako udal-mugartean. Baso-masa handi eta jarraitua da, haritzez eta pago azidofiloz osatua eta, neurri txikiagoan, baso-landaketa exotikoz. Ereku horretan, Habitategi buruzko 43/92/EE Zuzentarauaren arabera, Batasunaren intereseko bost habitat-mota identifikatzen dira. Denek batera interes biologiko handia dute eta Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan, Habitategi buruzko 92/43/EE Zuzentaruaren eta Atlantikoko Izokin Atlantikoaren eranskinetan jasotako fauna- eta flora-espezie ugariaren elikadura-, babes- eta ugalketa-habitatak hartzen ditu. Espezie horien artean, honako hauek nbarmentzen dira: izokin atlantikoa (*Salmo salar*), aztorea (*Accipiter gentilis*), okil beltza (*Dryocopus martius*) eta basoko koleopteroak, hala nola *Rosalia alpina* eta *Lucanus cervus*, edo Quimper barraskiloa (*Elonga quimperiana*).

Añarbeko basoak Aiako Harria BKEn eta Aiako Harria Parke Naturalean sartuta daudenez, Errenteriako natura-ondarea eta biodibertsitatea hobetzeko eta kontserbatzeko udal-estrategiaren Estrategia eta Ekintza-planaren esparruan, Añarbeko herri-mendia erreserba-eremu izendatzea proposatu zuen Udalak, eremuari babes-erregimen handiagoa emanaz eta parkearen antolamendua, kudeaketa eta erabilera arautzen dituzten arauak eguneratuz.

Gaur egun, eremu horrek hainbat kategoria ditu Aiako Harria PNaren zonakatzean. Proposatutako erreserbaren zatirik handiena Kontserbazio Aktiboko Eremitzat jotzen da gaur egun. Aiako Harria NBAPak eremu horietarako ezarritako helburuak honako hauek dira: natura-ingurunea zaintzea eta egungo erabilerak mantentzea eta hobetzea. Horietako batzuek eragin nabarmena izan dute eremu horretako ekosistema naturalen narriaduran, basokoak barne.

Beraz, gaur egun, erreserba-eremu gisa proposatutako eremuan ez dira baztertzen ez basogintza komertzial intentsiboa, ez eta abeltzaintzakoa ere. Horrek ez du bermatzen eremuko basoak hobetzea eta kontserbatzea, ez eta haien biodibertsitatea eta lotutako prozesu ekologikoak ere.

Aitzitik, eremu hori Erreserba Ereku izendatzeak esan nahi du balio ekologiko oso handiko eremutat hartuko litzatekeela, eta bertan hobekuntza eta kontserbazio naturalerako jarduerak soilik onartuko liratekeela. Hala, kudeaketa natura-balioak zaintzera, basoak lehengoratzera eta ingurumen-hezkuntzara bideratuko litzateke.

Hezeguneak


Nabarmendu egin behar da EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planak Malbazarreko putzua eta Añarbeko urtegia I. taldeko hezeguneen artean soilik identifikatzen dituen arren, BKEn eta Aiako Harria Parke Naturalean sartuta daudelako, azken urteotan Errenteriako Udalak Aiako Harria Parke Naturaleko eta ingurunekeo putzuen sare osoa sortu duela eta orain arte 12 hezegune egikaritu edo egokitu dituela. Ereku horiek, berariazko babes-figurarik ez duten arren, interes handiko lekuak dira faunarentzat, uraska gisa erabiltzen direlako. Halaber, fauna-habitat egokiak dira anfibio-espezie askorentzat, berriki egindako azterketa herpetologikoek frogatu duten bezala.

Alde horretatik, hezegune nagusiak aipatu behar dira: Pagosarde, Malmazar, San Markos, Igantzizabal, Kutarro.

3.4.4 Korridore ekologikoak

EAEko Korridore Ekologikoen Sarea (Eusko Jaurlaritz, 2005)²¹ ezartzearen helburu nagusia Natura 2000 Sarearen lotura eta koherentzia ekologikoa sustatzea da. Honako hauek dira haren helburu orokorrak: Natura 2000 Sareko eremuen artean habitata eskualdeko eskalan zatitzearekiko sentikorra den faunari mugitzeko aukera emango dion sarea mugatzea, eta Korridoreen Sarea osatzen duten elementuen erabilera-erregimena eta kudeaketa-neurriak proposatzea.

Sare horrek Aiako Harriaren ardatzean sartzen du udalerrriaren hegoaldea, eta indargetze-eremuan udalerrriaren erdialdea. Urumea ibaia eta haren beste ibaiadar batzuk interes bereziko ibai tarteak dira. Bestalde, GI-2132 errepidea harrapaketen kontzentrazio-tartetzat jotzen da.



43. irudia. EAEko Korridore Ekologikoen Sarea Errenterriako udalerrrian.

Eskualdeko testuinguruan, Errenterriko udalerrria garrantzitsua da EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen funtzionaltasunean; izan ere, Aiako Harria Parke Naturalaren eta Natura 2000 Sarearen zati garrantzitsu bat bere eremuan sartzeaz gain, iragazkortasun ekologikoa errazten du espazio horren eta beste batzuen artean, hala nola Artikutza, Bidasoa, Jaizkibel edo Leitzararen artean.

Hala ere, toki- eta eskualde-mailan, konektagarritasun ekologikoa arriskuan dago hiri-garapenen eta azpiegitura linealen hedapenagatik, esaterako udalerrria ekialdetik mendebaldera iparraldeko erditik zeharkatzen duen AP-8 autobideagatik. Testuinguru horretan, Errenterriko Natura Ondarea eta Biodibertsitatea Hobetzeko eta Kontserbatzeko Udal Estrategiaren (2013) esparruan, Aiako Harria Parke

²¹ Gurrutxaga, M. 2005. Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea. Eusko Jaurlaritz, IKT S.A.

Naturalaren eta Lau Haizeta Parkearen artean eskualdeko korridore ekologiko bat sortzea proposatzen da. Horrela, udalerrriaren hegoaldeko erdiko eremu babestuen eta hirigunetik kanpo dauden eta intereseko flora- eta fauna-espezieen presentzia errazten duten ezaugarriak dituzten iparraldeko erdiko berdeguneen arteko konektagarritasuna hobetuko da.

Aurreko ataletan deskribatu den bezala, Lau Haizeta parkea Erreenteria, Astigarraga eta Donostiako udalerriek partekatutako lurretan dago, eta 600 hektareako azalera du; horietatik 200 hektarea, gutxi gorabehera, Erreenteriako udalerrikoak dira. Parkea berdegune handi baten gisa egituratuta dago, hiri-esparruen barruan eta hurbileko perimetroan integratuta.

Lau Haizeta parkearen ezaugarri naturalek, Donostialdea-Bidasoa Beherea Eremu Funtzionaleko lurralde fisikoa finkatzeko pieza gisa duen garrantziak eta Aiako Harria Parke Naturaletik gertu egoteak EAEko Korridore Ekologikoen Sarea osatuko duen eskualde-mailako interes handiko eremu gisa finkatzen dute.

Aiako Harria – Lau Haizeta PN Eskualdeko Korridore Ekologikoak 302,89 hektareako azalera izango luke; azalera horren % 18,21 (55,16 ha) Astigarragako udalerrikoa da. Azalaren % 70,18 (212,56 ha) landare-formazio naturalez edo erdinaturalez estalita egongo litzateke. Harizti azidofiloak dira landaredi-mota ugariena (128,94 ha), eta % 29,82 (90,33 ha), berriz, formazio artifizialez estalita egongo litzateke.

1.9: Korridore ekologikoak planoan daude jasota udalerriko korridore ekologikoak.

3.5 PAISAIA

“EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa” (Eusko Jaurlaritzak, 2005) aurreproiektuak EAEko ikuspen-arroen lehen karakterizazioa egin zuen, lurzorua erabileren eta azpiegituren presentziaren arabera, bai eta arro horietako bakoitzak jasotzen dituen ikuspen-inpaktuen (positibo zein negatiboak) eta horien egunerokotasunaren arabera, paisaiak herriguneetatik, jarduera ekonomikoetatik eta komunikabideetatik ikusgarriak edo oso ikusgarriak diren kontuan hartuta.


Erreenteriako udal-mugarteko paisaiak berezkoa du elementu antropogenikoak (hirigunea, industrialdeak, azpiegiturak) nagusi dituen haran-hondoa, iparraldean kokatua, eta basogintza nagusi duten mendiguneak hegoaldean. Erreenteriako hirigunearen inguruan eta landaguneen inguruan laborantzak eta belardiak nagusi dituen lurzorua erabileren mosaikoa mantentzen da.

Udal-mugartean ondorengo taulan ageri diren paisaia-unitateak kartografiatu dira:

20. taula. Paisaia-unitateak Erreenteriako udalerrian.

Paisaia-unitatea	Azalera (ha)	Udalerriko ehunekoa (%)
Hostozabal hostoerorkorrak ibai-eremuan	770,1	% 24,2
Baso-landaketak ibai-eremuan	629,1	% 19,7
Baso-sastraka mosaikoa ibai-eremuan	420,7	% 13,2
Nekazaritza-baso mosaikoa ibai-eremuan	398,6	% 12,5
Mosaiko mistoa ibai-eremuan	286,1	% 9,0
Nekazaritza ibai-eremuko belardi-eremuekin eta laborantza atlantikoekin	218,0	% 6,8
Hiritarra eremu antropogenikoan	171,6	% 5,4

Mosaiko mistoa eremu karstikoan	118,1	% 3,7
Baso-sastraka mosaikoa ibai-eremuan	109,3	% 3,4
Urtegia	36,7	% 1,2
Industrialia eremu antropogenikoan	24,0	% 0,8
Sastrakadia ibai-eremuan	3,3	% 0,1
Beste batzuk	3,1	% 0,1



44. irudia. Paisaia-unitateak Errenteriako udalerrian.

Udalerria hamar ikuspen-arroren artean dago, eta udalerriko zabalenak Iturri, Añarbe eta Errenteria dira.

Ikuspen-arroa	Paisaia-balioa	Egunerokotasuna	PBEA*	Udalerrri barruko azalera (ha)
Iturri	Txikia	Egunerokoa	Ez	1.218,3
Añarbe	Oso handia	Egunerokoa	Bai	1.146,9
Errenteria	Oso txikia	Egunero-egunerokoa	Ez	603,7
Paisaia	Oso txikia	Egunero-egunerokoa	Ez	107,0
Ereñozu	Ertaina	Egunerokoa	Ez	70,3
Landarbaso	Oso txikia	Egunerokoa	Ez	31,6
Uzpurun	Ertaina	Ez egunerokoa	Ez	7,7
Pagoaga	Oso txikia	Egunerokoa	Ez	6,4

Bai Katalogoan bai LPPren Aldaketan jasotako paisaia-zehaztapenen arabera, Donostialdeko Eremu Funtzionalak 29 Paisaia Unitate (PU) ditu, paisaiaren aldetik homogeenak diren eremuak eta lurraldearen gainerako eremuetatik bereziak, eta horien ganean paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko araubidea ezartzen da. Errenteriako udalerrian honako PU hauek daude:

KORRIDOREAK (KO)

- KO.4 Oarsoaldeko Korridorea

BADIAK ETA KOSTALDEKO HIRIGUNEAK (BH)

- BH.3 Pasaiaiko Badia

PRELITORALEKO MUINO FORMAKO ERLIEBEAK (PR)

- PR2. Urumea eta Oiartzun arteko hiri-inguruko espazioak

MENDI BARRENEKO MAZELAK ETA HARANAK (MB)

- MB.2 Oiartzun harana

BIGARREN MAILAKO GORAGUNEAK (BG)

- BG.3 Santiagomendi -San Marko mendiak

BARNEKO MENDIAK (M)

- M.2 Aiako Harria iparraldeko mendiak
- M.3 Añarbeko mendiak

Paisaia Kalitateko Helburuak (PKH) zehaztearen xedea da paisaia kontserbatzeko, kudeatzeko eta antolatzeko politikak zuzendu beharko lituzketen printzipioak ezartzea, herritarren ingurunearen paisaia-ezaugarriak gidatuko dituztenak.

Testuinguru horretan, hauek dira gune funtzional osorako proposatutako PKH **orokorrak**:

- 1.- Etorkizuneko bizitegi-garapenak edo jarduera ekonomikoak kokatzeko alternatibak azterketan pisu handiagoa duen paisaia-baliabidea sartzeara.
- 2.- Hirigintza-arauetan paisaiaren integrazioa modu eraginkorragoan txertatzea.
- 3.- Donostialdeko Eremu Funtzionalako paisaiaren balioa zabaltzea, hura kontserbatu eta hobetzeko bitarteko gisa eta garapen ekonomikoaren motor gisa.
- 4.- Hiritarrei paisaiarako sarbidea eta haren gozamina erraztea.
- 5.- Paisaia baliabidearen kontrolak eta azterketak zeharka gehitzea.

Hiri-kokaguneetarako PKHei dagokienez, Errenteriako udalerrian ondoren aipatzen direnak aplikatuko dira:

- 1.– Hirigune apartekoak kontserbatzea: Errenteriako Erdi Aroko Hiribildua (BH.3)
- 2.– Landaguneak kontserbatzea.
- 3.– Hiri-kokaguneetan dauden paisaia-balioko landare-formazioak kontserbatzea.

4.– Ikuspen-kalitate txikiko bizitegi-kokaguneak hobetzea:

- KO.4 Oarsoaldeko Korridorea. Erreterria: Beraun, Galtzaraborda, Pontika ibarbidea.
- BH.3 Pasaiaiko Badia. Erreterria: Agustinak, Alaberga, Basanoaga-Sorgintxulo, Beraun, Kaputxinoak, Galtzaraborda, Gaztaño, Iztietia, Pontika ibarbidea; Donostia: Gomistegi.

5.– Hiri-inguruko espazioak ikuspen aldetik hobetzea:

- PR.2 Urumea eta Oiartzun arteko hiri-inguruko espazioak
- BG.3 Santiagomendi-San Markos mendiak

6.- Herriguneetarako sarbideak ikuspen aldetik hobetzea:

- A-8tik Oiartzun eta Erreterriaranzko irteera

7.– Lurzoru urbanizatu hutsa hobetzea.

8.– Industrialdeak ikuspen aldetik hobetzea:

- KO.4 Oarsoaldeko Korridorea. Erreterria: Aranguren, Masti-Loidi
- BH.3 Pasaiaiko Badia. Erreterria: Paper-fabrika, portua.

Garraio, energia eta telekomunikazio azpiegituretarako zehaztaperen edo PKHei dagokienez, honako hauek aurkezten dira Erreterriako udalerrian eta bere ingurune hurbilenean:

1.- Garraio-azpiegituren elementuak eta ikuspenak hobetzea:

- AP-8 autobidearen eta GI-20 errepidearen arteko lotura hainbat mailatan (Erreterria eta Oiartzun alderako irteera barne)
- GI-20 eta GI-636 errepideen arteko lotunea, Erreterria eta Pasaiairako irteera.
- GI-636 errepidea eta trenbideak Paisaiaiko badiaren inguruan.

2.- Energia eta telekomunikazioak garraiatzeko deposituak eta azpiegiturek paisaian integratzea (linea elektrikoaren antenak eta dorreak).

3.- Bigarren mailako errepideen ikuspena hobetzea.

Erauzketa-jardueretarako, zabortegetarako eta hondakinak tratatzeko instalazioetarako PKHei dagokienez, honako hauek definitzen dira:

- Harrobi eta zabortegeen ikuspena hobetzen du. Udallerri inguruan gisa horretako eremurik identifikatzen ez bada ere, Lau Haizetako zabortegea dago (Donostia).
- Abandonatutako harrobien ikuspena hobetzea. Lau Haizetako harrobia (Donostia).

Abeltzaintza eta nekazaritza-erabileretarako PKHei dagokienez, honako hauek dira zehaztaperenak:

1.– Paisaian garrantzitsuak diren nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak kontserbatzea.

2.– Nekazaritza- eta abeltzaintza-paisaia (nekazaritza-industria) hobetzea

Baso-erabileretarako PKHei dagokienez, honako hau planteatzen da:

1.– Ikuspen handiko baso-landaketak hobetzea

2.– Formazio autoktonoak berrezartzea

Kultura-ondareari buruzko PKHak honako hauek dira :

1.– Ondarea militarra, erlijiosoa, industrial, zibila eta etnografikoa eta bide historikoak zaintzea eta mantentzea, paisaiaren ardatz gisa.

KO.4 Oarsoaldeko Korridorea

- PR-GI 1005 Errenteria
- Arditurriko Bide Berdea

BH.3 Pasaiaiko Badia

- Errukiaren eta Bidaia Onaren Andre Mariaren komentua (Errenteria)
- Errenteriolako burdinola
- Arditurriko Bide Berdea

BG.3 Santiagomendi-San Markos mendiak

- San Markos gotorlekua.
- Aldura mendia. Igoera Listorretatik
- PR-GI 1005 Errenteria
- Lau Haizeta parkea

MB.2 Oiartzun harana:

- Arditurriko Bide Berdea

PR.2 Urumea eta Oiartzun arteko hiri-inguruko espazioak. Prelitoraleko muino formako erliebeak

- PR-GI 1005 Errenteria

M.2 Aiako Harria iparraldeko mendiak

- Aldura mendia. Igoera Listorretatik

2.– Paisaiagatik garrantzitsua den Kultura Ondarea hobetzea, zaharberritzea eta balioestea. **Paisaia naturalei** buruzko PKHei dagokienez, honako hauek dira helburuak:

1.– Baliabide fisiografikoak kontserbatzea.

- Lau Haizeta parkea
- San Markos muinoa
- Txoritokietako muinoa
- Zarateaitz-Bunaniarri mendia
- Aldura mendia
- Urdaburu mendia
- Urumeako meandro formako harana

2.– LPPeko «Taldekatzeko urbano eta periurbanoaren» esparruan sartzen ez diren zuhaitz autoktonoen formazioak kontserbatzea.

- Añarbeko baso-erreserba. (Donostia, Errenteria, Oiartzun).

3.– Ur-xafla nagusien paisaia eta hari lotutako landaredia kontserbatzea:

- Malbazarko putzua (Errenteria, Hernani)
- Añarbeko urtegia (Errenteria, Oiartzun)

4.– Kostaldeko paisaia bikainak kontserbatzea.

5.– Zuhaitz apartekoak kontserbatzea.


6.– Ibaiertz-zatiak zaharberritzea eta hobetzea.

- Oiartzun ibaia.

Halaber, Paisaiaren Interes Berezikotako Eremuak (PIBE) mugatzen dira paisaia zuzentzeko tresna osagarri gisa.

Errenteriako udalerrian lau PIBE daude:

- Paisaia kontserbatzea eta bere balioa nabarmentzea: Talde honetako *Paisaiaren Ekintza Planen* helburua da hura kontserbatzeko eta babesteko ekintza multzo bat ezartzea eta, osagarri gisa, zabaltzeko eta balioa emateko egokitzeari begira. PIBEren aukeraketan, garrantzi berezia hartzen dute kudeaketa-tresna propiorik ez duten espazioek. Eremu horien artean daude “**Añarbeko mendiak**”.
- Paisaia kontserbatzea eta haren balioa nabarmentzea (antolamendu- edo kudeaketa-planen arabera): indarrean dauden edo prestatzen ari diren planen bidez antolatzen ari diren paisaia-unitateak identifikatu dira; esaterako, naturagune babestuak edo beste figura batzuek jaso eta babesten dituzten zenbait esparru aipagarri. Udalerrian bat dator Lau Haizetako Paisaiaren Ekintza Plana eta Santiagomendiko Paisaiaren Ekintza Plana aurkezten dituen “**Santiagomendi-San Markos mendiak**” unitatearekin.
- Bere paisaia zaharberritzea, hobetzea edo aldatzea: Paisaiaren hobekuntza orokorra teknikoki bideragarria eta sozioekonomikoki lehentasunezkoa duten paisaia-unitateak dira. *Paisaiaren Ekintza Planak* garatzeko, oro har, paisaia lehengoratzeko, hobetzea edo egokitzea aukeratu da, ikuspen-inpaktuak integratuz edo arinduz, bere osagai nagusien paisaia hobetuz edo horietan dauden elementuen balioa nabarmenduz edo haiek lehengoratuz. Errenteriako udalerrian dago “**Oarsoaldeko korridorea**”.
- Paisaia lehengoratzeko, hobetzea edo aldatzea (antolamendu- edo kudeaketa-planen arabera): Paisaiaren degradazio-maila handia duten paisaia-unitateak ere identifikatu dira, baina indarrean dauden edo prestatzen ari diren planen bidez antolatzen ari dira. Beraz, uste da ez dela beharrezkoa *Paisaiaren Ekintza Plana* berehala egitea, baina gaineratik dituzten planak aplikatzerakoan kontuan hartu beharreko paisaia hobetzeko gomendioak ezartzea. Udalerrian bat dator “**Pasaiako Badia**”rekin, Pasaia Portuko Plan Estrategikoaren bidez (2015/2025) eta gaur egun izapidetzen ari den *Pasaia Portuko zerbitzu-eremua antolatzeko Plan Bereziaren* bidez.



ÁREAS DE ESPECIAL INTERÉS PAISAJÍSTICO (AEIP)

- AEIP Conservación y puesta en valor de su paisaje
- AEIP Conservación y puesta en valor de su paisaje (bajo planes de ordenación o gestión)
- AEIP Restauración, mejora o modificación de su paisaje
- AEIP Restauración, mejora o modificación de su paisaje (bajo planes de ordenación o gestión)

46. irudia. Interes bereziko paisaia-eremuak (IBPE).

3.6 KULTURA ONDAREA.

Errenteriak Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (2004) esparruan Katalogo bat onartu zuen. Katalogo horretan, beren interes artistiko, kultural, historiko edo naturalistikoagatik, babes berezia izan behar

duzen udalerriko elementu eraikien eta espazio eta elementu naturalen zerrenda jasotzen da, horien gainean esku-hartze suntsitzaile edo degradatzaileak egin ez dadin.

Plan Orokor berria idazten denean, honek Katalogoa ere jasoko du, eta berrikusi egingo da, aurreikuspenak berresteko edo aldatzeko. Dena den, prozesuaren hasierako fase honetan egin beharreko eztabaidan indarrean dagoen Plan Orokorreko Katalogoko irizpideak eta zehaztapenak kontuan hartzea proposatzen da .

Alde horretatik, gaur egun udal katalogoan dauden elementuen zerrenda honela egituratzen da, ezarritako kategorien eta babes mailen arabera.

Ondare arkitektonikoa

Babes Berezia:

- Hirigune Historikoko monumentu-multzoa.
- Done Jakue bideko monumentu-multzoa

Babes ertaina:

- Agustindarren komentua
- Madalenako ermita
- Xenpelar etxea
- San Markos gotorlekua
- Txoritokieta gotorlekua
- Loidi baserria
- Txirrita baserria
- Mendaraz zentral hidroelektrikoa
- Arranbide zentral hidroelektrikoa
- Presa eta kanala
- Hiltegia
- Topoaren geltokia
- Kotxerak
- Errenteriako zubibidea
- La Papelera Española
- Bulegoak
- IESA
- Produkzio-eremua
- Administrazio-bulegoak
- 1. fasea Alaberga auzoa
- 2. fasea Alaberga auzoa
- Etxea Nafarroako etorb. 79, Viteri 48, Frantzisko Gaskuñe 1

TOKIKO INTERESA:

- Etxea Magdalena kaleko 36an

- Isturizaga Bekoa baserria
- Tobar baserria
- Zamarbide baserria
- Bordaondo baserria
- Anabitarte baserria
- Benta baserria
- Lartzabal baserria
- La Papelera Española – Arduradunen etxea
- Fanderia errota
- Hilerrri ohia
- Iturria
- IESA Estalpe-pabiloia
- IESA Bulego teknikoa
- Merka Oiartzun
- Topoaren zubibidea
- Fanderia pilotalekua
- Beraungo pilotalekua
- Ibon Zabala pilotalekua
- Herri Gain etxea
- Etxea Margola kaleko 2an
- Etxeak Markola kaleko 1, 3, 5 eta 7an, eta Miguel Alduntzin kaleko 25 eta 27an.
- Etxea Miguel Alduntzin kaleko 30ean
- Etxea Miguel Alduntzin kaleko 19an
- Etxea Miguel Alduntzin kaleko 23an
- Etxea Miguel Alduntzin kaleko 28an
- Etxea Gaztaño kaleko 43an
- Etxea Gaztaño kaleko 7, 8, 9, 10, 12, 13 eta 14an
- Etxea Zubiaurre kaleko 1 eta 3an, eta Urantzu kaleko 4an
- Etxea Cristobal Gamon kaleko 12an
- Lehenbiziko Lorea etxea
- Lore-Artean eta Lore-Toki etxea
- Josefina etxea
- San Antonio etxea
- Etxea Biteri kaleko 44an, Frantzisko Gaskuñe 4an
- Etxea Biteri kaleko 42an
- Etxea Segundo Ispizua kaleko 1ean
- Etxea Biteri kaleko 34 eta 36an
- Etxea Juan Ignacio Gamón zumartegiko 14an
- Etxea Kapitanea kaleko 24an
- Papelerako etxea

Ondare Arkeologikoa

Babes Bereziko Eremuak:

- Aizpitarteko kobak
- Igoin-Akolako estazio megalitikoak
- Txoritokietako estazio megalitikoak

Babes Ertaineko Eremuak:

- Hirigune Historikoko Eremu Arkeologikoko Monumentu Multzoa

Ustezko arkeologia-eremua (Gakoa):

Babes Berezia merezi duten ondasunak

- Txoritokietako estazio megalitikoak

Interes arkeologikoko zantzua duen eremua

- Xenpelar koba

Ondare Naturala

- Babes Zorrotzeko baso-eremuak
- Baso-eremu Babestuak
- Paisaia Interes Handiko Eremuak
- Formazio Geologikoak: Dolinak
- Zuhaitz Babestuak

Kultura-intereseko beste ondasun higiezin batzuk

- Arkitektura erlijiosoa
- Arkitektura militarra
- Arkitektura eta Industria-ingeniaritza
- Landa-arkitektura

Erretaulak

- Igokundeko erretaula
- Erretaula nagusia

Hirigune Historikoko eraikinak:

- Babes Berezia
- Babes ertaina
- Oinarrizko Babesa
- Interes Kulturala


3.7 INGURUMEN-PROZESUAK ETA -ARRISKUAK

Ingurumen-arrisku aipagarrienak *I. 10: Ingurumen-arriskuak I* eta *I.11: Ingurumen-arriskuak II* Planoetan irudikatu dira.

3.7.1 Uholde-arriskua


EAEko uholde-arriskuaren kartografiaren arabera (Geoeskadi)²², Erreterriako hirigunearen zati bat 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldietarako urpean gera daitezkeen eremuen barruan dago eta, ondorioz, lehentasuneko fluxu-eremuaren barruan.

Gainera, udalerrriaren hego-mendebaldeko muturrean, Urumea ibaiarekin lotutako 10 eta 100 urteko birgertatze-aldietan urpean gera daitezkeen orbanak daude.



47. irudia. Uholde-arriskua Erreterriako hirigune historikoan.

²² Uraren Euskal Agentzia. Geoeskadi.



48. irudia. Urumea ibaiari lotutako uholde-arriskua Errenteriako udalerraren hego-mendebaldeko muturrean igarotzen den zatian.

Uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua aplikatuz, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoak Uholde-arriskuaren Aldez Aurreko Ebaluazioa (EPRI) egin zuen. Horren emaitza Uholde-arrisku Esanguratsuko Eremuak (ARPSIak) hautatzea izan da, ondoren eremu horien uholde-kalteragin eta -arrisku mapak eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak egiteko. Plan horietan finkatuko dira uholde-arriskua kudeatzeko helburuak ARPSI bakoitzerako, eta egin beharreko jarduerak administrazio eskudun bakoitzarekin adostuta. Gainera, EAEn, lehentasunezko ariketa orokor bat egiten da, Uholde Arriskuaren Aurretiazko Ebaluazioan identifikatutako ibaietako eta trantsizioko ARPSIak taldeka sailkatzeko.

Urtarrilaren 20ko 20/2016 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 zikloari dagokion Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren (UAKP) arabera, Oiartzun ibaia, Errenteriako hirigunean igarotzen den zatian, III. taldekoa den ARPSI ES017-GIP-OIA-01 Oiartzunen sartuta dago. III. taldeak arrisku handiko ARPSIak hartzen ditu, I. eta II. taldeekin lotutako arazoak konpondu ondoren egitura-babesa eman behar zaie. Beraz, UAKPak ez du neurri zehatzik jasotzen dagokion ARPSIari buruz.

3.7.2 Akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna


Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasunaren 1:25.000 eskalako mapa kontuan hartuta, udalerrira akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun ertaina, txikia edo oso txikia duten eremuetan finkatuta dago. Kalteberatasun ertaina duten eremuak Landarbaso-Txoritokieta, Santiagomendi eta Txoritokietako lurpeko uren sektoreekin lotzen dira, interes hidrogeologikoko

kokalekutzat identifikatu direnekin. Udalerrian ez da identifikatu akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia edo oso handia duen eremurik.

3.7.3 Higadura-arriskua

Prozesu geologiko garrantzitsuen artean, isurialdeen edo mendi-hegalen dinamikak sortutako formak daude eta, zehazki, masa harritsu irristakorrak eta higadura aktiboko eremuak. Nekazaritzako eta Basogintzako LAPk identifikatu ditu eremu horiek. Higadura-arriskua duten eremuak identifikatzeko, Nekazaritza eta Basogintzako LAPk hala sailkatutako eremuak aukeratu dira.

Gainera, % 50etik gorako malda duten lurak identifikatu dira. Udalerriko orografia malkartsuaenez, lurzoru urbanizaezinen zati handi bat higadura-arriskuaren eraginpean dago, lur horien erabileraren araberak.



49. irudia. Eremu higagarriak eta % 50etik gorako maldak Errenterriko udalerrian.

3.7.4 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek²³


Irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartutako Kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioaren arabera eta Geoeuskadin eskuragarri dagoen inbentario hori eguneratzeko lanen arabera, udalerrian kutsatuta egon daitezkeen 149 lursail

²³ 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, kutsagarriak izan litezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. EHAA, 204. zk. 2008/10/24.

3.7.6 Sute-arriskua

Baso-suteen arriskua, batez ere eremuan eta inguruan dagoen landaredi-motak baldintzatzen du. Horregatik, arriskua baloratzeko kontuan hartzen dira landaredi-motak eta landaredi-moten berezko errekortasuna.

Geoeuskadi bisorean dagoen Eusko Jaurlaritzaren baso-suteetarako arriskuaren maparen arabera, udalerraren iparraldean sute-arriskua ezdeuza edo txikia da. Hegoaldeko erdian baso autoktonoak eta koniferoen eta hostozabalen baso-landaketak daude, eta arriskua ertaina eta handia da. Belardiek eta larreek sute-arrisku baxua-ertaina dute.



51. irudia. Sute-arriskua Errenteriako udalerrian.

3.7.7 Arrisku teknologikoak

3.7.7.1 Istripu-arriskua salgai arriskutsuen garraioan

Salgai arriskutsuen garraioa arautzen dute Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepideko Garraioari buruzko Europako Akordioak (ADR 2003) eta 'Trenbide bidezko Garraioaren Erregelamenduak (RID 2003) ezarritako esparruaren barruan, 'Salgai arriskutsuak errepidez eta trenbidez garraiatzean gerta daitezkeen istripu-arriskuei aurre egiteko Babes Zibilaren Plangintzaren Oinarriko Gidalerroa' onartzen duen 387/1996 Errege Dekretua argitaratu zen estatuan 1996ko martxoaren 1ean. Euskal Autonomia Erkidegoan, aipatutako Errege Dekretuaren testuinguruan, "Euskal Autonomia Erkidegoko Salgai Arriskutsuen Garraioaren fluxu-mapak" egin ziren 1998an, eta 2005ean eguneratu.

2005. urteko "EAEko Salgai Arriskutsuen Garraioaren Fluxu-Mapak" azterlanaren ardatza errepide eta trenbide bidez egindako salgai arriskutsuen fluxuak dira, osorik edo partzialki EAEko muga administratiboaren barruan gertatzen direnak. Salgai arriskutsuen fluxu horietatik abiatuta, biztanleentzat nahiz ingurune naturalerako duten arriskua kalkulatu du azterlanak.

Errenterriako udalerrian, GI-20 errepideak arrisku handia du, eta GI-636 eta GI-2132 errepideek, berriz, oso txikia. Kartografiatutako afekzio-banden arabera, Errenterriako hirigune osoa horietan sartuta geratzen da, baita GI-636 eta GI-2132 errepideen inguruko landa-eremu batzuk ere.

AP-8 autobidea, mapa horiek egin eta urtebetera eraikia, ez da kontuan hartu.

Trenbideei dagokienez, ADIF-RENFE trenbideak, hirigunearen iparraldetik doanak, arrisku ertaina du. Linea horren afekzio-banderak Errenterriako erdialdearen zati handiena hartzen dute. Hirigunea zeharkatzen duen Euskal Trenbide-Sarearen (ETS) linea ez da mapetan sartu.

3.7.7.2 Arrisku kimikoa – SEVESO enpresak

840/2015 Errege Dekretuak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen du 2012/18/UE Zuzentaraua (SEVESO III Zuzentaraua), gai arriskutsuak tartean diren istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeari buruzkoa. Errege Dekretu horren xedea da substantzia arriskutsuak tartean direneko istripu larriak prebenitzea eta istripu horiek giza osasunean, ondasunetan eta ingurumenean dituzten ondorioak mugatzea.

Arau horri dagokionez, ez da aurkitu arriskutsuak izan daitezkeen industria-jarduerekin lotutako industriarik udalerrian.

3.7.8 Zarata

Errenterriako udalerririk Udalaren zarata-mapak ditu²⁴, 2016ko uztaillean AAC Acústica y Lumínica enpresak eginak.

Errenterriako udalerririk Zarata Mapak lurretik 4 metrora immisio-mailak adierazten dituzte, igorpen-foku akustiko guztietarako (errepide- eta trenbide-zirkulazioa eta industria-jarduera), ebaluazio-aldi desberdinetarako: egunez (7:00etatik 19:00etara), arratsaldez (19:00etatik-23:00etara) eta gauez (23:00etatik 7:00etara).

Zarata-mapen txosten teknikoaren arabera, udalerririk zarata-foku nagusiak honako hauek dira:


- Udalerririk hirigunearen hego-ekialdetik zeharkatzen duen AP – 8 autobidea
- GI-20 errepidea (Donostiako lehen ingurabidea), AP-8 errepidearen trazadura zaharretik doana, hirigunearen hegoaldetik.
- GI – 636 errepidea, udalerririk mendebaldetik eta iparraldetik doana, mugako zati batzuetan udalerririk mugakideetarantz ateratzen dena.
- ADIFen trenbidea, udalerririk ekialdetik mendebaldera iparraldetik zeharkatzen duena, udalerririk mugatik oso gertu.
- ETSren trenbidea, ekialdetik mendebaldera doana erdigunean barrena.
- Pasaiko portuaren jarduera.

²⁴ Errenterriko udalerririk zarata-mapak. 2016ko uztaila. AAC Acústica y Lumínica. Errenterriko udalarentzako egindako txosten teknikoa. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak babestua.


Erreterian, errepideetako zirkulazioa (bereziki GI-20 eta AP-8 errepideetako) da inguruan zarata gehien sortzen duena. Eraginpeko biztanleen ikuspegitik, bideetako trafikoa (kaleak eta errepideak) da afekzio handiena sortzen duena.

Udalerriko zarata-mapetan lortutako emaitzetatik ondorio hauek atera daitezke:


- Gauekoa da aldirik okerrena, hau da, jende-kopuru handienari eragiten dion aldia.
- Udalerrian zarata-afekzio handiena bide-trafikoak sortzen du.
- Hiri-trafikoari dagokionez, etxebizitzetan zarata-mailarik handiena sortzen dutenak Nafarroa etorbidekoa eta San Markos kalekoa dira.
- Errepideei dagokionez, batez ere GI-20 eta A-8 errepideek sortutako mailak altuak dira; Beraun kalean eta udalerriko ekialdean dute afekzio handiena.
- Eraginpeko biztanleriaren azterketari dagokionez, legeriak eskatzen duena baino azterketa zehatzagoa egin da; eraikinen altuera guztietan zer biztanleri eragiten dien jakitea lortu da, eta ondorio hauek atera dira:
 - Errepideak dira kalitate akustikoaren helburuen artean biztanle-kopuru handiena (ondoren kaleetako zirkulazioa) sortzen duten zarata-fokuak, eta baita zarata-maila handiena sortzen dutenak ere.
 - Trenaren zaratak eragindako biztanleria % 1 da, eta aldirik okerrena gauekoa da.
 - Industria-jarduerari dagokionez, eraginpeko biztanleria % 1 baino gutxiago da.
 - Erreterian, egunez, arratsalde eta gauez bizitegi-eremu bati aplikatu beharreko kalitate-helburuen gainera dagoen eraginpeko biztanle-kopurua (inguruneke zarata-gune guztiak eta altuera guztiak kontuan hartuta) % 7 - % 4 - % 16 da, hurrenez hurren.
 - Aldirik okerrenari dagokionez, hau da, gauari dagokionez, biztanleen % 3k 5 dB(A) baino gehiagotan gainditzen ditu helburu horiek, eta 10 pertsona baino gutxiagok jasaten dute adierazitako balioak baino 10 dB(A) gehiagoko zarata-maila.
 - Aitzitik, biztanleen erdiak baino gehiago, % 57 inguru, eguneko aldi guztietan zarata-maila kalitate akustikoaren helburua baino 5 dB(A) txikiagoa duten eremuetan aurkitzen dira, hau da, eremu lasaietako zarata-maila duten eremuetan.



52. irudia. Errenteriako Zarata Guztiaren (egunez) Maparen zatia.



53. irudia. Errenteriako Zarata Guztiaren (arratsaldez) Maparen zatia.



54. irudia. Errenterriako Zarata Guztiaren (gaugez) Maparen zatia.

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAEko kutsadura akustikoari buruzkoak, ezartzen du udalerriei dagokiela “udalerriko lurralde-eremuan integratutako eremu akustikoak mugatzea eta onartzea, egungo erabilerei eta udal-plangintzan aurreikusitakoei dagokienez”.

Hala, udalerriko zonakatze akustikoak, 2016ko irailean egindakoak, bere lurraldean aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak (KAH) ezartzen ditu, eta eremu akustikoen mugapenean oinarritzen da oraingo eta aurreikusitako lurzorua erabilera nagusiei erreparatuta, 213/2012 Dekretuko III. Eranskineko gomendioei jarraiki. Beraz, zonakatze akustikoak eremu urbanizatuei eta hirigintza-garapen berriei eragiten die.

213/2012 Dekretuaren arabera, honako hauek dira udalerriko zonakatze akustikoan kontuan hartzen diren eremu akustikoak:

- a) bizitegi-erabilerako lurra nagusi duten lurraldeko esparruak/sektoreak. Eremu horrek ia hirigune osoa hartzen du. Gainera, lurzoru urbanizagarrian etorkizunean egingo diren bizitegi-garapenak ere sartzen dira, hala nola Alzate, Esnabide, Gamongoa, Palaziozarra/Larretxipi, Perutxene, Sagasti, Zamalbide berri eta Tolare berri.
- b) industria-erabilerako lurra nagusi duten lurraldeko esparruak/sektoreak. Eremu horretan sartzen dira udalerraren barruan geratzen den portuko eremua, lurzoru urbanizagarrian dauden industrialdeak eta etorkizuneko industria-garapenak, hala nola Urkiolan.

c) Jolas- eta ikuskizun-erabilerako lurra nagusi duten lurraldeko esparruak/sektoreak. Tipologia horretan sartzen dira kirol-jarduera garrantzitsuetarako eremuak, hala nola Fanderiako kirol-eremua.

e) Osasun-, irakaskuntza- eta kultura-erabilerako lurra nagusi duten lurraldeko esparruak/sektoreak, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia eskatzen dutenak. Mota horretako eremu akustiko gisa sailkatu dira Don Bosco ikastetxea dagoen eremua, Basanoaga/Sorgintxulorekin batera, eta Langaitz eta Añabitarte eremua.

f) Garraio-azpiegiturako sistema orokorretara edo hala eskatzen duten beste herri-ekipamendu batzuetara lotutako lurraldeko esparruak/sektoreak. Bat datoz HAPON adierazitako jabari publikokoko eremuekin. Eremu horietan daude kale nagusiak eta GI-636, GI-20, AP-8 eta AP-1 errepideak, eta baita ETSren eta ADIFen trenbideak ere.

g) Arloko legeria arautzailearen arabera babestuzat aitortu diren naturaguneetan eta kutsadura akustikoaren aurka babes berezia behar duten naturaguneetan definitutako lurraldeko esparru/sektoreak. Eremu akustiko horretan sartzen dira Lau Haizeta eta Aiako Harria parke naturalak.


Honako hauek dira udalerriko zonakatzean definitutako eremu akustiko bakoitzerako eta eguneko (L_d), arratsaldeko (L_e) eta gaueko (L_n) aldietarako kalitate akustikoaren helburuak:

TIPO DE ÁREA	ÁREA ACÚSTICA	OBJETIVOS DE CALIDAD	
		L_d / L_e (dB(A))	L_n (dB(A))
A	Sectores del territorio con predominio de suelo de uso residencial	65	55
A futuro	Sectores del territorio con predominio de suelo de uso residencial. Nuevo desarrollo	60	50
B	Sectores del territorio con predominio de suelo de uso industrial	75	65
B futuro	Sectores del territorio con predominio de suelo de uso industrial. Nuevo desarrollo	70	60
C	Sectores del territorio con predominio de uso recreativo y de espectáculos.	73	63
E	Sectores del territorio con predominio de suelo de uso sanitario, docente y cultural que requiera una especial protección contra la contaminación acústica	60	50
G	Sectores del territorio definido en los espacios naturales declarados protegidos de conformidad con la legislación reguladora de la materia y los espacios naturales que requieran una especial protección contra la contaminación acústica	60	50

Nota: estos OCA están referenciados a una altura de 2 m. sobre el nivel del suelo y a todas las alturas de las edificaciones en el exterior de las fachadas con ventana.

Para la evaluación de los resultados del Mapa de Ruido, se referenciarán los OCA a una altura sobre el terreno de 4 metros.

55. irudia. Errenterriako udalerriko eremu akustikoetarako 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (KAH) Iturria: Errenterriako udalerriko Zonakatze akustikoaren txosten teknikoa, 2016.



56. irudia. Errenteriako udalerriko zonakatze akustikoa. Iturria: Errenteriako udalerriko Zonakatze akustikoaren txosten teknikoa, 2016.

3.7.9 Airearen kalitatea

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea kutsadura-mailak kontrolatzeko eta zaintzeko tresna da. Sare horrek airearen kalitateari buruzko araudiak adierazitako kutsatzaileak neurtzen dituzten analizagailuak eta sentsoreak ditu, batez ere, sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoak (NO eta NO₂), ozono troposferikoa, karbono monoxidoa (CO), bentzenoa eta partikula esekiak (PM₁₀ eta PM_{2.5}). Airearen kalitatearen ebaluazioa urtero egiten da, kontrol-sarean erregistratutako datuetatik abiatuta.

Sareak 8 unitatetan banatzen du EAEko lurraldea. Azterketa-eremua 'Donostialdea' unitatean (ES1604) dago, eta 348,4 km²-ko azalera eta 401.276 biztanle ditu.

Aipatutako sarearen 2018. urteko txosteneko datuen arabera, eta Erreteriatik gertuen dauden kontrol estazioen arabera, Lezo estazioan PM₁₀ kutsatzaileak oso maila ona du. Hernaniko estazioan, airearen kalitatearen indizearen arabera, SO₂ eta NO₂ kutsatzaileek oso maila ona dute.

Ategorrietako estazioan, oso balio onak daude PM_{2.5}-arentzat, eta CO-k kutsatzaile horrentzat araudian ezarritako mugatik beherako balioak ditu.

Eustaten "Euskadiko Autonomia Erkidegoko eremukako airearen kalitatearen indizea eta jasagarritasun-adierazlea" lanaren arabera, 2018. urtean eta Donostialdea eremuan airearen kalitatea oso ona izan zen 23 egunetan, ona 307 egunetan, hobetzeko modukoa 33 egunetan eta txarra bi egunetan. Horregatik, Donostiako unitateak % 99,45eko jasagarritasun-adierazlea du.

3.7.10 Klima-aldaketa

Ihobek "*Klima-aldaketaren aurrean euskal udalerriek duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa*" dokumentua argitaratu zuen 2019ko urtarrilean. Azterlanean lehentasunezko eragin-kate kopuru mugatu bat identifikatu eta hautatu da, EAEko udalerrien kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa haien gainean mugarriztatu eta bideratzeko. Inpaktu-kate horien bidez, klima-mehatxu jakin baten (egungoa edo etorkizuneko) eta sektore, eremu edo hartzaile jakin baten arteko kausa-efektu erlazioak jaso daitezke.

EAEko testuinguru klimatikoari dagokion informazioa eta haren sektore nagusietako batzuetan sor ditzakeen eraginak kontuan hartuta, kate hauek hartu dira kontuan ebaluazioa egiteko: "Bero-boladek giza osasunean duten eragina", "Ibai-uholdeek hiri-ingurunean duten eragina", "Itsas maila igotzearen ondoriozko uholdeek hiri-ingurunean sortutako inpaktua", eta "Nekazaritza-lehorte handiagoa izateak ekonomia-jardueretan eragindako inpaktua, batez ere nekazaritza-ingurunean".

Kalteberatasunaren osagaiak eta hautatutako inpaktu-kate bakoitzerako arriskua ondoen bereizi dezaketen datu-motak hautatu dira, hau da, mehatxua edo arriskua, esposizioa, sentikortasuna eta erantzuteko/egokitze gaitasuna. Azterketa horretan, bi egoeratan baloratzen dira arriskuak (RCP 4.5 eta RCP 8.5). Horiek berotegi-efektuko gasen emisioaren arabera definitzen dira, eta RCP 8.5 da kaltegarriena.

Hain zuzen ere, Erreterriako udal-mugarrea arestian aipatutako lau inpaktu-kate horien eraginpean dago:

- Bero-boladek eragindako inpaktuari dagokionez, 2011-2040 aldian, bai RCP 4.5 egoeran, bai RCP 8.5 egoeran, arriskua % 9 handituko litzateke, 1971-2000 erreferentzia-aldiko arriskuarekin alderatuta. 2071-2100 aldian, ordea, igoera hori are handiagoa izango litzateke: % 23 RCP 4.5 egoeran eta % 30 RCP 8.5 egoeran.
- Ibai-uholdeek hiri-ingurunean duten eraginari dagokionez, 500 urteko birgertatze-aldia duen uholde-eremua 100 urteko birgertatze-aldia izango duen etorkizuneko uholde-eremuaren hedaduraren lehen hurbilketa gisa hartu da. Hala, ikus daiteke 2011-2040 aldian, RCP 4.5 egoeran, arriskuaren aldakuntza % 1,7koa dela 1971-2000 erreferentzia-aldiarekiko, eta RCP 8.5 egoeran, % 0,1ekoa izango litzatekeela arriskua. 2071-2100 aldian, arriskuaren aldaketa % 5,3koa da RCP 4.5 egoeran, RCP 8.5 egoeran izango litzatekeena baino txikiagoa (% 7,2).
- Itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholdeek hiri-ingurunean izango luketen inpaktuari dagokienez, 2050ean, bai RCP 4.5 egoeran, bai RCP 8.5 egoeran, arriskuaren aldaketa % 1ekoa izango da 2016. urtearekiko. Aldakortasun hori are nabarmenagoa da 2100. urtean, bereziki egoera txarrean: % 4,1 RCP 4.5 egoeran eta % 10,1 RCP 8.5 egoeran.
- Lehortea handitzeak jarduera ekonomikoetan (bereziki nekazaritzakoetan) izango lukeen eraginari dagokionez, 2011-2040 aldian, eta RCP 4.5 egoeraren arabera, arriskua % 2,2 haziko litzateke 1971-2000 erreferentzia-aldiko arriskuarekin alderatuta. RCP 8.5 egoeraren arabera, arriskua % 1,3 handituko litzateke. 2071-2100 aldian, bestalde, igoera hori nabarmenagoa izango litzateke, % 3,5koa RCP 4.5 egoeran, eta % 9,3koa RCP 8.5 egoeran.

Errenteriako egungo eta etorkizuneko arrisku klimatiko nagusiak honako hauek dira: bero-boladek giza osasunean duten eragina eta ibai-uholdeek hiri-ingurunean duten eragina. Horrez gain nabarmendu behar da, etorkizunean, itsas-maila igotzearen ondoriozko uholdeek hiri-ingurunean izango duten eraginari dagokionez, handitu egingo dela udalerriak EAEko gainerako udalerriekiko duen posizio erlatiboa.

Lehortea handitzeak jarduera ekonomikoetan eta, bereziki, nekazaritzako ingurunean duen eragina da udalerrian kalte gutxien eragingo duen arriskua.

21. taula. Klima-aldaketak Errenteriako udalerrian eragindako inpaktu-kateak.

Inpaktu-katea	Indizeak	Arriskua				
		Erreferentzia-aldia 1971-2000	2011-2040 aldia.		2071-2100 aldia.	
			RCP 4.5	RCP 8.5	RCP 4.5	RCP 8.5
Bero-boladek giza osasunean duten eragina	Balio normalizatuak (1-2)	1,2640	1,3528	1,3562	1,4948	1,5652
	EAEko gainerako udalerriekiko posizio erlatiboa (1-10 dezilak)	9	9	9	9	9
Ibai-uholdeek hiri-ingurunean duten eragina	Balio normalizatuak (1-2)	1,6445	1,6612	1,6456	1,6979	1,7162
	EAEko gainerako udalerriekiko posizio erlatiboa (1-10 dezilak)	9	9	9	9	9
Itsas-mailaren igoeraren ondoriozko	Balio normalizatuak (1-2)	1,1230	1,1328	1,1331	1,1636	1,2236

uholdeek hiri-ingurunean duten eragina	EAEko gainerako udalerriekiko posizio erlatiboa (1-10 dezilak)	2	2	2	4	5
Lehortea handitzeak jarduera ekonomikoetan (nekazaritza) duen eragina	Balio normalizatuak (1-2)	1,3257	1,3474	1,3389	1,3611	1,4188
	EAEko gainerako udalerriekiko posizio erlatiboa (1-10 dezilak)	2	2	2	2	2

Nolanahi ere, udalerriri eragiten dioten inpaktu-kateak lurraldearen antolamenduan (lurzoruaren sailkapena, zonakatzea, etab.) oso kontuan hartu beharreko alderdiak dira, eta baita etorkizunerako esku-hartze eremuen proposamenen eta hiri-kokaguneen diseinuan ere (bizitegiak, industriak, ekipamenduak, etab.).

Errenteriako Udalak Klima Aldaketara Egokitzeko Plana (2018) egin du. Honako hauek dira haren helburu estrategikoak:

4. Errenteriako biztanleria klima-aldaketara egokitzea.
5. Klima-aldaketa barne hartuko duen udal-kudeaketa arduratsua garatzea.
6. Klima-aldaketarekiko udalerrri erresilientea diseinatzea.

Planaren helburu estrategikoak 6 xede lortuz eta 32 ekintza ezarriz erdietsiko dira.

1. XEDEA: Biodibertsitateak kontserbazio-maila handia du, eta udalerriko zerbitzu ekosistemikoak baloratu eta lehenetsi egiten dira.
2. XEDEA: Hiri-lurzoruaren eremua erresilientea da klima-aldaketaren aurrean.
3. XEDEA: Udalerriko ura banatzeko eta saneatzeko sistema optimizatuta dago.
4. XEDEA: Udal-plangintzetan sartzen da klima-aldaketara egokitzea.
5. XEDEA: Biztanleria klima-aldaketari buruz informatuta eta sentsibilizatuta dago eta, horrela, bere erresilientzia handitzen da.
6. XEDEA: Klima-aldaketak Errenteriako herritar guztiengan izango dituen ondorioak ezagutzen dira eta haien gizarte-ongizatea bermatuta dago.

32 neurriak biodibertsitatearen, hirigintzaren (kanpoaldea eta barrualdea), osasunaren eta uraren esparruei zuzenduta daude. Neurrien lehentasunaren arabera, jarduteko hiru epemuga ezarri dira: epe laburra (2017-2020), epe ertaina (2021-2025) eta epe luzea (2026-2030).

22. taula. Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Planean ezarritako 32 neurriak lehenestea eta horiek gauzatzeko denbora-esparrua.

Neurria	Epe laburra	Epe ertaina	Epe luzea
1.6 Ibai-ibilguak prestatzea klima-aldaketari aurre egiteko.	2020		
2.2 Eraikinetan eraginkortasun-irizpide jasangarriak ezartzea.	2020		
3.4 URari ARPSIaren berrikuspena egiteko eskatzea.	2020		
4.1 Hornidura- eta saneamendu-sarearen plan zuzentzailea idaztea eta garatzea.	2020		

Neurria	Epe laburra	Epe ertaina	Epe luzea
4.2 Uholde eta lehorteei buruzko udal-plangintzetan klima-aldaketaren zeharkakotasuna azaltzea.	2020		
4.3 Klima-proiektzioak eta egokitzapen-irizpideak larrialdi-planetan eta babes zibilean txertatzea.	2020		
4.4 Erreneriako hiri-antolamendu orokorraren planean jasagarritasunaren eta klima-aldaketaren irizpideak sartzea.	2020		
5.1 Klima-aldaketara egokitzeko sentsibilizazio- eta erantzukizunkidetasun-kanpainak egitea.	2020		
5.3 Klima-aldaketaren arriskuak integratzea (bero-kolpea, deshidratazioa, etab.) talde sentikorrenekin (haurrak, gaixoak, hirugarren adineko pertsonak, etab.) lan egiten duten pertsonentzako prebentzio sanitarioko jardueretan).	2020		
5.4 Udal mailako ekonomia zirkularra bultzatzea.	2020		
6.1 Pobrezia energetikoaren azterketa egitea eta jarduketa-protokoloa prestatzea.	2020		
6.4 Erreneriako atmosferaren kalitatearen jarraipena egitea.	2020		
1.1 Izurriteen eta landare inbaditzaileen kontrola bultzatzea.		2025	
1.2 Babestutako naturaguneen kudeaketan klima-aldaketara egokitzeko irizpideak sartzea.		2025	
1.3 Lehorteari eta muturreko tenperaturei aurre egiteko espezie autoktonoen erabilera sustatzea.		2025	
1.5 Aiako Harria parke naturalaren azalera handitzea.		2025	
3.1 Etxebizitzetan kontagailu indibidualak instalatzea.		2025	
3.2 Udalerriko sareko ur-galerak murriztea.		2025	
3.3 Bizitegi-sektorean eta sektore publikoan ura tratatu eta berrerabiltzeko sistemak aztertzea.		2025	
3.5 Ur-baliabideen kalitatea bermatzea		2025	
4.5. Arrisku klimatikoko eremuetan dauden etxebizitzak babesteko plana garatzea.		2025	
4.6. Lorezaintza-plan berritzailea garatzea, biodibertsitatea eta ekosistemak hiri-lurzoruan txertatzeko.		2025	
4.7. Egungo azpiegitura berdea mantendu eta hobetzea, udalerria ez dadin hazi lurzoria gehiago artifizializatzearen kontura.		2025	
5.2. Udalerriko sektore ekonomikoak klima-aldaketari buruzko gaietan prestatzea.		2025	
5.5. Hezkuntza-sistemaren etapa guztietan klima-aldaketaren gaia sartzea.		2025	
6.2 Klima-aldaketak Errenerian dauden kolektiboetan dituen ondorioak aztertzea, adingabeak, migratzaileak, hirugarren adineko pertsonak, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak eta abar barne hartuta.		2025	
6.3 Klima-aldaketaren arriskuak Erreneriako gizarte-politikan txertatzea.		2025	
1.4 Aiako Harria eta Lau Haizeta naturaguneen arteko korridore ekologikoa aktibatzea.			2030
2.1 Udalerriko eraikinetan teilatu berdeak jartzeko aukera aztertzea			2030
2.3 Itsas mailaren igoerak Erreneriako azpiegituretan izan ditzakeen ondorioak aztertzea.			2030
2.4 Drainatze Jasagarriko Hiri Sistemak (DJHS) leku egokietan instalatzea, Saneamendu Sareko Plan Zuzentzaileari jarraituz.			2030
2.5 Lerradura-arriskuaren azterketa eta azterketa horren ondorioen arabera neurriak garatzea.			2030

3.8 METABOLISMO HIRITARRA

3.8.1 Homidura eta saneamendua

Añarbeko Urak, S.A. Añarbeko Uren Mankomunitateko kudeaketa-sozietate publikoa da eta, beste 9 udalerritakoekin batera, Errenteriako udalerrirako edateko uraren horniduraz eta saneamenduaz eta hondakin-uren arazketaz arduratzen da.

Errenteriako ur-horniduraren sistema honako hauek osatzen dute: Añarbeko urtegia, Petritegiko (Astigarraga) EUA (edateko uren araztegia) eta udalerrian dauden edateko ura banatzeko deposituak (Abrin, Gamongoa, Sabara eta San Markos).

Errenteriako edateko uraren eskaria, biztanle eta eguneko, 153,54 litro/biztanle/egun dela kalkulatu da (Udalmap 2018).

Saneamendu sistemari dagokionez, tratatu beharreko hondakin urak Loiolako HUAra (hondakin uren araztegia) bideratzen dira, Herrerako kolektore nagusiaren bidez.

3.8.2 Hondakinak

Errenteriako hondakinen bilketa San Markosko Mankomunitateak kudeatzen du. Mankomunitateak Donostialdeko 10 udalerrri hartzen ditu.

Mankomunitateak hainbat azpiegitura ditu, hala nola ontzien instalazioa (hautaketa eta tratamendua), transferentzia-instalazioa (hondakinen bolumena murrizten du trinkotze-sistemaren bidez), Merkabugati (birziklatzea), Aizmendi (hondakin inerteen eta ez-arriskutsuen zabortegea) eta Garbiguneak.

Transferentzia-instalazioa Errenteriako ipar-mendebaldeko muturrean dago, San Markos inguruan.

Udalmap-en eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Errenteriako hiri-hondakinen sorrera, biztanle eta urteko, 374,51 kg/bizt./urte izan zen (2009. urtea). Biztanleko hondakin arriskutsuen kudeaketari dagokionez, 9,78 kg kg/bizt./urte izan zen (2004. urtea).

3.8.3 Energia

Udalmap-en arabera, 2018an Errenteriako urteko kontsumo elektrikoa 8.721,23 Kwh/biztanleko izan zela kalkulatu da. Urteko kontsumo elektriko ez-industrialak 2.141,58 kWh/biztanleko da, eta industria-sektorekoa, 6.580,63 Kwh/biztanleko.

Udalerrian instalatutako potentzia fotovoltaikoa (2017. urtea) 68,53 Kw da 10.000 biztanleko; potentzia eolikoa, 101,64 Kw 10.000 biztanleko; potentzia hidraulikoa, 313,05 Kw 10.000 biztanleko; eta eguzki-azalera termikoa, 11,69 m² 10.000 biztanleko.

3.9 MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

3.9.1 Irisgarritasuna

Erreneriak hainbat garraio-azpiegitura ditu, udal-mugarteko hainbat eremutarako sarbidea ematen dutenak.

Errepideei dagokienez:

- GI-20: Donostiako saihesbidea.
- AP-1 eta AP-8:
- GI-2132 errepidea: N-1 errepidetik (Lasarte-Oria) GI-636 errepidera (Lartzabal) Errekalde eta Astigarragan barrena.
- GI-636: Erreneriatik Irunera.
- GI-3671: Astigarragako Benta auzotik Pontika auzora.
- GI-3672: Zamalbide auzotik Alduntzin auzora.

Trenbideei dagokienez:

- ETSk kudeatutako Bilbo-Donostia trenbideak Erreneriako hirigunea zeharkatzen du eta hiru geltoki ditu udalerrian (Galtzaraborda-Erreneria, Erreneria eta Fanderia-Erreneria).
- Renfek kudeatutako Brinkola-Irun lineak, Erreneriako hirigunearen iparraldetik igarotzen denak, geltoki bat du udalerrian (Lezo-Erreneria geltokia).

Mugikortasun ez-motordunari dagokionez, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak 1. Donostia-Irun ibilbidean eta 1.3 Lartzabal–Arditurri eta 1.4 Gabierrota-Ugaldetxo adarretan sartu du Erreneria. Foru sarearen konektibitatea bermatzeko, Erreneriako hiriguneko sarrera- eta irteera-puntuak ezartzen ditu eta hura zeharkatzen duen hiri-ibilbidea proposatzen du.

3.9.2 Mugikortasuna

Erreneriako Udalak, Ingurumen eta Mendi Sailak koordinatuta eta Trafiko eta Hirigintza Sailekin elkarlanean, Oinezkoen eta Txirrindularien Mugikortasun Plana (aurrerantzean OTMP) prestatu zuen 2015eko maiatzean. OTMPren esparruan, “Erreneriako oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari buruzko azterketa” egin da. Azterketa horrek Erreneriako udalerrri barruan egiten diren joan-etorrien gaur egungo egoerari buruzko diagnostiko orokor bat du. Azterketa horren arabera, biztanleen % 80,5ek Errenerian joan-etorriak egiteko modua oinezkoa da. Autoaren edo motorraren erabilera eta garraio publikoa bigarren tokian daude, joan-etorrien % 9,3rekin garraio-mota motordun bakoitzerako. Herritarren % 1ek baino ez du erabiltzen bizikleta eta, gehienek udalerrri barruko joan-etorrietarako erabiltzen dute.

Udalez gairik joan-etorriei dagokienez, Udalmap aplikazioak nahitaezko mugikortasunari buruzko adierazle batzuk ematen ditu, hau da, lanean edo ikasten ari diren pertsonak etxetik lantokira edo ikastetxera egunero egiten dituzten joan-etorri guztiak.

23. taula. Nahitaezko mugikortasunagatik garraio-premiak dituzten biztanleen ehunekoak.

Joan-etorriaren xedea	Erreterria	Eskualdea	EAE
Herritik kanpo lan egiten duten 16 urteko eta gehiagoko biztanleak	% 78,2	% 52,7	% 56,5
Herritik kanpo ikasten duten 16 urteko eta gehiagoko biztanleak	% 74,0	% 53,4	% 64,2

Udalerrriak udalerritik kanpo lan egin edo ikasten duten biztanleen ehuneko handia badu ere, eskualdeko edo EAeko datuekin alderatuta, 0,56 ibilgailu/biztanleko tasa du, eskualdeko edo autonomia erkidegoko tasa baino txikiagoa (0,64 - 0,62). Datu horietatik ondoriozta daiteke udalerritik kanpo mugitzen diren biztanleen kopuru handi batek garraio motordun ez-pribatuak edo garraiobide ez-motordunak erabiltzen dituztela.

3.9.3 Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasunaren diagnostikoa

Arestian esan den bezala, Erreterriako Oinezkoen eta Txirrindularien Mugikortasun Planak (2015eko maiatzean egin zen) bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatu nahi du hirigunean, eta oinezkoentzako joan-etorriak seguruagoak, erosoagoak eta erakargarriagoak egitea.

Planak diagnostikoa egiten du eta oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna hobetzeko hainbat jarduketa proposatzen ditu.

Lehentasunezko oinezkoen sarean atzemandako arazoak konpontzeko jarraibideei dagokienez, estrategia bat proposatzen da, hainbat udal-jarraibide eta -ekintzarekin, helburu orokor hauek betetzeko:

- Oinezkoentzako bideen erosotasuna hobetzea.
- Oinezko joan-etorriak laburtzea eta erraztea.
- Ibilgailuek harrapatzeko arriskuak murriztea.
- Oinezkoentzako eremu erakargarria, segurua eta bizitzekoa sortzea.
- Zarata eta kutsadura atmosferikoa gutxitzea.

Aipatutako helburu orokor horiek betetzeko, gainera, jarduketa zehatz bihurtzen diren berariazko helburu hauek proposatzen dira:

- Abiadura moteltzea: Alaberga Auzoa kalea, Sorgintzulo kalea, Beraun kalea.
- Oinezkoentzako espazioa berreskuratzea: Sorgintzulo kalea, Galtzaraborda kalea, San Marko kalea.
- Oinezkoa ahalduntzea: Sorgintzulo kalea, Urbasa kalea - Aralar plaza, Andoni Korta kalea - Aralar plaza.
- Kalitatea lehentasunezko sareko ibilbideetan: Aiako Harria kalea, Maurice Ravel kalea, Pontika kalea.
- Ibilbideei buruz informatzeko seinaleak

Txirrindularien mugikortasuna hobetzeko ekintzei dagokienez, 25,1 km-ko luzera duen sarea proposatzen da. Sare horrek lehendik zeuden 11,8 km-ak hartzen ditu, eta horiei beste 13,3 km gehituko litzaizkieke, bai eta 30eko eremuen sarea ere. Sare horretan, hainbat neurriren bidez, txirrindularien zirkulazioa erraztu daiteke, "ad hoc" bizikleta-bideak diseinatu gabe.


Proposamen berria Erreterriako hirigunean oinarritzen bada ere, inguruko beste udalerrri batzuekin, hala nola Pasaia, Lezo eta Oiartzunekin, koordinatutako eskualde eskeman integratzeko asmoa du. Gune

horietako eta eskualdeko industrialdeetako gehienak Errenteriako hirigunetik 3-4 km baino gutxiagora daude eta, beraz, hiriko bizikletaren ekintza-erradioak erabat estaltzen dituen distantziak dira.

Bizikleta-bide mota egokiena proposatu da tarte bakoitzerako: Bizikleta-pista, Bizikleta-espaloia, Bidegorria galtzadan, Bidegorria kontrako alderako galtzadan, Bizikleta-banda, Bide mistoa, Bizikleta-kalea, Txirrindulari eta oinezkoentzako, Bizikleta-zidorra.

Gainera, bide-azpiegituz gain, bizikletaren erabilera sustatzeko neurri osagarri ugari proposatu dira (aparkalekuak, araudiak, publizitatea, ikaskuntza, etab.).

Horrela, mugikortasun jasangarria eta ez-motorduna bultzatu nahi dira Errenteriako hirigune barruan egiten diren joan-etorrietarako.



57. irudia. Errenteriako Oinezkoen eta Txirrindularien Mugikortasun Planaren proposamena.

3.10 INGURUMEN ETA PAISAIA ALDETIK HOMOGENEOAK DIREN UNITATEAK

Udal-mugarteko eremuetako ingurune fisikoaren, ingurumen-prozesu eta -arriskuen eta paisaiaren ezaugarriak aztertuta, sei ingurumen-unitate homogeneo identifikatu dira. Unitate horiek lau eremutan multzokatu dira (basokoa, nekazaritzakoa, ibaikoa eta hirikoa), eta ingurumen-kalitatearen balorazio nahiko homogeneoa dute, bai eta erabilera espezifikorako gaitasuna edo bokazioa ere.

24. taula. Ingurumen-unitate homogeneoak.

Jabaria	Ingurumen Unitate Homogeneoa
Ibaia	1.- Ibai-sistema eta urtegiak
Basoak	2.- Babes-basoa edo kontserbaziokoa 3.- Produkzio-bokazioko basoa
Nekazaritza-abeltzaintza	4.- Balio agrologiko handiko lurzorua 5.- Nekazaritza-abeltzaintzako landazabala
Hiritarra	6.- Hiri-lurzorua eta lurzoru eraldatuak

Ingurumen-unitate homogeneoak ***l.11: Ingurumen-unitate homogeneoak planoan*** irudikatu dira.

Hurrengo laburpen-fitxetan identifikatutako sei Ingurumen Unitate Homogeneoen (IUH) karakterizazio orokorra jaso da, bai eta ingurumen-kalitatearen eta erabiltzeko gaitasunaren balorazioa ere:

IUH 1		Ibai-sistema eta urtegia
DESKRIBAPEN OROKORRA		
<p>Ibai-sistemak prozesu hidrogeomorfologiko guztiak biltzen ditu, ibai-sistemari lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko inguruneen dibertsifikazioa bermatzen dutenak, eta elementu garrantzitsua da haranetako paisaia egituratzeko eta dibertsifikatzeko.</p> <p>Unitate honetan sartu da Oiartzun ibaiaren Lehentasunezko Fluxu Eremu gisa ezarritako eremua eta, gainerako ibilguetan, EAeko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPak ezarritako babes-eremua, horietako bakoitzaren osagai hidraulikoaren arabera. LAP berak ezarritako Añarbeko urtegiko babes-eremua ere unitate horren barruan dago.</p> <p>Babes-bokaziokotzat jotzen da, ingurumen-erregulazioarekin lotutako zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dituelako (lurzorua, klima, ura, etab.) eta biodibertsitatearen gordailu gisa jarduten duelako.</p>		
ERABILERA-GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen-kalitatea	<p>HANDIA.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Batasunaren intereseko habitatak ditu eta, horien artean, haltzadi eta lizardietan lehentasunezko interesa duen habitata nabarmentzen da (COD UE 91E0*). -Habitategi buruzko Zuzentarauan jasotako Batasunaren intereseko espezieak elikatzen eta babesten diren ingurunea da. Ibarbasoak korridore biologiko eta ehiza-eremu garrantzitsuak dira, kiropteroen espezie babestuentzat ere. Ibaiertzetan eta ur-bazterretan erriberako landaredia egoteak, gainera, mustelido erdiurtarrentzako babesguneak egotea ahalbidetzen du, eta bisoi europarra eta muturluze piriniotarra egotea erraztu dezake. Gainera, ibaiertzeko landarediak itzala eta janaria ematen die makroornogabeei, aldi berean arrainen elikagai direnei, eta uraren kalitatea ere hobetzen du. Intereseko hegaztientzako, esaterako martin arrantzalearentzako atsedean hartzeko, elikatze eta lekualdatzeko eremua ere bada, eta ibai-ingurunearen kalitatearen adierazle bikaina da. - Zerbitzu ekosistemiko ugari ematen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrologikoarena, basa-fruituak...). - Paisaiari ikuspen-kalitatea eta naturaltasuna ematen dioten espazioak dira. - Bertakoentzako lasaitasun- eta aisia-guneak sortzen dituzte. 	Ibai-sistema udal-mugarterako ibarbide guztietan banatuta dago. Eremu zabalena Oiartzun ibaiaren ibarraren bi ertzetan dago. Añarbeko urtegia eta haren babes-eremua.
Kalteberatasuna/berezitasuna	<p>HANDIA.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Uholde-arrisku oso handia. - Hainbat presio antropiko jasaten ditu. Tradizioz, emaria erregulatzeko jarduerak egin izan dira, emaria libre zirkulatzea galarazten dutenak. - Garapen eta erabilera antropikok, hala nola, baratze, soro, eraikin, azpiegitura eta abarrek urpean gera daitekeen eremuaren espazioa eta okupazioa murrizteko prozesu historikoa izan du. - Bertako ibaiertzeko landaredia desagertu egin da edo espezie aloktonoen landaketek ordezkatu dute hainbat tartetan. 	
Gaitasuna	Natura- eta aisia-erabilerak	
Harrera-gaitasuna	<p>TXIKIA. Babes-bokaziokotzat jotzen da, ingurumen-erregulazioarekin lotutako zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dituelako (lurzorua, klima, ura, etab.) eta biodibertsitatearen gordailu gisa jarduten duelako. Ingurumen balioa duen unitate hau landaredi naturala hobetu, zaindu eta elkarrekin lotzeko antolatu behar da.</p>	

IUH 2		Babes-basoa edo kontserbaziokoa
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Baso autoktonoak (harizti atlantikoa, ameztia eta artadi kantauriarra) eta haien ordezen-etapei dagozkien larre eta zuhaixkak (larre menditarrak, txilardiak) biltzen ditu.		
ERABILERA-GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen-kalitatea	HANDIA. - Lurraldeko landaredi naturala eta potentziala da. - Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitatak dira. - Faunarentzako eta bere mugikortasunerako intereseko espazioak. Korridore ekologikoen tokiko sareko eremu nagusiak dira. - Zerbitzu ekosistemiko ugari ematen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrologikoarena, basa-fruituak...). - Paisaiari ikuspen-kalitatea ematen dioten espazioak dira. - Herrialdeko kultura-tradizioekin lotura sinbolikoa dute. - Bertakoentzako lasaitasun- eta aisia-guneak sortzen dituzte.	Baso autoktonoak mantentzen dituzten orbanak, oro har, eremu helezin eta malkartsuenetan geratu dira. Batez ere, udal-mugartearen hegoaldean daude, Aiako Harria KBEaren barruan.
Kalteberatasuna/berezitasuna	HANDIA. Hainbat presio antropiko jasaten ditu. - Bere espazioa murrizteko prozesu historikoa jasan du, produkzio-espezie aloktonoen landaketekin ordeztuta, batez ere koniferoekin edo larreekin.	
Gaitasuna	Natura-erabilerak. Unitate honen irizpidea baso autoktono iraunkorra kontserbatzekoa izango da.	
Harrera-gaitasuna	TXIKIA. Babes-bokaziokotzat jotzen da, ingurumen-erregulazioarekin lotutako zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dituelako (lurzorua, klima, ura, etab.) eta biodibertsitatearen gordailu gisa jarduten duelako.	

IUH 3		Produkzio-bokazioko basoa
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Baso-ustiapeneko lurrak dira, malda ertain eta malkartsu bitartekoak dituzten hegaletan kokatuak. Lehengai gisa erabiltzen da zura- eta papergintza-industrietarako.		
ERABILERA-GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen-kalitatea	ERTAINA. - Baso-landaketen ingurumen-kalitatea murriztu egiten da irizpide ekologikoei erreparatuta, espezie bakarreko landaketak baitira, ustiapen-aldi laburrekoak eta, gehienak, inguruneke beste elementu batzuen egonkortasuna arriskuan jar dezaketen sistemen bidez ustiatzen dira, hala nola lurzoruaren egonkortasuna baso-mozketetan. - Landaketa horiek heldutasun-maila handiagoa lortzen duten kasuetan, aniztasun ekologikoari ere laguntzen diote, mota horretako landaketetara egokitutako baso-espezieak ezartzen eta finkatzen laguntzen duten eremuak baitira.	Udal-mugartearen hegoaldeko eta erdialdeko hegaletan eta muinoetan zabaltzen dira.
Kalteberatasuna/berezitasuna	ERTAINA. Gaur egun, lurraldean oso zabaldua dauden espezieei, hala nola <i>Pinus radiata</i> espezieari eragin diezaieketen gaixotasun monoespezifikoaren hedapenetik dator arrisku handiena.	
Gaitasuna	Natura-, baso- eta aisia-erabilerak. Unitate honetako irizpidea baso-ustiapenera zuzenduta dago, % 60-70 baino gehiagoko maldak dituzten eremuetan izan ezik. Kasu	

IUH 3		Produkzio-bokazioko basoa
	horietan, eremu horiek baso autoktonoaren azalera zabaltzeko erabiltzea komeni da.	
Harrera-gaitasuna	TXIKIA. Produkzio-bokaziokotzat jotzen da, eta zura-baliabideari ahalik eta etekin handiena ateratzen dio.	

IUH 4		Balio agrologiko handiko lurzorua
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Oiartzun ibaiaren haraneko lurzoru emankorrak dira, eta historikoki nekazaritzarako erabili izan dira baratzezaintza- edo bazka-laboreak ekoizteko.		
ERABILERA-GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen-kalitatea	HANDIA. - Segabeldararako azalera mantentzen ditu eta, erabileraren arabera, Batasunaren intereseko habitat gisa har daitezke [UE 6510 kod.]. - Nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuak eskaintzen ditu, tokiko merkatua bultzatzeko balio dezaketenak. - Mosaikoa eratzen du larre-erabilerako beste eremu batzuekin, eta horiekin haranaren hondoko landazabala osatzen du, Kantauriko isurialdeko landa paisaiaren elementu bereizgarria eta definitzailea.	Malda txikiko metaketa-hegaletan kokatuta daude, AP-1 bide-azpiegituraren inguruan, Astigarragako udalerririkiko mugan, Zamalbidea eta San Markos auzoen inguruan.
Kalteberatasuna/berezitasuna	HANDIA. - Beren ezaugarriak eta kokapena kontuan hartuta, hiri-garapen (bizitegi, industria, azpiegitura) bihurtzeko gehien behar diren eremuak dira.	
Gaitasuna	Nekazaritza-abeltzaintza erabilera.	
Harrera-gaitasuna	TXIKIA. Baldintza geotekniko egokiak ditu hiri-lurzoru bihurtzeko, baina beste erabilera batzuen aurrean babestea lehentasunezkoa eta estrategikoa da [Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legeko 16.1 artikulua].	

IUH 5		Nekazaritza-abeltzaintzako landazabala
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Belardi- eta larre-erabilerako azalera landua hartzen du, bai eta eremu mugakide eraldatuak ere, landa-inguruneari lotutako jarduerak egiteko. Baserriak, baratzeak, fruta-arbolak eta belardiak dira unitate honen ezaugarri nagusia, hau da, landazabal-motako paisaia.		
ERABILERA-GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen-kalitatea	ERTAINA. - Sare berdea osatzen du gainerako eremu natural edo erdinaturalekin batera. - Konektibitate ekologikoa errazten duten elementu erdinatural interesgarriak ditu, hala nola, eskualdeko intereseko habitatak osatzen dituzten espezie autoktonoen zuhaitziak eta heskaiak. - Paisaia-kalitatea ematen dio hiri-inguruneari. Nahiz eta presio antropikoa handia izan unitate honetan, lurzoruaren erabilera nagusiak eragin handia du Batasunaren intereseko 'altuera txikiko sega-belardi elkorrak' habitatak okupatutako azalera handi samarrean.	Sakabanatuta agertzen da udalerraren erdialdean, iparraldeko hirigunearen eta udalerraren hegoaldeko baso eta landaketen artean. Batez ere landaguneen inguruan daude. Oro har, % 50etik beherako maldak
Kalteberatasuna/berezitasuna	ERTAINA. - Arriskurik handiena hiriguneetan edo landa-guneetan egotetik dator, horietatik zabaltzeak unitate honi eragin diezaiokelako.	

IUH 5		Nekazaritza-abeltzaintzako landazabala
Gaitasuna	Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera, hiri-garapenak.	
Harrera-gaitasuna	ERTAINA. Bat dator Nekazaritza eta Abeltzaintza antolatzeke LAPeko 'trantsizioko landa-paisaia' kategoriaren definizioarekin. Horregatik, lurzorua gaitasun agrologikoa, abeltzaintzako jarduerak eta ekosistemak eta landa-paisaia horien kontserbazioa bermatzen duten bestelako jarduera bateragarriak mantentzea da irizpidea.	dituzten lurrak hartzen ditu.

IUH 6		Lurzoru hiritarrak eta/edo eraldatuak
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Hiriguneko hiri-garapenak, inguruko industria-eremuek, landa-guneez, garraio-azpiegiturak eta beste azpiegitura batzuk (zaborteak, etab.) egikaritzearen ondorioz aldatutako lurzoruek okupatutako lurra dira.		
ERABILERA-GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen-kalitatea	ERTAINA. - Hiriguneko hutsunak dituzte integratzen ez diren, kalitate akustikoari, hiri paisaiari eta abarri dagokienez. - Oro har, unitatean sartzen diren elementu naturalen eta/edo landa-elementuen iragazkortasun-baldintza txarrak ditu.	Hirigunea Oiartzun ibaiaren ibarrean dago, ondoko udalerrietako (Lezo, Pasaia eta Oiartzun) hiriguneei jarraitutasuna emanaz. Hirigunetik gertuen dauden industrialdeak eta bestelako bizitegi-kokapenak ere sartu dira unitate honetan.
Kalteberatasuna/berezitasuna	ERTAINA. - Ez da mehatxu garrantzitsurik identifikatu, sistema orokorren eta hondakindegien zona batzuen ingurua izan ezik. Horiek Ingurumena Hobetzeko Eremu gisa sailkatu dira, jardura eta obrak amaitutakoan ingurumen eta paisaia aldetik lehengoratu ahal izateko.	
Gaitasuna	Hiri-erabilerak	
Harrera-gaitasuna	HANDIA. - Unitate honek HAPON aurreikusitako hiri-garapenak hartzeko baldintzak betetzen ditu.	

4 PLANEKO PROPOSAMENEN INGURUMEN-EBALUAZIOA

HAPOn Aurrerakinak hainbat proposamen ditu bizitegi-, industria- eta ekipamendu-garapenatarako, eremu publiko eta libreetarako eta komunikazio-azpiegituretarako, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko helburuarekin. Halaber, lurzoru urbanizaezineko antolamendu-proposamena aurkezten du.

Atal honetan, proposamen horien ingurumen-ebaluazioa egingo da, inguruneak dituen ingurumen-balioak eta -arrikuak kontuan hartuta.

4.1 KONTUAN HARTUTAKO HIRIGINTZA GARAPENeko ALTERNATIBEN INGURUMEN-EBALUAZIOA

Aurrerakina irekia da eta, horregatik, HAPO idatzi eta izapidetzeko prozesuan, hirigintza-garapenerako proposamenak edo alternatibak zabaldu, doitu eta/edo osatu ahal izango dira.

Hainbat gairi buruzko garapen-proposamen horiei, oro har, Aurrerakinaren planoetan 1. alternatiba deitu zaie. Horrez gain, eremu batzuetarako beste antolamendu-alternatiba batzuk proposatu dira. Kasu horietan, 1. alternatiban jasotako aukera da, a priori, garatzeko aukera gehien dituen.

Halaber, 0 alternatiba ere aztertu da. Indarreko HAPO (2004ko otsailaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bidez behin betiko onartua) eta behin betiko onartutako Aldaketa Puntualak hartzen ditu abiapuntutzat.

HAPOn indarraldian honako Aldaketa Puntual hauek sustatu dira:

- ✓ HAPOren 1. Aldaketa Puntuala, udal-mugarteko hainbat eremuri buruzkoa (5. eremua: Basanoaga/Sorgintxulo, 14. eremua: erdigunea, 22. eremua: Agustinak, 28. eremua: Egiburu eta 39. sektorea: Larzabal/Arragua.
 - 5. eremuan 20 etxebizitza berri eraikitzea ahalbidetzen da.
 - 14. eremuan 3 etxebizitza gehitzea baimentzen du.
 - 22. eremurako ezarritako irisgarritasun-arloko zehaztapena 21. eremura ere zabaldu du, etxebizitzaren kanpoaldean igogailuak jarri ahal izateko Udalaren baimenarekin.
 - 22/05 EUaren eraikigarritasuna 2.400 m²-tik 3.000 m²-ra handitzen du: 22. eremuko SEC 3/2 Ekipamendu Partzela: Agustinak.
 - 28. eremuaren (Egiburu) antolamendua ezartzen du, berroneratzeari ekiteko. 12.065 m²(s)-ko aprobetxamendua proposatzen da.
 - 39. sektorean (Larzabal/Arragua), gehieneko etxebizitza kopurua 224tik 226ra handitzen du.
- ✓ HAPOren 2. Aldaketa Puntuala, 14/12, 14/15, 14/16 eta 22. esku-hartze unitateei eta 22. Eremuari buruzkoa: Agustinak.
 - 14. eremuko 14/12, 14/15 eta 14/16 EUen mugapenak birdoitzen ditu: Erdigunea. Horren ondorioz, 22. eremuari (Agustinak) eragiten dio azalerari dagokionez.
- ✓ HAPOren 3. aldaketa puntuala, 57. sektorea (Perutxene-Sagasti) 2/2006 Legean ezarritako gutxienerako eraikigarritasunera egokitzeari buruzkoa.
 - 57. sektorearen eraikuntza-profila doitzen du, 2/2006 Legera egokitzeko eta esparruaren antolamendu xehatua zehazteko, kontuan hartuz Donostiako 2. saihebidetaren trazadura, GI-3672 saihebidetaren Zentolen-Aldean, Abiadura Handiko

Trenaren trazaduraren aurreikuspenak eta Arangurengo industrialdera sartzeko bidearen eraikuntza.

- ✓ HAPOn 4. Aldaketa Puntuala, “Jesusen Bihotza Zahar Egoitza” ekipamendu komunitarioko partzelari dagokiona.
 - 20. eremuko (Gabierrota) “Jesusen Bihotza Zahar Egoitzako” laguntza-ekipamenduaren eraikigarritasuna 190 m²(s) handitzea.

Atal honetan HAPOn Aurrerakinak planteatutako eta **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** atalean xehetasunez deskribatutako hirigintza-garapeneko proposamenak ebaluatuko dira. Halaber, proposamen horiek eta dagokion eremu edo sektorerako indarrean dagoen plangintzaren aurreikuspenak alderatzen dira.

4.1.1 ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA

Atal honetan garatzen den alternatiben ingurumen-ebaluazioa ingurumen-baldintzatzaileen balorazioan eta HAPOk planteatutako alternatibetan jarduerak aurreikusi diren eremuei dagozkien balizko eraginen aurreikuspenean oinarritzen da.

Aurreikusitako hirigintza-garapenen ezaugarriak kontuan hartuta, hauek dira haiek gehien baldintzatu ditzaketen eta, ondorioz, balorazioan kontuan hartu diren ingurumen-faktoreak:

- Lurzoruaren okupazioa: Garapen berriek okupatzen duten azalera eta horien eraikuntza-dentsitatea hartzen dira kontuan. Gainera, balio agrologiko handiko eremuei eragiten zaien aztertzen da, Gipuzkoako Klase Agrologikoen Maparen, Donostialdeko LPParen eta Nekazaritza eta Basogintzaren LAParen arabera.
- Ibai-ibilguak: Proposatutako eremuetan azaleko ubideak (ibaia, erreka, erreka-stoa) dauden aztertu da, aurreikusitako garapenak baldintzatuko lituzke eta. Baldintzatzaile hori definitu ahal izateko, irizpide gisa ibilgu iraunkorrak soilik hartu dira kontuan, hau da, urte osoan emaria dutenak. Horretarako, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPeko planoetan identifikatutako ibilguak hartu dira kontuan.
- Landareak: Aztertutako eremu batzuek intereseko landaredia edo habitatak dituzte gaur egun, eta horiek baldintzatzaileak dira aurreikusitako hirigintza-garapenentarako. Interes bereziko landarediari buruzko atalean azaltzen denez, interesgarritzat jo dira, alde batetik, Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauko I. eranskinean jasotako Batasunaren intereseko habitatak eta, bestetik, bertako hostozabalen basoak (artadiak, ameztiak, hariztiak, etab.).
- Fauna: Erreterian hainbat espezie aurki daitezke EAEko Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan. Besteak beste, eremuaren naturaltasunak, espezie horientzako habitat egokiak izateak eta haien konektibitate ekologikoaren mailak baldintzatzen dute espezie horien presentzia azterketa-eremuetan.
- Naturagune babestuek: Erreterriako udalerrriaren hegoaldean Aiako Harria Parke Naturalaren zati bat eta Aiako Harria ZEC ES2120016 Kontserbazio Bereziko Eremua daude. Proposatutako garapen bakar batek ere ez du eraginik aipatutako naturagune babestuetan.

- Paisaia: Aurreikusitako garapenek eragina izan lezakete paisaian. Gaur egungo paisaiaren kalitatearen eta inguruko paisaiaren ezaugarrien arabera izango da inpaktua. Planteatutako jarduerak Paisaia, Errenteria eta Iturriko ikus-arroetan kokatzen dira. Oro har, paisaia-balio txikia dute, eta ez dira sartu EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoaren Katalogoan.
- Kultura-ondarea: Azterketa-eremuetan kultura-ondareko elementuren bat egoteak aurreikusitako garapenak baldintzatzen dituenez, garapen-eremu bakoitzean dagoen kultura-ondarea aztertuko da.
- Ingurumen-arriskuak: Ingurumen-arrisku nagusi hauek hartu dira kontuan:
 - Uholde-arriskua: Uraren Euskal Agentziak argitaratutako uholde-arriskuko mapen arabera, Errenteriako hiri-eremuko zenbait gune, trantsizioko Oiartzun eta Oiartzun-A ur-masekin bat datozenak, hainbat errepikatze-aldiko (10, 100, 500 urte) uholde-arriskua duten eremuetan daude. Uraren Euskal Agentziak erabilitako irizpideak kontuan hartuta²⁵, baldintzatzailatzat jotzen da 10 eta 100 urteko birgertatze-aldietarako uholde-arriskua dagoen eta hirigintza-garapen berrietarako mugak ezartzen diren kasuetan. Garapen nagusiak hartuko dituzten eremuen uholde-arriskua aztertu da eta, a priori, ez dirudi arrisku horrek aurreikusitako garapenetan eraginik duenik, horietako gehienak aipatutako ur-masetatik urrun baitaude.
 - Akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna: Errenteriako udal-mugartearen zati handi bat kutsadurarekiko oso kalteberatasun txikikotzat jotzen da, eta aurreikusitako garapen bakar bat ez da kutsadurarekiko kalteberatasun handiko eremuetan kokatzen.
 - Arrisku sismikoa: udalerraren arrisku sismikoa VI. intentsitateko zonan kokatzen da eta, ondorioz, nekez gertatuko da udalerrian eraikinak suntsitzeko moduko sismo bat. Beraz, proposatutako garapen guztiekin bateragarria dela uste da, eta horregatik ez da inpaktu hori kontuan hartzen.
 - Sute-arriskua: Baso-suteen arriskua, batez ere eremuan eta inguruan dagoen landaredi-motak baldintzatzen du. Alde horretatik, aurreikusitako garapenak barne hartzen dituzten hiri-eremuak eta landazabaleko eremuak arrisku txikikoak dira. Beraz, ez da arrisku handitzat jotzen garapen-alternatiba guztietarako.
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: Errenteriako udalerrian IHOBek egindako 'Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten kokalekuen inbentarioan' jasotako partzela asko identifikatu dira. Eremu horietan edozein esku-hartze egiteko beharrezkoa da aldeaz aurretik horiek ikertzea eta lurzoruaren kalitatearen deklarazioa lortzea, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeko 23. Artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - Higadura-arriskua: RUSLE ereduak higagarritzat jotzen dituen eremuak kontuan hartuta, hau da, higadura-prozesu oso larriak dituzten eremuak eta higadura-prozesu

²⁵ Lurzoruaren erabilerarako irizpideak uholde-arriskuaren mailaren arabera (Uraren Euskal Agentzia, 2011).

muturrekoak dituzten eremuak kontuan hartuta baloratuko da aurreikusitako garapenen baldintzatzailea izango den ala ez erabakitzeko.

- Zarata: Fase honetan ez dago arrisku hori baloratzeko datu nahikorik. 213/2012 Dekretuko 37. artikulua araber, Inpaktu Akustikoaren Azterketa antolamendu xehatua onartzea aurreikusten den HAPOko eremuetarako egingo da, eta Ingurumen Azterketa Estrategikoan sartuko da. Egoera akustikoaren balorazioa 2017ko urtarrilaren 18an onartutako Udalerriko Zarata Mapak kontuan hartuta egingo da (<http://ingurumena.errenteria.eus/es/tematica-ambiental/ruido/555-el-mapa-de-ruido>).
- Klima-aldaketa: Aurreikusitako garapenek klima-aldaketaren aurrean udalerririk duen arriskua eta kalteberatasuna handitzen dituzten eta klima-aldaketaren eragin potentzialen eraginpean egon daitekeen aztertuko da. Lurzoruaren artifizializazioaren, uholde-arriskuaren eta abarren ehunekoa baloratzen da.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunetik mugitzeko eta irisgarritasuna izateko premia da, batez ere garapen berrietarako proposatutako eremuen garraio iraunkorrari dagokionez. Testuinguru horretan, mugikortasuna eta irisgarritasuna modu honetan aztertuko dira:
 - Aztertutako eremuek Errenteriako hirigunearekin oinezkoentzako lotura izateko aukera, aztertutako eremuen kokapenaren eta orografiaren araber.
- Energia-jasangarritasuna: Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen araber, hiri-antolamenduko plan orokorrek energia-jasangarritasunari buruzko azterlana izan beharko dute ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduran, hain zuzen ere ingurumen-izapidean. Azterlanak honako alderdi hauek izango ditu:
 - a) Energia-jasangarritasunaren eskakizunekiko egokitzapenaren ebaluazioa.
 - b) Eraikin eta azpiegiturretako energia berriztagarrien ezarpena ebaluatzea.
 - c) Mugikortasunari buruzko azterlana, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren alternatibak eta mugikortasun ez-motorduna eta mugikortasunik eza bultzatzeko politikak barne.
 - d) Kanpoko argiteria publikoa aztertzea, eremu publiko bakoitzerako argiztapen-maila eta -denbora onenak ebaluatzeko.

Azterlan hori Ingurumen-azterlan estrategikoaren Eranskin gisa sartuko da.

Ondoren, alternatiba bakoitza aztertuko da eskema honi jarraituz:

- Alternatiben azterketa-eremuen ingurumen-baldintzak.
- Alternatiben ingurumen-balorazioa: taula batean jaso da, eta taula horretan honela adieraziko da aldagai bakoitzaren inpaktua:
 - o ‘-‘: ez da inpaktu aipagarririk aurreikusten.

- o ‘+’: eragin positiboa aurreikusten da.
- o ‘bateragarria’: eragin negatiboa dago, baina neurri zuzentzaileak hartuz gero, txikia edo aringarria.
- o ‘moderatu’: aurreikusitako inpaktu negatiboa nahiko handia da, eta nabarmen murriztuko lituzke proposatutako garapenak.
- o ‘larria’: aurreikusitako inpaktu negatiboa larria da, eta asko mugatuko lituzke proposatutako garapenak.

4.1.2 AZTERTUTAKO ALTERNATIBEN INGURUMEN-EBALUAZIOA

Garapen berriak aurreikusten diren edo indarreko plangintzako aurreikuspenak aldatzen diren eta alternatiben artean bereizten diren eremuetan ingurumen ebaluazioa egingo da.

Ez dira aztertuko alternatibek lehendik dauden edo indarreko plangintzak onartutako garapenak finkatzen dituzten eremuak. Alde horretatik, nabarmendu egin behar da Altzateko eremua eta Esnabide eta Gamongoa sektoreak garatzeko plangintza onartua duten (Esnabide) edo izapidetzen ari diren (Altzate eta Gamongoa) garatu gabeko eremuak izan arren, horien ingurumen-ebaluazioa ere egingo dela.

Jarraian, ingurunearen ingurumen-balioak deskribatuko dira, bai eta jarduketaren xede diren eremuak garatzeko proposamenak baldintzatu ditzaketen arriskuak ere.

4.1.2.1 Alzate

Alzateko eremua Errenteriako udalerraren iparraldeko muturrean dago, eta 57.494 m²-ko azalera du guztira; horietatik, 43.261 m² Errenteriako udalerrari dagozkio (% 75,24) eta 14.233 m² Lezoko udalerrari (% 24,76). Proposamen honen jarduera-eremua Oiartzun ibaiaren eskuinaldearen eta GI-636 errepedearen hegoaldearen mugakide diren eta Errenteriako udalerrikoak diren lurretara mugatzen da. 41.662 m²-ko azalera du, eta horietatik 11.313 m² Itsasoko eta Lehorreko Jabari Publikoaren Sistema Orokorrekoak dira.

2004. urtera arte, gutxi gorabehera, hidrokarburoak garraiatu eta biltegitratzen dituen CAMPSA enpresak okupatuta zuen eremu hori. Jarduera amaitu ondoren, enpresa horren egitura guztiak eraitsi ziren, eta gaur egun bide zahar batzuen hondarrak baino ez dira geratzen; beraz, oro har, itxura artifizializatu eta degradatua du.

Aurrerakinean, izapidetzen ari den Plan Bereziaren Aldaketan proposatutako antolamendua dago jasota. Indarreko HAPOn antzeko bizitegi-garapena proposatzen da, urbanizazioko eraikinen eta bideen antolamendua aldatzen duena. Eremua irisgarri egingo da Jaizkibel Hiribidetik, hirigunerako konexioarekin (Iztietan pasealekua), Oiartzun ibaiaren gaineko bi zubiak egokituta.

Plan Bereziaren aldaketa horrek ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren izapidea gaintu du eta, horregatik, prozesu horretan xehetasunez ebaluatuko dira garapenak izan ditzakeen eraginak. Plan Bereziaren Aldaketak hasierako onespina du, eta baita *Ingurumen Administrazioako zuzendariaren 2019ko ekainaren 12ko Ebazpena ere, "Alzate" (Errenteria / Lezo) Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren*

Aldaketa Puntual Partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua formulatzen duena.

Nolanahi ere, eta kontuan hartuz Plan Bereziaren aldaketa ez dela behin betiko onetsi, jarraian, eremuaren ingurumen-balio eta -arriskuen deskribapen labur bat eta sor ditzakeen eraginen azterketa aurkeztuko dira:

<p>Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ibai-ibilguak: Oiartzun ibaiaren eskuinaldean dagoen trantsizioko Oiartzun ur-masa da (ES111 T014010), eta eremuaren zati bat Itsaso eta Lehorreko Jabari Publikoaren barruan dago. - Interes hidrogeologikoko kokapena. - Paisaia degradatua. -Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Nabarmendu behar da hirigintza-garapenak ez duela uholde-arriskurik, eremu horretan Oiartzun ibaia bideratuta baitago. • Kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruak: ‘20067-00157’ (25.199 m²; esparruaren % 60) eta ‘20053-00001’ (1.342 m²; eremuaren % 3) partzelak. • Zarata: GI-636 errepidearen ondorioz, maila akustiko negatiboak identifikatzen dira.
<p>Izan litezkeen ingurumen-eraginak</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Aldatutako, degradatutako eta gutxiegi erabilitako lurzorua okupatzea. -Obretako azaleko eta lurpeko uren kalitateari eragitea. -Ikuspen-inpaktu positiboa, paisaia degradatua hobetuz. -Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruengatik arriskua: obra-fasean, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak tratatzeko arriskuagatik inpaktu negatiboa; ustiapen-fasean, kutsatuta egon daitezkeen lurzoru berroneratzea inpaktu positibotzat hartzen da. -Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarrekiko esposizioa handitzea. -Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.
<p>Alternatiben balorazioa</p>	<p>Aurreikusitako alternatiba guztiek antzeko ingurumen-ondorioak izango dituztela uste da.</p> <p>Eremuak gaur egun duen egoeraren ondorioz, ez da aurreikusten Altzateko garapenak inpaktu handirik eragingo duenik. Eremu horrek aldaketa-maila handia izango du, eta ez du ingurumen-baldintza garrantzitsurik izango, egoera akustikoari eta Oiartzungo itsasadarretik gertu egoteari dagokionez izan ezik. Alde horretatik, aurreikusitako alternatibetan proposatutako hirigintza-garapenek indarreko legerian ezarritako gutxieneko atzerapenak betetzen dituzte. Gainera, itsasadarra erabat kanalizatua dagoela kontuan hartuta, ez da zuzeneko inpakturik aurreikusten. Aurreikusitako zubiak egiten diren bitartean, haien euskarriak ILJptik kanpo jarriko dira. Nolanahi ere, prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak hartuko dira ingurune hidrikoari ez eragiteko.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak eta horien tamaina. Kontuan hartu behar da behar diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak aplikatuz gero, haien ondorioen garrantzia murriztu egingo litzatekeela.

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: ALTZATE

Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba HAPO berriak Plan Bereziaren Aldaketaren proposamena jasotzen du, orain izapidetzen ari dena.
	Bizitegiak	Bizitegiak
Lurzoruaren okupazioa	bateragarria	bateragarria
Azaleko urak	moderatua	moderatua
Lur azpiko urak	moderatua	moderatua
Intereseko landaredia	bateragarria	bateragarria
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria
Paisaia	+	+
Uholde-arriskua	bateragarria	bateragarria
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	moderatua	moderatua
Higadura-arriskua	bateragarria	bateragarria
Zarata	larria	larria
Klima-aldaketa	bateragarria	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria

4.1.2.2 Esnabide

Esnabide sektorea Errenteriako udal-mugartearen ipar-mendebaldean dago, eta Donostiako udalerrri mugakidean ere zabaltzen da, GI-636 errepiderantz. Proposamen honen jarduera-eremua Errenteriako udalerriko sektorearen azalera da, 30.676 m².

Eremuak onartutako Xehetasun Azterketa du, eta gaur egun egikaritzen ari da. Aurrerakinak azterlan horretan zehaztutako antolamendua jasotzen du eta nabarmen murrizten du HAPOn proposatutako eraikigarritasuna, Esnabide kalean bizitegi-eraikinak bakarrik planteatuz eta GI-636 errepidetik hurbil dauden lurak libre utziz.

Aurrerakinak Esnabideren proposamena aldatzen ez duenez, ez da haren eraginaren baloraziorik egin.

4.1.2.3 Gamongoa

Gamongoa sektorea Errenteriako hirigunearen hego-mendebaldean dago eta 258.453 m²-ko azalera du. Eremu horretan proposatutako garapenak Olibet/Etxe berriak A18 eremuaren ondoko partzela bat ere hartuko luke, 8.540,64 m²-ko azalera duena. Jarduera-eremuak 265.848,67 m²-ko azalera du.

Sektoreko kota baxuetan antolatzen da garapena ekialdeko eta hego-mendebaldeko mugetan zehar, eta are gehiago mugatzen da egungo plangintzan planteaturiko okupazioa (0 alternatiba). GI-3671 errepide ondoan bizitegi-garapena planteatzen da eta, indarreko HAPOn ez bezala, Txirrita Maleo kaleko industriagunearen paraleloan, industria-eraikin berriak antolatzen dira lehenik (4.000 m²), Txirrita-Maleo eremua zabaltzeko eta, ondoren, kota altuagoetan, bizitegi-eraikinak. Aurrerakinean (1. alternatiba) jasota dago HAPOn Aldaketaren bidez bideratzen ari den proposamen hori.

Txirrita-Maleotik hurbil dagoen eremua antolatzeke hainbat aukera identifikatzen ditu Aurrerakinak: parkea (berdegunea), industria, ekipamendu publikoa edo eguzki-parkea (Ekiola proiektua).

Gamongoa sektoreari dagokion HAPOn Aldaketaren esparruan, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren izapidea gauzatzen ari da, eta prozesu horretan xehetasunez ebaluatuko dira garapenak izan ditzakeen eraginak. HAPOn Aldaketak hasierako onspena du, eta *Ingurumen Administrazioako zuzendariaren 2019ko azaroaren 27ko Ebazpena, 56. sektoreari (Gamongoa) dagokion Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 6. Aldaketa Puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismeneko dokumentua formulatzen duena.*

Nolanahi ere, eta kontuan hartuz Plan Bereziaren aldaketa ez dela behin betiko onetsi, jarraian, eremuaren ingurumen-balio eta -arriskuen deskribapen labur bat eta sor ditzakeen eraginen azterketa aurkeztuko dira:

<p>Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Landa-lurzorua: sektorearen zati handi bat VI. motan (mugapen handiko lurrak) eta IV. motan (muino leunetan eta >% 20eko maldako hegaletan dauden lurrak). - Ibai-ibilguak: Eremuaren ipar-ekialdean dagoen haranaren hondoan Arramendi edo Pekin erreka igarotzen da, hegoaldetik iparraldera, sektore barruko 180 m-ko tartean. - Intereseko landaredia: <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorak (175.795 m², eremuaren % 66). • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa (55.144 m², eremuaren % 21) - Landa-paisaia. -Kultura-ondarea: HAPOn Katalogoan sartutako Tobar baserria. -Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Zarata: GI-20 errepidearen inguruko maila akustiko kaltegarriak identifikatzen dira, eremuaren ipar-mendebaldean, iparraldean eta ipar-ekialdean. • Klima-aldaketa: landa-lurzoru bat artifizializatzea, CO₂ biltzen duten eremuak kenduz eta, aldi berean, etxebizitza- eta industria-jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak gehitzea.
<p>Izan litezkeen ingurumen-eraginak</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Landa-lurzorua okupatzea. -Obretako azaleko uren kalitateari eragitea. -Batasunaren intereseko habitatetan eta intereseko landaredian duen eragina. -Ikus-inpaktua lurzoruaren erabileran izandako aldaketengatik. - Eremu higagarriak malda handiko lurretan -Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarreko esposizioa handitzea. - Klima-aldaketa: landaredia kentzea, lurzorua okupatzea eta artifizializatzea eta BEGak isurtzen dituzten jarduerak ezartzea. -Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.
<p>Alternatiben balorazioa</p>	<p>Gamongoa sektoreko garapenak sortzen dituen inpaktu nagusiak, nagusiki, landa-lurzoruaren azalera handiarekin lotuta daude. Azalera hori artifizializatu egingo litzateke gaur egun, nagusiki, larreak eta laborantza-lurrak garatzen</p>

	<p>diren lurzoruan. Lurzoruen gaitasun agrológicoaren arabera, lurzoruek nekazaritzarako bokazio eta balio ertain edo txikia dute eta, ondorioz, inpaktu hori txikiagoa izango litzateke. Bestalde, landarediari dagokionez, eremuko belardi gehienak HIC 6510 'altitude txikiko sega-belardi elkorrak' dokumentuan sartzen dira, habitat horrek Errenteriako udalerrian duen % 7,55 hartuz. Bertako hostozabalen baso-masek ere interes berezia dute, eta nabarmendu behar da HAPOn Aldaketak proposatzen duen antolamenduak horietako askori eragitea ekidingo lukeela.</p> <p>Indarrean dagoen garapenaren (0 alternatiba) eta HAPOn aldaketan planteatutakoaren (1. alternatiba) arteko desberdintasunei erreparatuta, 1. alternatiban lurzoruaren okupazioak eta, beraz, landarediak eragindako inpaktua txikiagoa izango litzateke, hasieran proposatutako eraikigarritasuna eta bideak murrizten dituelako. Gainera, eremuaren hego-mendebaldeko hegaletan, indarreko HAPOn planteatzen diren eraikin kolektiboen aurrean proposatutako eraikin bakartuek, seguruenik, landa-ingurune batean garapena paisaia hobeto integratzen lagunduko dute. Nolanahi ere, aipatutako eraginak ezabatzeke edo murrizteke neurriak hartu beharko dira.</p>
--	--

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak eta horien tamaina. Behar diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak aplikatuz gero, haien ondorioen garrantzia murriztu egingo litzateke:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: GAMONGOA		
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba (barne hartzen du izapidetzen ari den HAPOn Aldaketaren proposamena)
	Bizitegiak	Bizitegiak eta industria
Lurzoruaren okupazioa	larria	moderatua
Ibai-ibilguak	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaredia	larria	moderatua
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria
Paisaia	larria	moderatua
Kultura-ondarea	bateragarria	bateragarria
Higadura-arriskua	moderatua	moderatua
Zarata	larria	larria
Klima-aldaketa	moderatua	moderatua
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria

4.1.2.4 Gaztaño

Gaztañoeko esku-hartzearen helburua Euskotrenen trenbidea Galtzarabordako eta Erdialdeko geltokien artean lurperatzekoa da.

HAPOn berrikuspenak (1. alternatiba) trenbidearen tarte hori erabat lurperatzea planteatzen du, eta horrek aukera emango luke bide-trazadura eta oinezkoen trazadura aldatzeko eta Gaztaño auzoko bideak hobetzeko. Halaber, gaur egun geltokiko eraikinak eta kotxerak dauden ingurunean bizitegi-

eraikin berri bat egitea planteatzen da, aparkalekuekin eta espazio libreekin batera. Idarreko HAPOk, bestalde, (0 aukera) Euskotrenen (Donostia-Irun) trenbidea eta bere tailerrak partzialki lurperatzea aurreikusten du, eta Euskotrenen kotxerak Irunera eramatea.

1. alternatibaz gain, aurrerakinak beste batzuk ere aurreikusi ditu. 2. alternatibak bideak hobetzea besterik ez du proposatzen, eta espazio libreak antolatzen ditu. 3. alternatibak, bestalde, bidea hobetzeaz eta oinezkoentzako hiribide bat sortzeaz gain, 1. alternatibak baino garrantzi handiagoko bizitegi-eraikinak proposatzen ditu. 4. alternatibak beste bide-soluzio bat proposatzen du eraikuntza berriak antolatu gabe. 5. alternatiba 1. alternatibaren antzekoa da baina, kasu honetan, bizitegi-eraikinik gabe.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<p>- Ibai-ibilguak: lur azpian igarotzen da Mojata erreka, hego-ekialdetik ipar-mendebaldera. Gainera, lurperatu nahi diren trenbideak bat datoz Arramendi errekarerekin, zati horretan lurpean baitoa.</p> <p>- Hiri-paisaia degradatua.</p> <p>-Kultura-ondarea: eremuan ondareko bi elementu identifikatzen dira, udal intereseko kultura-balioa dutenak (topoaren geltokiko kotxerak eta topoaren geltokia). Nolanahi ere, ez daude kultura-ondasun gisa jasota.</p> <p>- Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruk: 20067-00072 partzela (2.603,16 m²). • Zarata: maila akustiko txarrak identifikatu dira, batez ere Pablo Iglesias hiribidearen ingurunean.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>-Lur azpiko ibilguen gaineko eragina, trenbideko lineak lurperatzearen ondorioz.</p> <p>- Hiri-paisaiaren kalitatea hobetzea.</p> <p>- Kultura-ondarearen gaineko eragina.</p> <p>-Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarreko esposizioa handitzea.</p> <p>-Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>Oro har, alternatiba guztietan, trenbideak lurperatzeko, lurrak mugitzeko eta sotoko solairuak eraikitzeke lanek (1. eta 3. alternatibak) kontuan hartu beharko dute lurpeko ibilguak igarotzen direla. Halaber, bizitegi-eraikinak proposatzen diren alternatibetan (1. eta 3. alternatibak), afekzioak egon daitezke bide nagusiaren inguruko egoera akustiko txarrekin lotuta. Nolanahi ere, trenbideak lurperatzeak eta inguru hurbila oinezkoentzat jartzeak (1. eta 3. alternatibak), ingurunean mugikortasun ez-motorduna sustatzeaz gain, egungo egoera akustikoa hobetuko dutela uste da. Paisaiari eta mugikortasunari dagokienez, alternatiba guztiek eragin positiboa izango dute, garrantzi desberdinekoa, alternatiba bakoitzean proposatzen den esku-hartze mailaren arabera.</p> <p>Oro har, obra fasean 1. eta 3. alternatibek eraikuntza berrien inguruko lanetan (lur-mugimenduak, hondakinen sorrera, etab.) eta ingurunea urbanizatzeko lanetan eragin handiagoa izango dutela uste bada ere, ustiapen-fasean, oinezkoentzako eremu handiagoa sortuko dute (batez ere 1. alternatibak), eta bizitegi-garapena eta ekipamenduak sortuko dituzte hirigunean, lurzoru berriak artifizializatu beharrik gabe.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak eta horien tamaina. Behar diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak aplikatuz gero, haien ondorioen garrantzia murriztu egingo litzateke:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: GAZTAÑO						
Inpaktuak	Indarreko HAPO 0 alteranatia	HAPO berria				
		1. alternatiba	2. alternatiba	3. alternatiba	4. alternatiba	5. alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Ibai-ibilguak	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	+	++	++	++	+	++
Kultura-ondarea	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua
Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua
Zarata	bateragarria	moderatua	bateragarria	moderatua	bateragarria	bateragarria
Klima-aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	+	+++	+	++	+	+++

4.1.2.5 Loidi

Jarduera-eremua Gamongoa sektorearen ipar-ekialdeko muga dago. Indarreko plangintzak eremua industriarako hiri-lurzoru gisa kalifikatzen du eta, gaur egun, industria-instalazioek betetzen dute (0 alternatiba). Gamongoan proposatzen den garapen berriarekin koordinatuta, Aurrerakinak (1. alternatiba) Masti-Loidi eremuko industria-pabiloi batzuk eraistea proposatzen du, eta haien ordez bizitegi- eta ekipamendu-garapena aurreikusten du.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> - Ibai-ibilguak: eremuaren ekialdeko muga, Masti-Loidi kaleko bideak, espaloiek eta aparkalekuek berezita, Arramendi erreka bideratuta doa hegoaldetik iparraldera. - Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua: 20067-00002 eta 20067-00026 partzelak. • Zarata: maila akustiko txarrak identifikatzen dira, batez ere GI-20 errepideetatik.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<ul style="list-style-type: none"> -Azaleko uren kalitateari eragitea. -Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei eragitea. -Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarrekiko esposizioa handitzea.

	-Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.
Alternatiben balorazioa	0 alternatibak egungo egoera finkatzea esan nahi du eta, ondorioz, ez du inolako eraginik izango ingurumenean. Aurrerakinean proposatutako 1. alternatibak, obra-fasean, batez ere kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketaren ondorioz eta kokalekuetan dauden industria-instalazioak eraistearen ondorioz sortuko ditu afekzioak. Ez da oso garrantzitsutzat jotzen eraispen-obrek, lur mugimenduek eta eraikuntza berriek lur gaineko uren kalitatean eta hiriko habitatean izan dezaketen eragina. Ustiapen-fasean, a priori, bizitegi- eta ekipamendu-garapen berriak erabilera horiei aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak ez betetzea espero da; kasu horretan, neurri zuzentzaileak aplikatu beharko dira. Klima-aldaketarekin lotuta, obra-fasean 1. alternatibak BEGen emisioak gehitzea eragingo duen arren, ustiapen-fasean, a priori, etxebizitza- eta hornidura-erabilerek industria-jarduerak baino eragin txikiagoa izango dute.

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: LOIDI		
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba
	Industria	Bizitegiak eta zuzkidurak
Lurzoruaren okupazioa	-	bateragarria
Ibai-ibilguak	-	bateragarria
Paisaia	-	bateragarria
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruk	-	moderatua
Zarata	-	moderatua
Klima-aldaketa	-	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	bateragarria

4.1.2.6 Agustinak

Agustindarren komentuaren partzelak Agustinak auzoan okupatutako eremua da. Gaur egun, komentuaren eraikinak eta zuhaitz ugariako lorategiek eta baratzeek okupatzen dute partzela.

Indarreko HAPOk irakaskuntza-ekipamendutara bideratu du eremua (0 alternatiba) eta egungo egoera finkatzen du. HAPO berriak (1. alternatiba) udal partzela eta Agustindarren komentua kultura-ekipamendu publikora bideratzea aurreikusten du, eta Lousada kalearen aurrealdean 20 etxebizitza berri izango dituen bizitegi-partzela bat antolatzea proposatzen du, gaur egun baratze-eremua dagoen lekuan.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	- Landaredia: zuhaitzez hornitutako lorategia, eta baratze eta fruta-arbolen eremua.
------------------------------------	--

	<p>-Ibai-ibilguak: eremutik 50 bat metro mendebaldera, Lousada kaleak eta berdeguneek berezita, Mojata erreka igarotzen da.</p> <p>-Kultura-ondarea: Hirutasun Santuaren komentua (Agustindarrak), ondare arkeologiko izendatua</p> <p>- Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zarata: eremu horretan, a priori, zarata-maila egokiak identifikatzen dira.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>-Lurzoruaren okupazioa.</p> <p>-Baratze eta fruta-arbolen eremuari eragitea.</p> <p>-Azaleko uren kalitateari eragitea.</p> <p>-Kultura-ondarearen gaineko eragina.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>0 alternatibak egungo egoera finkatzea esan nahi du eta, ondorioz, ez du inolako eraginik izango ingurumenean. Aurrerakinean proposatutako 1. alternatibak, obra-fasean, batez ere lurzoruaren okupazioagatik eta landaredia kentzeagatik (baratze eta fruta-arbolen eremua) eta klima-aldaketagatik sortuko ditu eraginak. Nolanahi ere, tamaina txikiko hiri-lurzorua da eta, horregatik, inpaktua txikia izatea espero da. Ustiapen-fasean, a priori, bizitegi- eta ekipamendu-garapen berriak erabilera horiei aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak betetzea espero da. Nabarmenezkoa da 1. alternatibak ez duela aurreikusten ustezko eremu arkeologikoaren gainean jardutea.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: AGUSTINAK		
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO*	1. alternatiba
	Ekipamendua	Bizitegiak eta ekipamendua
Lurzoruaren okupazioa	-	bateragarria
Ibai-ibilguak	-	bateragarria
Paisaia	-	bateragarria
Zarata	-	bateragarria
Kultura-ondarea		bateragarria
Klima-aldaketa	-	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	bateragarria

* 0 alternatibak egungo egoera finkatzea esan nahi du eta, ondorioz, ez du inolako eraginik izango ingurumenean.

4.1.2.7 Basanoaga

Kaputxinoak auzoko udal-igerilekuekin muga egiten duen Basanoaga eremuan, 1. alternatibak, indarrean dagoen plangintzak bezala (0 alternatiba), bizitegi-eraikina planteatzen du Galtzaraborda etorbidearen aurrean, eta 2. alternatibak, berriz, partzela ekipamendu publikotarako erabiltzea proposatzen du.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<p>- Landaredia: zuhaitzez hornitutako lorategia (<i>Platanus hispanica</i>, <i>Fagus sylvatica</i>, <i>Betula pendula</i>, etab.).</p> <p>- Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zarata: eremu horretan, zarata-maila egokiak identifikatzen dira egunez eta arratsalde; baina gauez, a priori, bizitegi-erabilerarako kalitate akustikoaren helburuak ez betetzea espero da.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>-Eremu urbanizatueta lurzorua okupatzea.</p> <p>-Hasiera batean, lorategi bati eta <i>Platanus hispanica</i> eta <i>Fagus sylvatica</i> espezieetako aleei eragitea.</p> <p>-Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarreko esposizioa handitzea.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>0 alternatibak eta 1. alternatibak bizitegi-garapeneko aurreikuspen berberak dituzte eta, ondorioz, ez dute alderik ingurumen-inpaktuei dagokienez. 2. alternatiba honetan bakarrik aldatzen da: eraiki beharreko eraikinak ekipamendu-erabilera izatearen ordez bizitegi-erabilera izatea proposatzen du. Beraz, ingurumen-ikuspegitik, alternatiben artean egon daitekeen alde bakarra da 2. alternatibaren kasuan kalitate akustikoaren helburuak laxoagoak direla eta, beraz, betetzeko errazagoak. Nolanahi ere, udalerriko zarata-mapen arabera, eremuak ozta-ozta gaindituko lituzke gauez bizitegi-erabilerarako ezarritako KAHk, maila akustikoak 50-55 dB (A) artekoak izango lirakeke, eta muga 50 dB (A). Behar izanez gero, hirigintza-garapen berriak egoera akustiko ona izateko behar diren neurri zuzentzaileak zehaztuko dira.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: BASANOAGA			
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba	2. alternatiba
	Bizitegiak	Bizitegiak	Ekipamendua
Lurzoruaren okupazioa	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Landaredian duen eragina	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	moderatua	moderatua	bateragarria
Klima-aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria

4.1.2.8 Galtzaraborda

Aztergai den Galtzaraborda eremua udal-kiroldegia mendebaldeko atzealdean dago. Alternatiba guztietan, trenbidearen egungo trazadurak okupatzen duen lurzorua berreskuratzea aurreikusten da, Altza, Antxo eta Galtzarabordako geltokien artean aurreikusita dauden eta aurki egikaritutako diren lurpeko obren ondorioz. 1. alternatibak Galtzarabordako kiroldegia handitzea aurreikusten du, eta 2.

alternatibak, berriz, 40 etxebizitzatarako edukiera izango duen bizitegi-garapen berri bat antolatzea. 0 alternatibak Alaberga eta Galtzaraborda artean parke bat antolatzea aurreikusten du.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<p>- Landaredia: zuhaitz apaingarriekin hornitutako lorategia (<i>Platanus hispanica</i>, <i>Salix, etab.</i>).</p> <p>- Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Zarata: egunez eta arratsalde, zarata-mailak 60 dB (A)-tik behera daude. Gauez, eremuaren zati handi batean 40-50 dB (A) artean daude zarata-mailak, eta trenbideekiko, bestalde, mugan daude, 50-55 dB (A) arteko mailetan. Beraz, maila akustikoak, oro har, egokiak dira.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>-Eremu urbanizatuetako lurzorua okupatzea.</p> <p>-Lorategi-eremu bati eta zuhaitz apaingarrien aleei eragitea.</p> <p>-Inpaktu akustikoa: maila akustikoak bizitegi-erabilerako kalitate akustikoaren helburuen mugan daude.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>Hiru alternatibek eragin positiboa dute paisaian eta mugikortasunean, Euskotrenen trenbideak lurperatzearen ondorioz. 1. eta 2. alternatibek kiroldegiaren atzealdean dagoen parkea okupatzea ekarriko dute. Nolanahi ere, parke horrek ez du natura-interes berezirik. 2. alternatibak, udalerriko zarata-mapen arabera, baliteke bizitegi-erabilerari aplikatu beharreko KAHK ez betetzea. Hala ere, esan behar da trenbideak lurperatzeak eremuaren egoera akustikoa hobetzea ekarriko duela eta, ondorioz, etorkizuneko egoera egokia izan daitekeela. Beraz, oro har, ez da desberdintasun handirik nabaritzen 1. eta 2. alternatiben artean.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: GALTZARABORDA			
Inpaktuak	0 alternatiba	1. alternatiba	2. alternatiba
	Indarreko HAPO		
	Espazio librea	Ekipamendua	Bizitegiak
Lurzorua okupazioa	-	bateragarria	bateragarria
Landaredian duen eragina	-	bateragarria	bateragarria
Paisaia	+	+	+
Zarata	-	bateragarria	bateragarria/moderatua
Klima-aldaketa	-	bateragarria	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	+	+	+

4.1.2.9 Zamalbide Berri

Zamalbide Berri eremua AP-1 autobidearen mendebaldean eta Errenteriako hirigunearen hegoaldean dagoen Zamalbide landa-auzoari dagokio. Alternatibetan proposatutako garapenak Zamalbide auzoari dagozkio, Zamalbide eremua (7.366 m²) eta Zamalbide Berri sektorearen zati bat (126.421 m²) barne hartuz.

1. alternatibak saihebidia ez egikaritzea eta bizitegi-garapen berririk ez ezartzea aurreikusten du, eremuan barrena motordun ibilgailuen zirkulazioaren inguruko segurtasuna hobetzeko urbanizazio-obra puntualak egitearen eta aparkalekuak antolatzearen kalterik gabe. Alternatiba horrek kendu egiten du indarreko plangintzan proposatutako auzoko lurzoru urbanizagarri guztia. 2. alternatibak saihebidia ez egitea planteatzen du, eta garapenak zazpi eraikin berritara mugatzea, hiri-bilbea osatuz. 3. alternatibak (indarreko plangintzarekin bat datorrena) eta 4. alternatibak saihebidia egikaritzea eta hirigintza-garapen handiagoa planteatzen dituzte.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> - Landa-lurzorua: muino leunetan eta < % 20ko malda-hegaletan (IV. mota) dauden lurrak. - Intereseko landaredia: <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. - Ibai-ibilguak: Zamalbide Berriko eremuan bi isurbide sartzen dira, eta iparralderago igarotzen den Sabada/Arramendi erreka eta hegoalderago igarotzen den Bonatxoko erreka isurtzen dituzte urak. -Landazabaleko habitari lotutako intereseko fauna egon daiteke. -Landazabaleko landa-paisaia. -Kultura-ondarea: Zamalbideko ermita eta Zamalbide eta Pokopandegi baserriak daude. Horiek guztiak Errenteriako HAPOn Katalogoan jasotako elementu arkitektonikoak dira. - Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon litezkeen lurzoruak: 20067-00041 partzela. • Zarata: egunez eta arratsalde, zarata-mailak 60 dB (A)-tik gora egoten dira eremuaren zati batean. Gaez, maila akustikoak 50 dB(A) baino handiagoak dira eremu batzuetan.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<ul style="list-style-type: none"> - Lurzoruaren okupazioa - Landaredian duen eragina: <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. -Azaleko uren gaineko eragina. -Paisaian duen eragina, lurzoruaren erabileraren aldaketengatik. -Kutsatuta egon daitezkeen lurzoriei eragitea. -Kultura-ondarearen gaineko eragina. -Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea. -Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarrak eremu batzuetan. -Obrek irauten duten bitartean inguruko giza habitatean eta landa habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.
Alternatiben balorazioa	Zamalbideko garapen-alternatibek sortzen dituzten inpaktuen garrantzia, funtsean, proposatutako garapenek duten garrantziaren arabera da.

	<p>Horrela, 1. alternatibak (aukeratuak) ez luke inolako eraginik izango, garapen berririk ez duelako proposatzen.</p> <p>Proposatutako gainerako alternatibei erantzunez, proposatutako eraikuntza-unitateak gehitzeak lurzorua gehiago okupatzea eta HIC 6510 gisa identifikatutako belardi-azalerei edo baso-orban txikiei eragitea ekarriko luke. Inpaktu handienak sortzen dituen 4. alternatiba da eta, ondoren, 3. alternatiba. 2. alternatibak nabarmen mugatzen du bizitegi-garapena eta, ondorioz, eragin txikiagoa izango du lurzoruaren okupazioan eta landarediaren gaineko afekzioan.</p>
--	---

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Alternatiben ingurumen-balorazioa: ZAMALBIDE				
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO (3. alternatiba Aurrerakinean)	1. alternatiba	2. alternatiba	4. alternatiba
	Bizitegiak – sektorearen zati handi baten garapena eta saihezbidea	Egungo landagunea finkatzea	Bizitegiak – sektorearen zati handi baten garapena	Bizitegiak – garrantzi handiagoko garapena eta saihezbidea
Lurzoruaren okupazioa	moderatua	-	bateragarria	moderatua
Ibai-ibilguak	bateragarria	-	-	bateragarria
Intereseko landaredia	moderatua	-	bateragarria	moderatua
Intereseko fauna	bateragarria	-	bateragarria	bateragarria
Paisaia	moderatua	-	bateragarria	moderatua
Kultura-ondarea	bateragarria	-	bateragarria	bateragarria
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	bateragarria	-	bateragarria	bateragarria
Zarata	moderatua	-	bateragarria	moderatua
Klima-aldaketa	moderatua	-	bateragarria	moderatua
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	+	-	-	+

4.1.2.10 Tolare Berri

Tolare Berri landagunea Zamalbideko hegoaldean dago, eta 68.592 m² dituen eta Intzinarateko lurrak (21.842 m²) eta Tolareberri gunea bera (7.111 m²) barne hartzen dituen egungo Tolare Berri sektoreari dagokio. Intzinate eremurako proposatutako alternatibak aurrerago ebaluatuko dira. Atal hau Tolareberri eremurako proposatutako alternatibei buruzkoa da.

1. alternatibak, a priori, HAPO berriak aukeratutakoak, saihesbidea ez egikaritzea eta bizitegi-garapena eraikin batera mugatzea proposatzen du, eremuan barrena motordun ibilgailuen zirkulazioaren inguruko segurtasuna hobetzeko urbanizazio-obra puntualak egitearen kalterik gabe. Proposamen horrek asko murrizten du indarreko plangintzak proposatutako lurzoru urbanizagarria. Horrez gain, 2. alternatiba gisa 1. alternatibak baino bizitegi-garapen handiagoa jasotzen du Aurrerakinak, bost eraikuntzarekin eta saihesbidea egikaritu gabe. 0 alternatibak, indarreko plangintzari dagokionak, aurreko alternatibetan baino handiagoak diren hiru eraikin aurreikusten ditu, eta saihesbidea egikaritzea.

<p>Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak</p>	<p>-Interes hidrogeologikoko kokapena. -Intereseko landaredia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. <p>- Ibai-ibilguak: eremuaren mugatik 30 metro hegoaldera, gutxi gorabehera, isurketa bat dago.</p> <p>-Landazabaleko habitatari lotutako intereseko fauna egon daiteke.</p> <p>- Hiri-paisaia landa-ingurune batean.</p> <p>- Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: 20067-00066 partzela. • Zarata: egunez eta arratsalde, zarata-mailak 60 dB (A)-tik gora egoten dira eremuaren zati batean. Gaez, maila akustikoak 50 dB(A) baino handiagoak dira eremu batzuetan. Maila gaintze horiek GI-3671 errepidearen ingurunean gertatzen dira.
<p>Izan litezkeen ingurumen-eraginak</p>	<p>- Lurzoruaren okupazioa -Lurpeko uren gaineko eragina, interes hidrogeologikoko kokapenean daudelako.</p> <p>- Landaredian duen eragina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. <p>- Azaleko uren gaineko eragina.</p> <p>- Paisaia duen eragina, lurzoruaren erabileraren aldaketengatik.</p> <p>-Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei eragitea.</p> <p>-Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea.</p> <p>-Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarrak eremu batzuetan.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean inguruko giza habitatean eta landa habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
<p>Alternatiben balorazioa</p>	<p>Zamalbiden bezala, Tolarietako garapen-alternatibek sortzen dituzten inpaktuen garrantzia, funtsean, proposatutako garapenek duten garrantziaren araberakoa da.</p> <p>Hala, 1. alternatibak (aukeratuak) inpaktu nabarmenak eragingo lituzke, ez duelako soilik eraikuntza-garapena proposatzen ingurumen-baldintza nabarmenik ez dagoen eremu batean.</p> <p>0 alternatibak (3. alternatiba aurrerakinean) eta 2. alternatibak garapen handiagoa eragingo dute, eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei eta intereseko landarediari eragiten diete. 0 alternatibak izango du eragin</p>

	handiena, batez ere hirigunearen hegoaldean proposatzen den saihebidia egikaritzearen ondorioz.
--	---

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Alternatiben ingurumen-balorazioa: TOLAREBERRI			
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO (3. alternatiba Aurrerakinean)	1. alternatiba	2. alternatiba
	Bizitegitarako handiagoa eta saihebidia	Bizitegitarako txikia	Bizitegitarako handiagoa eta saihebidirik ez
Lurzoruaren okupazioa	moderatua	bateragarria	bateragarria
Ibai-ibilguak	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaredia	moderatua	-	moderatua
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	moderatua	bateragarria	bateragarria
Interes hidrogeologikoko kokapena- akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	moderatua	-	moderatua
Zarata	bateragarria/moderatua	bateragarria	Bateragarria /moderatua
Klima-aldaketa	bateragarria	bateragarria	bateragarria

4.1.2.11 Txirrita-Maleo

Txirrita-Maleo eremua industria-erabilerako hiri-lurzorua da. 0 alternatiba bat dator indarreko plangintzarekin. HAPO berriak (1. alternatiba) Gamongoaren mugan lehendik zeuden hiru industria-erakinen jarraian eraikigarritasuna handitzeko aukera ematea proposatzen du. Horrek esan nahi du okupazioa 4.000 m² inguru handituko dela.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	- Ibai-ibilguak: poligonoko erdiko bidearen inguruan Monotxo erreka igarotzen da lurperatuta. - Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua. • Zarata: maila egokiak.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	- Eremua trinkotzea.

	- Obrek irauten duten bitartean inguruko giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.
Alternatiben balorazioa	Jarduketaren xede den eremuak ez du balio handirik ez ingurumen-arrisku handirik. Pabiloiak handitzearen ondoriozko afekzioak bat datoz, batik bat, eraikuntza-obren ondoriozko afekzioekin. Lehendik dauden pabiloiei eraginez gero, kontuan hartu beharko da horiek kutsatuta egon daitezkeen lurzoru gisa identifikatu direla.

Alternatiben ingurumen-balorazioa: TXIRRITA-MALEOREN ERAIKIGARRITASUNA HANDITZEA		
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba
	Industrialia (jarduketarik ez)	Industria-pabiloiak handitzea
Lurzoruaren okupazioa	-	bateragarria
Ibai-ibilguak	-	bateragarria
Landaredia	-	bateragarria
Paisaia	-	bateragarria
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	-	bateragarria
Zarata	-	bateragarria
Klima-aldaketa	-	bateragarria

4.1.2.12 Egiburu

HAPO berriak (1. alternatiba) industria-lurra berrantolatzea proposatzen du, Zentolengo hilerriaren inguruko eremuaren antolamendua eta sarbideak berregokituz. Proposamen horrek aukera ematen du egungo okupazio-baldintzak handitzeko. Baztertu egin da indarreko HAPOn proposatutako (0 alternatiba) Zentolengo saihebidia egikaritzea.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	- Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. - Paisaia degradatua. - Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: 20067-00104, 20067-00014, 20067-00022 eta 20067-00028 partzelak.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	-Espezie autoktonoen zuhaitzietan eragitea (hariztia - baso mistoa). - Hiri-paisaiaren kalitatea hobetzea. -Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan eragitea. -Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea. -Obrek irauten duten bitartean inguruko giza habitatean eta landa habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.

Alternatiben balorazioa	0. alternatibak nahiz 1. alternatibak espezie autoktonoen zuhaitzi eta heskaiei eragingo diete. Alde horretatik, 0 alternatiban planteatzen den Zentolengo saihebidetarako eragin handiagoa izan dezake intereseko landaredian. 1. alternatibak, obra-fasean, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketaren ondorioz eta kokalekuetan dauden industria-instalazioak eraistearen ondorioz sortuko ditu afekzioak. Ustiapen-fasean, eremuaren berrantolatetarako eremuko paisaiaren kalitatea hobetzen lagunduko du. Halaber, bideetan egiten diren jarduketek eremuaren mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetuko dituzte.
-------------------------	---

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: EGIBURU		
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba
		Industrialak (saihebidetarako sortzea)
Lurzoruen okupazioa	bateragarria	bateragarria
Landaredian duen eragina	moderatua	moderatua
Paisaia	bateragarria	+
Zarata	bateragarria	bateragarria
Klima-aldaketa	bateragarria	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	+	+

4.1.2.13 Egiluze

Egiluze eremua bat dator Egiburuberri industrialdearen eta AP-8 autobidearen artean dagoen industria-erabilerako hiri-lurzoruekin.

HAPO berriak (1. alternatiba) lehendik dagoen industria-eremuaren antolamendu-baldintzak aldatzen ditu, eta 6.000 m² inguruko edukiera ematen dio pabiloi berriek okupaturako lurzoruari. Indarreko plangintzak ez du jarduketa berririk aurreikusten eremuan (0 alternatiba).

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> - Intereseko landaredia: <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. - Paisaia degradatua. - Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek: 20067-00042 eta 20067-00068 partzelak.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<ul style="list-style-type: none"> - Lurzoruen okupazioa - Espezie autoktonoen zuhaitzietako ale batzuei eragitea (hariztia - baso mistoa). - Hiri-paisaiaren kalitatea hobetzea.

	<p>-Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei eragitea.</p> <p>-Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean inguruko giza habitatean eta landa habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>1. alternatibak espezie autoktonoen heskai batzuei eragin diezaieke eta lurzoruaren okupazioa pixka bat handitu. 1. alternatibak, obra-fasean, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketaren ondorioz eta industria-instalazioak eraistearen ondorioz sortuko ditu afekzioak. Ustiapen-fasean, eremuaren berrantolatetarako eremuko paisaiaren kalitatea hobetzen lagunduko du. Halaber, bideetan egiten diren jarduketek eremuaren mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetuko dituzte.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: EGILUZE		
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba
	Industria	Industrialak (bideak berrantolatzea eta hobetzea)
Lurzoruaren okupazioa	-	bateragarria
Landaredian duen eragina	-	bateragarria
Paisaia	-	+
Zarata	-	bateragarria
Klima-aldaketa	-	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	+

4.1.2.14 Intzinate

Tolare berriko gunearen mugakidea da, haren hego-ekialdean dauden bizitegi- eta industria-eraikinak barne. Aurrerakinak (1. alternatiba) industria-lurzoria berrantolatzea planteatzen du, eremuko urbanizazioa osatzeko eta industria-eraikin berriak antolatzeko. Indarreko plangintzak (0 alternatiba) asentamendu hori bizitegi-erabilerarako handitzea aurreikusten du eta, ondorioz, erabat berrurbanizatuko da. Horretarako, GI-3671 errepidean biribilgune berri bat egikaritzea aurreikusten da, orain arte egin ez den jarduketa. 1. alternatibak ere jasotzen du biribilgunearen proposamena.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<p>- Intereseko landaredia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. • Hostozabalen landaketak <p>- Ibai-ibilguak: eremuaren mendebaldean, 40 bat metrora, isurketa bat igarotzen da.</p> <p>- Paisaia degradatua.</p>
------------------------------------	--

	<p>- Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon litezkeen lurzoruak: 20067-00023 partzela. • Zarata: eremuaren zatirik handienean, egunez eta arratsalde, 55-60 dB (A) izaten dira zarata-mailak, eta AP-8tik hurbilen dagoen eremuan 65-70 dB (A) mailara iristen dira. Gauetz, maila akustikoak 50-55 dB(A)-koak dira nagusiki, eta 60-65 dB(A)-koak dira AP-8arekin muga egiten duen hego-ekialdeko muturrean.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>- Lurzoruaren okupazioa</p> <p>- Landaredian duen eragina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak • Harizti azidofiloen zuhaiztiak eta baso misto-atlantikoa. • Hostozabalen landaketak <p>- Azaleko uren gaineko eragina.</p> <p>- Hiri-paisaiaren kalitatea hobetzea.</p> <p>-Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei eragitea.</p> <p>-Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea.</p> <p>--Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarrak eremu batzuetan.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean inguruko giza habitatean eta landa habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>1. alternatibak, oro har, ez du 0 alternatibak baino eragin handiagoa ingurumenean, bieran proposatutako lurzoruaren okupazioa antzekoa delako eta, ondorioz, landarediari eragiten diolako. Biek eragiten diete kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei, eta eremuaren mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetuko dituzte egungo bide-sarea aldatuz. Obra-fasean, azaleko uren gaineko eragina ez da uste handia izango denik. Hala ere, edozein alternatibatan prebentzio- eta zuzenketa-neurriak proposatu beharko dira. Klima-aldaketan duen eragina moderatutzat jotzen da, bi alternatiba horiek eragingo luketen baso-masaren ezabatzeagatik (gutxi gorabehera, 8.000 m²), eta horren ondorioz egongo litzatekeen karbonoaren hartze-galeragatik. Egoera akustikoari dagokionez, baliteke KAHak ez betetzea eremuko puntu batzuetan, batez ere 0 alternatibak proposatzen duen bizitegi-erabilerarako.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: INTZINARTE		
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO	1. alternatiba
	Bizitegiak	Industria
Lurzoruaren okupazioa	moderatua	moderatua
Landaredian duen eragina	moderatua	moderatua
Paisaia	moderatua	moderatua
Zarata	bateragarria/moderatua	bateragarria
Klima-aldaketa	moderatua	moderatua
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	+	+

4.1.2.15 Perutxene/Sagasti– Palaziozarra/Larretxiipi

Perutxene/Sagasti eta Palaziozarra/Larretxiipi sektoreak Errenteriako udalerrriaren ipar-ekialdeko muturrean daude, GI-20/AP-8 errepidearen hegoaldean. Perutxenek 190.426 m²-ko azalera du eta autobidearen hegoaldean dauden Palaziozarrako lurrek 100.076,02 m²-ko azalera dute. Jarduera-eremuak 301.875 m²-ko azalera du, eta bertan sartzen da A 27 Gurutzeko Alabak eremua (11.342 m²), izen bereko ikastetxea hartzen duena eta jarduketarik aurreikusten ez duena. Indarreko plangintza orokorrean, eremuak dentsitate txikiko edo oso txikiko bizitegi-garapenetara bideratzea aurreikusten da, egungo GI-3672 errepidearen gainean bermatutako eraikinekin eta, iparraldeko muturrean, AP-8 errepidearen ondoan, eraikuntza bakartuko partzelekin. Aurrerakinean, jarduera ekonomiko desberdinen erabilerak ezartzera bideratzea proposatzen da (1. alternatiba), Palaziozarra muinoa liberatuz espazio libreen sistema orokorrean sartzeko. 2. alternatibak 1. alternatibaren antzeko okupazioa proposatzen du, baina erabilera mistoetarako erabiliko da: jarduera ekonomikoetarako, hirugarren sektoreko jardueretarako eta bizitegitarako. 4. alternatibak ere 1. eta 2. alternatiben antzeko okupazioa du, baina kasu honetan indarreko plangintzan ezarritako bizitegi-erabilera mantentzea proposatzen da.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<p>- Landa-lurzorua: bokazio agrologiko txikia eta ertaina du, eta VIII. motako (balio agronomiko oso txikiko edo batere gabeko eremuak), VII. motako (murrizketa handiko lurrak), VI. motako (muino leuneko lurrak) eta IV. motako lurzoruetan (muino leunak eta > % 20ko malda-hegalak) kokatuta dago sektorea.</p> <p>- Ibai-ibilguak: Eremuaren hego-ekialdean dagoen haranaren hondoan barrena bi isurketa igarotzen dira. Bat egiten dute eremuaren ekialdeko mugan, eremutik irten aurretik.</p> <p>- Intereseko landaredia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak. • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa. <p>- Landazabaleko eta zuhaitzietako habitatari lotutako intereseko fauna egon daiteke.</p> <p>- Landazabaleko landa-paisaia.</p> <p>-Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: 20067-00058 (10.209,29 m²), 20067-00086 (5.006,07 m²), 20067-00027 (854,35 m²) partzelak. • Zarata: egunez, GI-20/AP-8 eta GI-3672 errepideen inguruan 60-70 dB (A) arteko maila akustikoak daude, baita 75 dB (A) mailakoa ere AP-8 inguruko eremu batzuetan. Gauzez, bide azpiegitura horien inguruan 60-65 dB (A) arteko mailak izaten dira. • Klima-aldaketa: landa-lurzoru bat artifizializatzea, CO₂ biltzen duten eremuak kenduz eta, aldi berean, etxebizitza- eta industria-jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak gehitzea.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>-Landa-lurzorua okupatzea.</p> <p>-Obretako azaleko uren kalitateari eragitea.</p> <p>-Batasunaren intereseko habitatetan eta intereseko landaredian duen eragina.</p> <p>-Intereseko faunaren gaineko eragina.</p> <p>-Ikuspen-inpaktua lurzoruaren erabileran izandako aldaketengatik.</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - Eremu higagarriak malda handiko lurretan. -Inpaktu akustikoa: maila akustiko txarrekiko esposizioa handitzea, batez ere bizitegi-erabileretarako. - Klima-aldaketa: landaredia ezabatzea, lurzorua okupatzea eta artifizializatzea eta BEGak isurtzen dituzten jarduerak ezartzea. -Obrek irauten duten bitartean giza habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.
Alternatiben balorazioa	<p>Indarreko plangintzak aurreikusitako antolamenduak (0 alternatiba) 1., 2. eta 4. alternatibek baino eragin handiagoa du lurzorua okupatzen duelako eta intereseko habitatei eta azaleko ubideei eragiten dielako. Azpimarratzekoa da eremuaren egoera akustikoa baldintzatu egin dezakeela bizitegi-alternatiben garapena (0 eta 2. eta 4. alternatibak).</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Alternatiben ingurumen-balorazioa: PERUTXENE-PALAZIOZARRA				
Ingurumen-baldintzatzaileak	0 alternatiba Indarreko HAPO (3. alternatiba Aurrerakinean)	1. alternatiba	2. alternatiba	4. alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	larria	moderatua	moderatua	moderatua
Ibai-ibilguak	moderatua	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaredia	larria	moderatua	moderatua	moderatua
Intereseko fauna	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua
Paisaia	larria	moderatua	moderatua	moderatua
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	moderatua	moderatua	moderatua	moderatua
Higadura-arriskua	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	moderatua	bateragarria	moderatua	moderatua
Klima-aldaketa	larria	moderatua	moderatua	moderatua

4.1.2.16 Morrontxo

Morrontxon proposatutako garapena Txirrita/Maleo eremuaren hegoaldean dago, eta gaur egun industrialde bat hartzen du. Morrontxoko jarduera-eremua, gaur egun, lurzoru urbanizaezineko 161.095 m²-koa da. 1. alternatibak jarduera ekonomikoetarako eremu bat garatzea planteatzen du, eta 43.500 m²-ko ahalmena du pabiloi berriak egin eta Txirrita/Maleo poligonoa handitzeko.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> - Balio estrategiko handiko lurzorua. - Ibai-ibilguak: Hegoaldeko muturrean barrena Saguane erreka igarotzen da, mendebaldetik ekialdera. Erreka horrek ekialdera isurtzen ditu urak Errekatxiki errekan. Erreka horren ibilbidea eremuaren hego-ekialdean sartzen da zati txiki batean. - Intereseko landaredia:
------------------------------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorak (86.010 m²). • Harizti azidofiloen zuhaiztiak eta baso misto-atlantikoa (36.676 m²). <p>- Landazabaleko eta zuhaiztietako habitatari lotutako intereseko fauna egon daiteke.</p> <p>- Landazabaleko landa-paisaia.</p> <p>- Kultura-ondarea: Morrontxoko hego-ekialdean Txirrita baserria dago, Errenteriako HAPOren Katalogoan jasota dagoena.</p> <p>-Ingurumen-arriskuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zarata: egoera akustikoa ona da. • Klima-aldaketa: landa-lurzoru bat artifizializatzea eta okupatzea, CO₂ biltzen duten eremuak kenduz eta, aldi berean, etxebizitza- eta industria-jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak gehitzea.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>-Balio estrategiko handiko lurzoria okupatzea.</p> <p>-Obretako azaleko uren kalitateari eragitea.</p> <p>-Batasunaren intereseko habitatetan eta intereseko landaredian duen eragina.</p> <p>-Intereseko faunaren gaineko eragina.</p> <p>-Ikuspen-inpaktua lurzoruaren erabilera izandako aldaketengatik.</p> <p>- Klima-aldaketa: landaredia ezabatzea, lurzoria okupatzea eta artifizializatzea eta BEGak isurtzen dituzten jarduerak ezartzea.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean giza habitatean eta landa-habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>1. alternatiban, balio estrategiko handiko lurzoru bat artifizializatu beharko da Morrontxo garatzeko. Lurzoru horretan, larreak (HIC 6510) eta hostozabal autoktonoen basoak daude. Eremuaren azalera handia kontuan hartuta, inpaktu garrantzitsutzat jotzen da, eta minimizatu egin beharko da, lurzoria gehiegi artifizializatzea eta iragazgaiztea saihestuz, eta baita intereseko landare-masen gaineko eragina ere. Paisaiaren gaineko eraginari dagokionez, Txirrita-Maleoko industrialdearen ondoan dago eta horrek aurreikusitako garapen berria hartzen lagunduko luke baina, hala ere, planteatutako lurzoruaren erabilera asko aldatzen dela eta inguruko garapenekin alderatuta kota altuetan kokatuta dagoela kontuan hartuta, neurri intentsiboak beharko dira eragin hori murrizteko.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Inpaktuen ingurumen-balorazioa: MORRONTXO		
Inpaktuak	0 alternatiba	1. alternatiba
	Indarreko HAPO*	
	Lurzoru urbanizaezina	Industria
Lurzoruaren okupazioa	-	larria
Balio estrategiko handiko lurzoria	-	larria
Ibai-ibilguak	-	moderatua
Intereseko landaredia	-	larria
Intereseko fauna	-	moderatua
Paisaia	-	moderatua

Kultura-ondarea	-	moderatua
Zarata	-	bateragarria
Klima-aldaketa	-	moderatua
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	bateragarria

* 0 alternatibak ez du lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen duen eremu horretan garapenik aurreikusten; beraz, ez da ingurumenaren gaineko eraginik aurreikusten.

4.1.2.17 Tolarieta

Tolarietan proposatutako garapena, nagusiki, GI-3671 eta AP-1/AP-8 errepideen arteko lurzoru urbanizaezinetan kokatuko litzateke, Urkiola sektorearen hegoaldean (92.204 m²). Jarduera-eremuak 204.304 m²-ko azalera du guztira, hain zuzen ere 53.996 m² Urkiola sektorekoak eta 149.510 m² lurzoru urbanizaezinekoak.

Eremu horretan, HAPO berriak sektore berri bat antolatzea proposatzen du lurzoru industrialerako eta industriari laguntzeko zerbitzuetarako eta, indarreko HAPOren arabera (0 alternatiba), zatirik handiena lurzoru urbanizaezinean kokatuta dago. Masti-Loidiko eremuari Sorondo errekaren ibarbidearen hondoan jarraipena ematean datza proiektua. Horretarako, plataforma berri bat sortuko da eta egungo Urkiola eremuko lurzoruak gehituko dira, pabiloi berriek okupatuko dituzten 41.500 m² inguruko azalerarekin. Pabiloi horiei beste 10.000 m² gehituko zaizkie beste jarduera-mota batzuetarako, pabiloi industrialenak ez diren jardueretarako. Eremuan dagoen errekastoa desbideratu beharko da. 84.000 m²(s)-ko hirigintza-eraikigarritasuna har lezake. Eremu hori Masti-Loidiko industrialdearen jarraitutasunean dago, eta haren sarbideak parteka ditzake.

Aurrerakinak hainbat garapen-alternatiba planteatzen ditu sektore horretarako: 1. alternatibak, a priori, HAPO berria garatzea proposatzen duenak, ibarbidearen bi aldeak antolatzen ditu erdiko bide baten bi aldeetan, eta 2. alternatibak, berriz, partzela eraikigarri handi bat planteatzen du bidearen mendebaldeko ibarrean, haietara sartzeko aukera emango duena. 3. alternatibak 1. alternatibaren antzeko antolamendua proposatzen du, Masti-Loidi industrialdearen ondoan proposatutako eraikinak murriztuz.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> - Landa-lurzorua: ez du bokazio agrologikorik. Lurzoru gehienak VI. motakoak eta partzela txikiago batzuk VII. eta IV. motakoak. - Nekazaritzako eta Basogintzako LAP: Trantsizioko Landa Paisaia. -Ibai-ibilguak: Errekaxiki errekak hegoaldeetik iparraldera zeharkatzen du sektorea, erdi-ereditik. - Intereseko landaredia: <ul style="list-style-type: none"> • HIC 6510: garaiera txikiko sega-belardi elkorrak (97.301 m²). • HIC 4030: txilardi lehor europarrak (21.833 m²) • Harizti azidofiloen zuhaitziak eta baso misto-atlantikoa (57.644 m²). - Landazabaleko eta zuhaitzietako habitatari lotutako intereseko fauna egon daiteke. - Landazabaleko landa-paisaia. -Ingurumen-arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> • Zarata: a priori, egoera akustikoa ona izan daiteke. • Klima-aldaketa: landa-lurzoru bat artifizializatzea eta okupatzea, CO₂ biltzen duten eremuak kenduz eta, aldi berean, etxebizitza- eta
------------------------------------	--

	industria-jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak gehitzea.
Izan litezkeen ingurumen-eraginak	<p>-Trantsizioko landa-paisaiako lurzorua okupatzea.</p> <p>-Obretako azaleko uren kalitateari eragitea.</p> <p>-Azaleko hidrologian duen eragina, egungo erreka desbideratzearen ondorioz.</p> <p>-Batasunaren intereseko habitatetan eta intereseko landaredian duen eragina.</p> <p>-Intereseko faunaren gaineko eragina.</p> <p>-Ikuspen-inpaktua lurzoruaren erabilera izandako aldaketengatik.</p> <p>- Klima-aldaketa: landaredia ezabatzea, lurzorua okupatzea eta artifizializatzea eta BEGak isurtzen dituzten jarduerak ezartzea.</p> <p>-Lur-mugimendu garrantzitsuak, ibarbidea betetzea.</p> <p>-Obrek irauten duten bitartean landa-habitatean duten eragina: zaratagatik, makineria eta materialak egoteagatik, lurrak mugitzeagatik, hondakinak sortzeagatik, etab.</p>
Alternatiben balorazioa	<p>1., 2. eta 3. alternatibetan, Tolarieta garatzeko landa-lurzoru bat okupatu eta artifizializatu beharko da. Lurzoru horretan, larre-azalera handiak (HIC 6510) eta hostozabal autoktonoen baso-masak daude. Eremuaren azalera handia kontuan hartuta, inpaktu garrantzitsutzat jotzen da, eta minimizatu egin beharko da, lurzorua gehiegi artifizializatzea eta iragazgaiatea saihestuz, eta baita intereseko landare-masen gaineko eragina ere. Alde horretatik, esan, ikuspegi agrologikotik, eremuko lurzoruek ez dutela erabilera-ahalmen handirik.</p> <p>Bestalde, zenbait puntutan malda handiak dituen haran-formako orografiak lur-mugimendu handiak egitea eskatzen du, eraikinen oinarri izango diren plataformak lortzeko, bai eta inguruko mendi-hegalei eutsiko dieten ezpondak ere.</p> <p>Azkenik, Tolarietan Errekaxiki erreka identifikatu da, eremuaren erditik igarotzen dena. Beraz, erreka desbideratu beharko da edozein garapen-alternatibatan.</p>

Ondorengo taulan jaso dira alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak:

Alternatiben ingurumen-balorazioa: TOLARIETA				
Inpaktuak	0 alternatiba Indarreko HAPO*	1. alternatiba	2. alternatiba	3. alternatiba
	Lurzoru urbanizaezina	Industria	Industria	Industria
Lurzoruaren okupazioa	-	larria	larria	larria
Ibai-ibilguak	-	larria	larria	larria
Intereseko landaredia	-	larria	larria	larria
Intereseko fauna	-	moderatua	moderatua	moderatua
Paisaia	-	moderatua	moderatua	moderatua
Lur-mugimendua	-	larria	larria	larria
Zarata	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima-aldaketa	-	moderatua	moderatua	moderatua

Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria
-----------------------------------	---	--------------	--------------	--------------

* 0 alternatibak ez du lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen duen eremu horretan garapenik aurreikusten; beraz, ez da ingurumenaren gaineko eraginik aurreikusten.

4.2 ESPAZIO LIBRE ETA MUGIKORTASUN PROPOSAMENEN EBALUAZIOA

HAPO berriak handitu eta hobetu egiten du espazio libreen arteko konexioa, eraztun berde bat osatuz hirigunearen inguruan. Eraztun horrek ibilbide zirkular gehigarria eskaintzen du haren inguruan eta,aldi berean, lurzoru urbanizaezin orokorrarekin, Lau Haizetako hiriarteko parkearekin eta, bereziki, Aiako Harria Parke Naturalarekin lotuta dago. Eremu libre/berde horiek hiri-bilbean sartzen dira, eta auzo bakoitzeko “Auzo Bihotza” izeneko gunek lotzen dituzte.

Ildo horretan proposatutako jarduketek artean, Arramendi eta Palaziozerra arteko jarraitasuna berreskuratzeko aukera nabarmentzen da, besteak beste, bi parkeak lotuko dituen pasabide bat prestatuz. Gainera, udalerriko landa-ingurunean Listorretako aisia-eremua eta Lau Haizetako parkea finkatzea proposatzen da. Eremu horietan, San Markos eta Txoritokietako gotorlekuak eta inguruneak dira protagonistak.

Jarduketa horiek guztiek tokiko konektibitatea hobetzen dute eta udal-mailan azpiegitura berdea sortzen laguntzen dute. Horrenbertzez, uste da eragin positiboa izango dutela ingurumenaren ikuspegitik, jarduketak gauzatzeko fasean sor daitezkeen inpaktuez haratago.

Bestalde, Aurrerakinean planteatutako mugikortasun-proposamenak mugikortasun jasangarria bermatzera bideratuta daude, hiri-ingurunean mugikortasun ez-motorduna lehenetsiz eta, bereziki, oinezkoentzako lekua berreskuratuz, kaleak oinezkoentzat jarrita, espaloiak zabalduta eta igogailu publikoak edo pasabideak ezarrita.

Halaber, Aurrerakinean hobekuntzak planteatzen dira garraio publikoaren sarean eta baita garraio pribaturako aparkalekuak eraikitzea ere. Aipatzekoa da Euskotrenen trenbide sarea Erreterriako hirigunean lurperatzeari buruzko Aurrerakinak jasotzen duen proposamen estrategikoa.

Beraz, ildo horretan definitutako jarduketek **mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzen eta klima-aldaketa arintzen lagunduko dutela** esan daiteke. Jarduketak hiri-ingurunean egingo direla kontuan hartuta, proposamen horiek eragin ditzaketen inpaktu negatiboak, batez ere, obra-faseak eragindakoak izango dira (hondakinak sortzea, lur-mugimenduak, airearen kalitatea eta egoera akustikoa murriztea, etab.), oro har, aldi baterakoak, itzulgarriak eta berreskuragarriak.

4.3 LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDU-PROPOSAMENAREN EBALUAZIOA

Lurzoru urbanizaezina antolatzeko proposamenari dagokionez, indarreko plangintzari dagokion zonakatzea ez da nahikoa, indarrean dagoen HAPOk ez baititu jasotzen Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan eta EAeko Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako lurzoru urbanizaezinaren kategoriak.

HAPO berriak zehaztasun handiagoz biltzen ditu udalerriko ingurune fisikoaren ezaugarriak, balio naturalak eta ahalmen agrologikoak, eta LAGen eta Nekazaritza eta Basogintzako LAParen irizpideetara egokitutako lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea egiten du.

Alde horretatik, nabarmendu egin behar da lurzoru urbaezinaren antolamenduak barne hartzen dituela Aiako Harria KBE eta Parke Naturala, bai eta udalerriko natura-ondarearen eta biodibertsitatearen estrategian identifikatutako natura-intereseko espazioak ere, hala nola Añarbeko Baso Erreserba, Aiako Harria – Lau Haizeta Korridorea eta Lau Haizetako Parkea.

Horrek guztiak **lurzoru urbanizaezinaren ingurumen-balioak hobeto babesten eta kontserbatzen** lagunduko luke eta, horregatik, lurzoru urbanizaezinerako proposatutako zonakatze berriak, oro har, **eragin positiboa** izango luke.

HAPO berriak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen du udalerraren azaleraren % 84 baino gehiago hartzen duen eta Urumea eta Oiartzungo haranen artean dagoen landa-eremua eta, formulatutako jarduketa-alternatiben arabera, % 0,5 baino gutxiago murriztuko da indarreko plangintzarekiko. Indarreko plangintzako lurzoru urbanizaezinak (2004ko HAPO eta haren aldaketak) % 84,68 hartzen du, eta Aurrerakinean proposatutako aldaketekin % 84,38. Alde horretatik, aldea esanguratsua ez dela esan daiteke. Nolanahi ere, Aurrerakinean planteatzen diren antolamendu-alternatibak irekiak dira eta, horregatik, hurrengo faseetan jakingo da zehaztasunez hirigintza-garapenek zer azalerari eragiten dioten eta, ondorioz, lurzoru urbanizaezin gisa zer lurralde sailkatu den.

5 NATURA 2000 SAREAREN ETA BESTE NATURAGUNE BABESTU BATZUEN GAINEKO ERAGINA

Errenteriako udalerrian, ZEC ES2120016 Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremuaren zati bat dago. Eremu hori Natura 2000 Europako Sarearen eta Aiako Harria Parke Naturalaren barruan dago. Bi horiek udalerrriaren hegoaldean daude, hirigunetik eta hiri-lurreko eta lurzoru urbanizagarriko eremu eta sektoreetatik urrun.

HAPOk, batez ere, alde zurretik hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzorueta planteatzen ditu garapenak, bai eta gaur egun urbanizaezin gisa sailkatutako bi lurzoru-sektore berritan ere, lehendik dauden industrialdeen eta industria-garapenen ondoan daudenetan. Aipatutako garapen-eremu horiek udalerrriaren iparraldeko erdian daude, GI-2132 errepidearen iparraldera kokatutako lurretan. Zamalbide Berrin eta Tolare Berrin proposatutako garapenak hegoalderago daude, eremu babestuetatik bi kilometro ingurura. Beraz, alde horretatik, ez da eragin negatiborik aurreikusten eremu horietan.

Gainera, HAPOn Aurrerakinean proposatutako udalerriko lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak, Aiako Harria KBE eta Parke Naturala, eta udalerriko natura-ondarearen eta biodibertsitatearen estrategian identifikatutako natura-intereseko espazioak, hala nola Añarbeko Baso Erreserba, Aiako Harria – Lau Haizeta korridorea eta Lau Haizetako Parke Naturala barne hartzen dituenak, Aiako Harria KBEren eta Parke Naturalaren balio naturalak eta indargetze-eremua gehiago babesten eta eskualdeko intereseko beste naturagune batzuekiko lotura hobea izaten lagunduko dutela uste da.

Horregatik guztiagatik, **Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ez du ondorio negatiborik izango Natura 2000 Sareko eremuetan**, ez eta naturagune babestuetan ere eta, edozein kasutan, haien koherentzia, kontserbazioa eta babesa bultzatuko ditu.

6 ERAGINPEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA PUBLIKO INTERESDUNAREN PROPOSAMENA

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duenez, hasierako dokumentazio hori entregatzen denean, alde aurretiko kontsultak egiteko epea irekiko da. Horretarako, ingurumen-organoak kontsulta egingo die eraginpeko administrazio publikoei eta publiko interesdunei. Lan hori osatzeko, eraginpeko administrazio publikoen eta publiko interesdunen zerrenda hau ematen da:





25. taula. Eraginpeko Administrazio publikoak

Eraginpeko Administrazio publikoak		
	Kantauriko Ur Konfederazioa, URA-Uraren Euskal Agentziaren bidez	
Eusko Jaurlaritzza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.	
	Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.	
	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapena eta Europar Politika Zuzendaritza	
	Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza.	
	Segurtasun Saileko Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.	
	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.	
	URA - Uraren Euskal Agentzia	
	IHOBE, Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa	
	EEE, Energiaren Euskal Erakundea	
Gipuzkoako Aldundia	Foru	Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo eta Lurralde Orekako Departamentuko Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusia.
		Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuko Ingurumenekeo Zuzendaritza Nagusia.
		Kultura, Gazteria eta Kirolak Departamentuko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
		Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
		Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuko Mugikortasuneko Zuzendaritza Nagusia.

26. taula. Publiko interesduna (211/2012 Dekretuko 8.1.B artikulua)

Publiko interesduna	
Arloko elkarteak	Gipuzkoako Basozainen Elkartea
	ENBA-Gipuzkoa nekazaritza-sindikatu
	ENHE-Gipuzkoa nekazaritza-sindikatu
Natura babesteko elkarteak	Ekologistak Martxan Gipuzkoa
	Eguzkizaleak elkartea – Eguzki Talde Ekologista
	Itsas Enara Ornitologia Elkartea

Oiartzunen, 2021eko maiatzaren 31n

	
<p>Sin.: Tomas Aranburu Calafel Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa Lurralde Azterlanetan eta Antolamenduan aditua</p>	<p>Sin.: Alexandra Egunez Zalakain Biologian lizentziaduna Masterra Ekosistemen Biodibertsitatean, Funtzionamenduan eta Kudeaketan</p>
	
<p>Sin.: Ibai Alcelay Iglesias Biologian lizentziaduna. Masterra Zoologian</p>	<p>Sin.: Angela Oscoz Prim Farmazian lizentziaduna Masterra ingurumen-inpaktuen ebaluazioan eta zuzenketan</p>

I. ERANSKINA. PLANOAK

I. ERANSKINA. PLANOAK

Informazio-planoak:

- I.1 Planoa Kokapena
- I.2 Planoa Maldak
- I.3 Planoa Gaitasun agrologikoa
- I.4 Planoa Hidrologia
- I.5 Planoa Landaredia eta lurzoruaren erabilerak
- I.6 Planoa Intereseke landaredia
- I.7 Planoa Intereseke fauna
- I.8 Planoa Espazio babestuak
- I.9 Planoa Korridore Ekologikoak
- I.10 Planoa Ingurumen-arriskuak I
- I.11 Planoa Ingurumen-arriskuak II
- I.12 Planoa Ingurumen-unitate homogeneoak
- I.13 Planoa LPP
- I.14 Planoa Ibaien LAP
- I.15 Planoa Nekazaritza eta Basogintzaren LAP

HDEren antolamenduko planoak:

- O.1 planoak Altzate
- O.2 planoak Esnabide eta Basanoaga
- O.3 planoak Gamongoa eta Txirrita-Maleo
- O.4 planoak Masti-Loidi
- O.5 planoak Agustinak
- O.6 planoak Tolare Berri
- O.7 planoak Zamalbide Berri
- O.8 planoak Gaztaño
- O.9 planoak Galtzaraborda
- O.10 planoak Perutxene-Larretxipi
- O.11 planoak Egiburu, Egiluze eta Intzinarte
- O.12 planoak Morrontxo
- O.13 planoak Tolarieta
- O.14 planoak Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua
- C.1 planoak Baldintzatzaile gainjarriak I
- C.2 planoak Baldintzatzaile gainjarriak II

HAPOn antolamenduko planoak:

- O. planoak Bizitegitarako I
- O. planoak Bizitegitarako II
- O. planoak Industrialak
- O. planoak Ekipamenduak I
- O. planoak Ekipamenduak II
- O. planoak Espazio publikoak
- O. planoak Mugikortasuna
- O. planoak Ondarea

